

Zu hemen zaude.

# goiena

## ANTZUOLAKO MAIRUAREN ALARDEAN KAPITAIN IZATEKO GERTU

Edurne Iturbek hartuko du Jose Angel Arbuluren postua uztailaren 20an; ardura hori izango duen lehen emakumea / 24

ANTZUOLAKO JALETAKO GEHIGARRIA BARRUAN

Edurne Iturbe.  
Antzuolako Mairuaren Alardeko kapitaina, eguaztenean, Herriko Plazan, entsegu orokorraren aurretik.

XABIER URZELAI



Debagoieneko liburutegietako hainbat ordezkari *Biblioporrak* aurkezten. IMANOL BELOKI

**Irakurleari orientazioa emateko 'Biblioporrak' gidak, 25 urte** / 40

**Tafallako Fagor Ederlaneko lantegian "kalte txikiak" izan dira, ur erauntsiaren ondorioz** / 2

**Arrasateko etxeko etxeko langileen egoerak hobera egin du, hitzarmen eta enpresa berriarekin** / 9



**44 pilotu izango dira zapatuan Leintz Gatzagako auto igoeran; Aitor Zabaleta da faborito nagusia** / 39

### SINADURAK

	VALEN MOÑUX / 6		JOSU ZUBIA / 35
	IBON ARRUPE / 10		MIKEL IRIZAR / 48



Lege aldaketa, ogi osasuntsuagoa egin dezaten

Joseba Urretabizkaia argazkilaria elkarrizketa

# Aitor Aspe: "Errepidetik hasi zitzaigun ura sartzen, ez errekatik"


Astelehenean izandako euri-jasen ondorioz, Zidakos eta Sansoain ibaiek gainezka egin zuten, eta kalte handiak eragin zituzten Tafallan eta inguruko herrietan; Fagor Ederlanek Tafallan duen plantan ere ura sartu zen, nahiz eta kalte handirik eragin ez

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Fagor Ederlaneko presidente Aitor Aspe martitzen goizean iritsi zen Tafallara, eta, adierazi duenez, urak eramandako autoak zeuden lantegi inguruan. "Horrek esan nahi du hona ere indar handiarekin heldu zela ura". Ezustean harrapatu zituen ur erauntsiak. "Astelehenean, Fagor Ederlanen nengoela, Eskoriatzan, jakin nuen Tafallako eta inguruetako uholdeen berri. Momentu hartan, Tafallan daukagun plantara ura sartzen hasi zen, baina ez errekatik, errepidetik baizik. Gure lantegiaren paralelo errepide bat dago, nazionala. Ura errekatik atera eta errepide horretatik sartu zitzaigun. Pentsara segidan bidali zizkiguten hango irudi batzuk, eta berehala ikusi genuen egoera nahiko arriskutsua eta larria zela", azaldu du.

Hori dela eta, instalakuntzak geratu egin zituzten lehenbailen. 250 langile inguru zeuden momentu hartan lanean. Asperen esanetan, gehienak etxera bidali zituzten, eta batzuk geratu egin ziren, hartu zitezkeen neurri guztiak hartzeko eta zaintza lanak egiteko, kalteak "ahalik eta txikiak" izan zitezkeen. "Fundizioen prozesuetan, batez ere labeekin-eta, egoera arriskutsuak sortu daitezke horrelako kasuetan, neurri zehatz batzuk hartu ezean. Ura sartzen bada, segurtasuna bermatu behar da lehenengo, eta, horretarako, ezinbestekoa da instalakuntzak gelditzea, elektrizitatea dela-eta pertsonak arriskuan egon daitezkeelako. Beraz, neurri txikiak baina praktikoak hartu zituzten han geratu ziren langileek", dio.

Leku batzuetan 30 zentimetro ere hartu zituen urak: "Agian, apur bat gehiago ere bai". Goiko



30 zentimetro ere hartu zituen urak Tafallako plantan. FAGOR EDERLAN

solairuetan, halere, ez zuten kalterik eragin uholdeek, beheko solairuan bakarrik. "Inguru guztia lokaztuta dago, eta motor batzuk eta instalakuntza batzuk oso maila baxuan aritu dira funtzionatzen asteen. Hala ere, zorionez, kalte handirik ez digu eragin. Egia esan, zorrea eduki dugu, eta, alde horretatik, pozik gaude", azpimarratu du.

## Kubilotearekin arazoak

Martitzen arratsalderako, instalakuntza gehienak martxan zituzten, baina zalantza batzuk bazituzten burdina funditzen duen kubilote labearekin. "Gelditzeko orduan ez bada prozesu konkretu bat egiten, zorte apur bat behar izaten da ondo arrankatzeko. Arrankatzea lortu genuen, baina arazoak sortu zitzaizkigun, eta gelditu egin behar izan genuen berriz", dio Aspek. Gero, beste saiakera bat egin zuten, eta eguazten gauerako lortu zuten ondo funtzionatzea. "Eguazten gauetik, instalakuntza guztiak %100 daude martxan. Makina hori gakoa da gure produkzioan, eta, eguaztena birtartean, erdi eginda zegoen guztia prozesatzeko aprobetxatu genuen, eta mantentze-lanak egiteko ere bai".

## Istripu txiki bat bakarrik

Aspek onartu du "istripu txiki" bat baino ez dutela izan ezbehar honetan guztian. "Astelehenean, estoldak eta tapak jaso zituzten

langileek, uraren bidea errazteko, eta martitzenean langileetako batek hanka sartu zuen zuloetako batean; orkatila bihurtu zuen. Istripu arina izan da, baina apuntatu egin dugu, badaezpada. Hurrengo batean halako zerbait gertatzen bada, gogoratzeko eta estoldak modu egokian ixteko berrituko".


## 765 langile inguru

Gaur egun, 765 langile daude Fagor Ederlanek Tafallan duen plantan, hiru txandak kontuan hartuta –uholdea gertatu zen momentuan, 250 inguru zauden, arratsaldeko txandan-. Langile gehienak han ingurukoak dira. "Askok euren etxeetan eta inguruetan nahiko egoera gogorak zituzten, Tafallan eta Erriberrin, batez ere, eta ez ziren etorri lanera egun haietan", azaldu du presidenteak.

Autoentzako eta ibilgailu industrialentzako motorren blokeak egiten dituzte, galdaketa bitartez.

## Non da erreka?

Tafallakoa ez, baina Erriberriko egoera gertutik bizi izateko aukera izan zuen Aspek, eta errealtate "benetan gordinarekin" egin zuen topo. "Ura nondik nora ibili zen ikusten aritu nintzen herriko leku batzuetan, eta erreka ez nuen aurkitu. Imajinatu erreka ze distantziatara zegoen eta ze uholde etorri zen momentu batean", azpimarratu du, harrirituta.



Erriberrin uholdeek hondatutako hainbat traste. AITOR ASPE

## Erriberrin ere, kalte handiak

Herritarrak auzolanean ari dira kaltetutako gauzak konpontzen. "Halako uneetan jendea elkartu egiten da eta hori izaten da ohiko erreakzioa. Etsipen puntu bat ikusi dut, baina, oro har, egoerari buelta emateko prest ikusi ditut herritarrak", dio Aspek.

# Klima aldaketari aurre egiteko laborategia

Climate-KIC erakundearen babesarekin, trantsizio justuarekin, klima aldaketarekin eta berrikuntzarekin lotutako laborategi bihurtuko da Debagoiena. Jardun horren norabidea eta moduak diseinatzen, prozesu irekia abiatu dute eskualdeko hainbat eragileek

## Miren Arregi ARRASATE

Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareak antolatuta, trantsizio justuaren bidean Debagoienak erantzun beharko dituen erronkak identifikatzeko eta erronka horiei erantzuteko jarraitu beharreko ereduaren oinarriak zehazteko, jardunaldiak egin dituzte egunotan Garaia Berrikuntza Gunean. Berrikuntza Plataforma Ireki gisa jardungo duen Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareak modu ireki, kolaboratibo, parte-hartzaile eta partekatuan garatu gura du jarduna, eta datozen hilabete eta urteetan garatuko den prozesu baten hasiera irudikatu



Mariana Mazzucato, azalpenak ematen, eskualdeko eragileen aurrean. J. DOMINGO

dute egunotako jardunaldietan. Debagoieneko eta nazioarteko ordezkariak batu dira bertan; guztira, 60tik gora.

## Climate-KIC erakundea

Izan ere, Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareak, EIT Climate-KIC erakundearen –Europar Batasuneko Berrikuntza eta Ezagutza Komunitatea– babesa jaso du, eta, ondorioz, trantsizio justuarekin, klima aldaketarekin eta berrikuntzarekin lotutako laborategi bilakatuko da gure eskualdea. Horregatik, trantsizio justuarekin zein klimarekin lotutako proiektu berritzaileak identifikatu eta bultzatuko dituzte, elkarlanean.

## Trantsizio justua

Hain zuzen ere, Debagoieneko Berrikuntza Plataforma Irekiak esku artean dituen tresnak ahalbidetuko ditu, etorkizuneko erronka sozialei elkarlanean erantzunak bilatze aldera. Klima aldaketa eta karbonorik gabeko gizarte baterako trantsizioa, lanaren etorkizun iraunkorra, ekonomia zirkularra eta aukera berdintasuna dira etor-

kizuneko erronka horietako batzuk.

## Izaera askotariko erakundeak

Askotariko eragileek hartu dute parte: besteak beste, Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako udalek; Gipuzkoako Foru Aldundiak; enpresa pribatuek zein kooperatibek eta bestelako eragileek –Goiener, Tecnalia, Garapen Agentzia, Mondragon, Huhezi, Naturtzaindia, Plastiakoaren Aurkako Taldea...–. Gainera, nazioartean erreferenteak diren London College Unibertsitateko ekonomialari Mariana Mazzucato, berrikuntza eta sormen arloan mundu mailako adituri entzutetsuena den Charles Leadbeater eta klima aldaketara eta berrikuntzara bideratutako Climate KIC erakundeko ordezkari Michelle Zucker ere izan dira Arrasaten.

## "TRANTSIZIO GUZTIETAN, ERAGILE DESBERDINAK DIRA BEHARREZKOAK"

MARIANA MAZZUCATO, EKONOMIALARIA

Artisau-ogia,  
etxean bertan egina

25 urte  
bete ditugu.  
eskerrik asko  
bidea gurekin  
egin duzuenoi.

ARETXABALETA  
OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2      ARETXABALETA      Loramendi 6

# Kilometroak, jai "parte hartzaile" izateko bidean

Lau urteko gogoetaren ondoren, 2020ean jarriko dute martxan Kilometroak jaiaren eredu berria. Urte osoko jaialdi txikiak osatzea, ikastolen arteko elkarlana bultzatzea eta ikastolen kulturaren harrobi izatea dira markatu dituzten premisetako batzuk

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA

42 urte igaro dira 1977an lehen Kilometroak jai Beasainen eta Lazkaon ospatu zenetik, eta gerotik moldaketa txikiak egin badira ere, oraingo honetan, erabateko aldaketa proposatu du Kilometroak Kultur Elkarteak. Izan ere, Kilometroak jaiaren eredu berria aurkeztu dute, zeina 2020tik aurrera martxan jarriko den.

"2020ean, Villabona eta Zizurkil herrietan Zubimusu Ikastolaren eskutik urriaren lehen igandean ospatuko den Kilometroak festarekin estreinatuko dugu eredu berri hau", dio Kilometroak Kultur Elkarteak Igor Elorzak.

**Hausnarketa prozesua**

2015ean hasi zuten eraldaketa honen hausnarketa prozesua, eta, ikastolez gain, talde tekniko eta aditu baten laguntza ere izan dute. "Urte hauetako guztietako hausnarketa prozesua parte hartzailea izan da eta Gipuzkoako 29 ikastolek hartu dute parte bertan. Prozesu honetatik hainbat ondorio atera ditugu eta hamar premisa edo ezaugarritan batu ditugu".

**Kilometroak: urte osoko bidea**

Eredu berri honek hainbat aldaketa izango ditu; besteak beste, Kilometroak urte osoko jarduerak osatuko dutela eta ez dela urteko jardura jakin erraldoi batera mugatuko.

"Egunik garrantzitsuena mantendu egingo da eta urriaren lehen igandean izaten jarraituko du, baina egun txikiagoa izango da, eta, gainera, egun honek bezainbesteko garrantzia izango dute urtean zehar egingo diren ikuskizun eta jarduerak. Jaialdi hauek, gainera, ikastola ezberdinen inplikazioa izango dute", dio Elorzak.

Urte osoan antolatutako jarduerari dagokionez, oraindik



Kilometroak 2017, Oñatin. GOIENA

## URRIKO JAI "TXIKIAGO" IZANGO DA ETA IKASTOLETAKO IKASLEAK IZANGO DITU "ERDIGUNEAN"

finkatzeko badituzte ere, ezagarrri hauek izango dituztela aurreratu du Elorzak: "Antolatuko ditugun jarduerak guk finkatutako hamar premisei eutsiko diete eta gure komunitatea indartzea izango dute helburu. Esan bezala, ikastola guztiek parte hartzea bilatuko da".

Elorzak gaineratu du gizartearen inplikazioa eta parte hartzea bultzatzea dutela helburu: "Egungo gizarte eredu, aisialdia ekintzetan parte hartzen igarotzea ohikoa ez bada ere, guk lehengora bueltatu nahi dugu. Honen bitartez, besteekin jardura ezberdinetan parte hartzeak dakarren gozamina bilatu nahi dugu".

**Urriko egun handia**

Urriko lehen igandeko festa nagusiari dagokionez, berriz, mantendu egingo da, eta, orain arte

bezala, dagokion ikastola arduratuko da antolaketaz, baina beste hainbat aldaketa izango dituela dio Elorzak: "Egun nagusiari dagokionez, konturatu ginen kontsumoan oinarritutako jai zela, ekonomiari begirakoa, hain zuzen, eta guk parte hartzaileagoa izatea nahi genuela; ikastolak erdigunean izango dituen jai bat behar genuela".

Elorzak dio kontzertuak mantendu egingo direla, baina ez orain bezala, hobe, baizik eta "gutxiago, eta ez hain jendetsuak".

Amaitzeko, "bidea eginez" ikasiko dutela dio Elorzak: "Iparra markatzen duten premisei erantzunez joango gara eta denborekin ikusiko dugu asmatu dugun edo ez".

**Ikasleen parte-hartzea**

Bestalde, ikasleak ahalduzko eta haien parte hartzea bultzatzeko bidean emanak dira aurrerapausoak; horren adibide da Erronka ekimena, zeinak ikastoletako ikasleen harremanak sendotzea duen helburu. Eredu berri honek Erronka bezalako ikasleen ekimen parte hartzaile gehiago izatea ere izango du helburu.



Elgetako Lema enpresako langile bat. GOIENA

## Langabezia tasak beheranzko bidean jarraitzen du eskualdean

%7,22ko langabezia tasa erregistratu da ekainean Debagoienean, lanik gabeko 2.252 lagun zenbatuta

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA

Iazko abendutik hasita, zazpi-garren hilabetez segidan egin du behera langabe kopuruak Debagoienean. Salbuespena Aramaio da, baina aldea txikia da.

Hego Euskal Herrian, berriz, bosgarren hilabetez jarraian gutxitu da langabeen kopurua. Ia 142.000 lagun ageri dira lanik gabe Lanbideko eta Nafar Lan-sareko bulegoetan. Maiatzean baino 3.400 gutxiago dira, eta duela urtebete baino 10.800 gutxiago. Datuen irakurketa positiboa egin dute Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak

eta Confesbak-ek. Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailburuak azpimarratu duenez, "langabeziak arlo guztietan egin du behera; bereziki, 45 urtetik gorakoen eta iraupen luzeko langabeen artean; ekonomiaren suspertzea langabe kronifikatuenei aukerak ematen ari da".

**Sindikatuak ezkor**

Sindikatuak, aldiz, salatu dute "oso baldintza kaskarreko enplegua" nagusitzen ari dela eta "langabeen artean gizonezkoak gehiago" urritu direla.

## Haur jaioberria abandonatu zuen adingabeak epaiketan deklaratu du

Epaiaketa Donostiako adingabeen epaitegian egin dute uztailaren 8tik 11ra; fiskalak 5 urteko zigorra eskatu du


**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

Joan den martxoaren 3an, ustez izan berri zuen jaioberria abandonatu zuen emakumearen aurkako epaiketa egin dute aste honetan Donostiako adingabeen epaitegian –jaioberria hil egin zen–. EFE agentziak jakinarazi duenez, adingabeen zentro baten 5 urteko itxiera neurria eskatu du fiskalak.

17 urteko emakumea martxoaren 4an atxilotu zuen Ertzaintzak, Debagoieneko Ospitalean ingratsatuta zegoela, eta, ordutik, adingabeen zentro batean dago.

Fiskaltzak erailketa delitu bat leporatu dio, eta, ondorioz, 5 urteko itxiera zigorra eta beste bi urteko zaintzapeko askatasuna eskatuko du emakumearentzako. Bestalde, defentsak absoluzioa eskatuko du.

Epaiketaren lehen saioan, adingabeaz gain, ikerketan parte hartu zuten ertzainek, adingabeen familiako kideek, lagunak eta mutil-lagunak ere deklaratu zuten. Baita haur jaio berria autoaren azpian Arrasateko Galizia kalean topatu zuen bizilagunak ere.



Fagor Arrasateko profesionalak, Aluminium China azokan duten standean. FAGOR ARRASATE

# Fagorren lana ikusgai Aluminium China azokan

Fagor Arrasatek aluminioa prozesatu, ebaki, lautu eta pilotzeko bere azken garapenak aurkeztu ditu Aluminium China azokan, Shanghain. 600 erakusketari eta 91 herrialdeko 25.000 bisitaritik gora hurbildu dira azokara; gaur da azken eguna

## Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Aluminium China azokan, Txinako aluminioaren hornidura katea bere osotasunean hartzen duen azokarik handienean, bere lekua izango du, beste behin, Fagor Arrasate enpresak. Aurtengoa azokaren 15. edizioa da eta eguaztenetik gaur arte izango da. Antolatzaileen esanetan, 600 erakusketari baino gehiago

eta 91 herrialdeko 25.000 bisitaritik gora hurbilduko dira azokara. Gaineratu behar da Txina dela mundu mailan aluminioaren ekoizlerik handiena.

Fagor Arrasate hirugarrenez ari da parte hartzen, eta, azokan bertan dagoen Koldo Tobias-en esanetan –Fagor Arrasateren Txinarako zuzendari komertziala–, enpresarentzat "oso garran-

tzitsua" da han egotea: "Oso gustura gaude bisiten mailarekin eta erakusten duten interesarekin. Aluminioaren merkatua gorantz doa, hazteko aukera askorekin, eta Txina da material honen ekoizle nagusia. Izan ere, feria honetan egoteak kontaktu baliagarriak lortzea eta sektoreari gure gaitasun teknologikoak erakustea ahalbidetzen digu.

## Aluminioa autoetan

Autoen emisioek ingurumenean sortutako eraginaren inguruan gero eta kezka handiagoa dago, eta, horregatik, automobil industriak erronka berriei aurre egin behar die; besteak beste, pisua murriztea eta autoen prestazioak hobetzea, baina segurtasuna kaltetu gabe. Hori dela eta, Fagor Arrasatek I+G+Bn "inbertsio handia" egin du, aluminioa bezalako material arinetan, eta, hain zuzen ere, industrian garrantzitsu bihurtu den metal honekin lan egiteko "prozesu eta ekipo optimizatuak" garatu ditu.

Arrasateko kooperatibak Shanghain duen standak material honen inguruko berrikuntzetako batzuk erakusten ditu, hala nola "efizientzia handiko hutseko pilotzailea, konbentzionalekin alderatuz %85ko aurrezpen energetikoa eskaintzen duena, eta automobilgintza edo industria aeroespazialerako kanpo-piezak kalitate handienarekin pilotzen dituen".

Era berean, protagonismo berezia izango dute aluminioa bezalako material hain delikatua tratatzeko aukerak soluzio espezifikoko berriei ere.

## Zeharkako ebaketa lerroa

Fagor Arrasatek jakinarazi du orain dela gutxi zeharkako ebaketa lerro bat entregatu duela, aluminioarako –250 milimetroko linea zabalerako–, Txinako aluminio ekoizlerik handienetako batentzat; aeronautika eta automobilgintza industriarako, hain zuzen. "Daukan linea zabalerak formatu handiekin lan egitea ahalbidetzen du. Eta, gainera, zizaila rotomugikor bat dauka ebaketa makotuak egin ahal izateko, eta Fagor Arrasa-

teko efizientzia handiko hutseko pilotzailea ere bai. Ekipoak minutuko 86 piezako kadentzia lortzen du eta 80 metro txapa minutuko abiadura 0,5 eta 4 milimetro arteko lodieretarako".

Horretaz gain, zeharkako ebaketa linea honek "automatizazio maila handia du eta interbentzioak eta langileentzako arriskuak minimizatzen ditu".

Kooperatibak jakinarazi du lerroa jada instalatuta eta produktioan dagoela, eta, "ebaketa prezisioari eta aluminioaren gainaldeko kalitate handiari esker", automobil ekoizle garrantzitsu batzuen ziurtopena jaso duela dagoeneko.

## Auto elektrikoek gorakada

Autoek pisua arindu beharra daukate emisioak gutxitzeko, eta, horregatik, Txinako automozioarekin lotutako aluminioaren industria gogor ari dira bultzatzen. Kontuan izan behar da Txinak 2018an 29,8 milioi auto ekoiztu zituela, eta horietatik 1,1 milioi elektrikoak izan zirela.

"Horrelako autoek izandako arrakastari esker, 2030erako autoen ekoizpena 11,6 milioikoa izango dela aurreikusten da. Eta, Nazioarteko Aluminio Institututuak dioenez, horretarako, 2030ean 10,7 milioi aluminio tona beharko dira. Kontuan izanda Txinan automobilgintzan 2018an 3,9 milioi behar izan zirela", azaldu dute Fagor Arrasateko ordezkariak.

## FAGOR ARRASATEK ALUMINIORAKO ZEHARKAKO LERRO BAT INSTALATU BERRI DU TXINAN

# Ekolber enpresa bergararraren zati bat erosi du Viscofan-ek

Ekolber enpresak animalien kolageno soberakina erabiliz bioplastikoa sortzen du, %100 degradagarria

## Amaia Zabala Tolosa ARRASATE


Haragizko bilgarrien industrian mundu mailako enpresa nagusienetako bat den Viscofanek 245.000 euro inbertitu berri ditu *start-up* estiloko Ekolber enpresan.

Enpresa hau Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketaren *Urrats bat* programari esker sortu zen, 2015ean, eta iaz, Europako EBAE saria– Europako Enpresarako Ingurumen Sarien barruan– irabazi zuen garapen

jasangarriaren alde egindako apustuagatik.

Ekolberrek bioplastikoa sortzen du animalien kolageno soberakina erabiliz –ileak, lumak eta arrautza azalak, esaterako–; %100 biodegradagarria, konpostagarria eta birziklagarria den plastikoa, hain zuzen.

Ekolber enpresaren esanetan, bioplastiko honek hainbat erabilera izan ditzake, industria farmazeutikorako, kosmetikarako, eraikuntzarako eta elikadurarako, esaterako.



Ekolber enpresako korporazioa. ELKOBER.



ZABALIK

VALEN MOÑUX

## Sanferminak eta %0,5

*Games of Thrones* telesailari buruzko informazio saturazioaren erreakzioz, *meme* bat dabil bueltaka sare sozialetan: *Pertenezco al 1% de la población mundial que no ha visto ningún capítulo de 'Juego de tronos'*.

Esaldi horren estiloari jarraituz, beste *meme* bat asmatu dut: *San Fermin festa ezagutzen ez duen Euskal Herriko populazioaren %0,5aren barne nago*. Kristoren lotsa ematen dit: etxetik 100 kilometrorra ospatzen da munduko jairik onena, eta inoiz ez egon izana Iruñean uztaileko lehenengo egun zoragarri horietan. Kuadrillako guztiak egonda daude, nola ez. Nire guraso zirenek disfrutatzen zituzten, nahiko adin handiarekin, gainera. Seguru aski, arrazoi bat izango zen aita zenak batxilergo osoa Atarrabian egin zuela, eta berarentzat hiri berezia zen Iruñea. Nire seme-alabentzat, zer esanik ez. Bakoitzak bere lagun kuadrilla dauka bertan eta gonbidapen

### KUADRILLAKO GUZTIAK EGONDA DAUDE, NIRE GURASO ZIRENAK, NIRE SEME-ALABAK...

finkoa dute sanferminetan, hango giro musikalean murgilduta, gainera... kristoren inbidia!

Jaizalea naiz, benetan. Bergarako eta Antzuolako jai garrantzitsu batzuetan aspalditik inplikatur nago. Asko baloratzen ditut jai

herrikoiak eta izan dut aukera gauza ederrak ikusteko: Espainiako hegoaldeko Aste Santuak, Amsterdameko Gay Pride jaiak, Japoniako eta Txinako desfile zeremonialak –gure sanmartinetakoen antzerakoak, baina fraide barik–, Tenerifeko Inauteriak eta, kasualitate hutsez, Londresko Notting Hilleko inauteriak; hango eguraldi eskasa dela eta, Inauteriak abuztuan ospatzen dituzte. Gure eguraldia oso antzerakoa izanik, ea noiz ikasten dugun badaudela otsaila baino hilabete hobeak Karnabalak disfrutatzen.

Nire ilusiorik handiena Rio de Janeiroko Sambodromoan *Escolas do Sanba* taldeen desfilea ikustea da. Baina, numero batzuk egin eta gero, kalkulatu dut pixka bat merkeagoa dela zapi gorri bat erostea eta Pesa autobusean sanferminetara joatea. Martxa honetan, aurtan ere zezenak ez nau harrapatuko. Baina 360 egun falta dira bakarrik datorren urtekoak disfrutatzen.

Aber, ba...

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Desagertzeaz dagoen hori

#### GOIZALDE LANDABASO

[HTTPS://LABUR.EUS/ZRLEF](https://labur.eus/zrlef)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Herriak aspaldi egin zuen ihes hiritik.

Ia ez dago herri usainik hiritzarretan. Garai batean auzoetan sortzen zen herri giroa, eta bertan, neurriak neurri, norberak aurki zezakeen herriko zantzurik. [...] Gustatzen zait kalerik kale galdu eta dauden elementu berriak aurkitzea. [...] Etxetik hur bada denda bat edozein herritan aurki zenezakeena. Inoiz ez du zarratzen. Denda dute lantoki eta bizitoki. Lehenengoz sartu nintzenetik

leial izan natzaio. Kanpotik fruta eta izozki marka bateko kartela ageri dira, baina barrura sartu eta atoan jabetzen zara unibertso aldaketa dagoela. Atetik bertatik ikusten da dendaren amaiera. Han, bukaeran, mahai handi bat dago. Etxeko jantokia. Han ikusten dut maiz emakume edadetua jaten. Hara artekoan, ordea, ate bat dago. Horixe baita etxea eta denda bereizten den gunea. Dendan denetarik du, ultramarinos deitzen den horietako bat da. Agian azkena. Saltzailea, ziurren, urrunago dagoen emakume haren ondorengoa da. Latza izan behar da, gero. Izan ere, azken lekukoa izango da seguruen. Zelak bizkar eman munduaren

akaberari? Nola ihes egin aurreko belaunaldikoek ondare legez uzten dizuten horri? Dendara sartzen naizenero nik neuk sentitzen dut iraganaren erantzukizuna, zelan erosteari utzi? Beti pentsatu dut denda horren sarreran denbora jauzi bat dagoela, eta uneraren batean ipurdidun telebistak zuri-beltzean erakutsiko didala dagoeneko historia den edozein gertakari. Jarraitzen dut sartzen; jarraitzen dut erosten; orain gereziak, gero sagarrak edo komunerako papera. Denda uzten dudenero gauza bera pentsatzen dut: zaindu desagertzeaz dagoen hori.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Bereizbar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Begarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Parte-hartze inklusiboa bultzatu gura genuke"

MIGUEL ANGEL LASPIUR ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEKO PRESIDENTEA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarte (ALE) indarberrituta atera da azken batzar orokorretik. Arrasateko mugimendu kooperatiboko bi fundatzaile omendu dituzte, bizitza osoan zehar balio kooperatiboak garatzeko egindako lanagatik. Haien lanarekin jarraituko dutela dio elkartearen presidentea. **Arizmendiarrietaren lana zabaltzeaz gain, ze beste helburu zehatz dauka elkarteak?** Mondragon Taldeari laguntzen diogu formakuntza kooperatiboan. Bestetik, Biblioteka Digitalean, MUREn eskutik, Arizmendiarrietaren idatziak batzen dira. Eta haren pentsamenduak zabaltzen ditugu; esaterako, Joxe Azurmendik aztertu eta interpretatu ditu Arizmendiarrietaren idatziak eta ekintzak, gaur egun duten birtualitateak nabarmenduz. Zabalkundea egiten ari gara gure webgunearen, eta MUREn eta *TuLankide*-ren bidez.



Miguel Angel Laspiur, Arrasateko Arizmendiarrietaren lagunak. ENKO AZKARATE

## Mondragon Taldeari aholkularitza eskaintzen diozue?

Hala da. ALEko bazkide asko kooperatibetako zuzendaritza karguetan aritutakoak dira eta Mondragon Taldeari ez ezik, unibertsitateetan ere,

hemengoetan zein nazioartekoetan, Mondragoeko esperientzia kooperatibo zabaltzen ari gara, ikuspuntu ezberdinetatik. Eskola eta ikastoletara joan izan gara,

gazteei ere gerturatzeko Arizmendiarrietaren balioak. **Eta enpresei ere ematen diezue laguntza?**

Bai; batez ere, gobernu kanpoko erakundeei: Mundukide, Mundubat... Finantza alorrean, prozesuetan, komunikazioan, hainbat alorrean laguntzen dugu.

## Gasteizko eta Nafarroako parlamentuetan aritu zarete hainbat lege asmo bultzatzen.

Kooperatibetan ez ezik, bestelako enpresetan ere langileen eredu parte hartzaile inklusiboa bultzatzeko lege proposamenak bultzatu ditugu. Bietan erabateko adostasunez onartu dira. **Zertan gauza daiteke ekimen hori egunerokoan?**

Alderdi politikoei, sindikatuei eta enpresaburuei hartu dute parte ekimenean. Mintegi bat egin da eta adostasunez onartu ziren ondorioak. Horiek lege bihurtzea zen asmoa, baina, oraingoz, ez du aurrera egin, Konstituzioaren aurkakoa izan zitezkeelako. Ez legezko proposamen bihurtu dira. Ondorioz, gobernuak gonbidatzen ditu ildo honetan neurriak hartzea: politika publiko eta fiskalak bultzatzera edota

langileen parte hartzea bultzatzeko duten proposamenak sustatzera –kudeaketan, erabakietan eta emaitzetan eta jabetzan–. Egindako eskaria gobernuet betetzen dutela bermatzeko eta jarraipena egiteko talde bat osatu da.

## Ze enpresa eredu ari gara?

Kooperatiben eta Sozietate Anonimoen arteko bidea da, hirugarren bide bat. Bide hau interesgarria da, batez ere, jarraikortasunik ez duten enpresa familiarrendako, krisian dauden baina era berean proiektua eta etorkizuna izan dezaket enpresendako... Eredu malgu da, gainera. Jakina, ez da Iberdrolarendako eredu. **Gazteak nola gerturatu nahi dituzue balio humanistetara?** Komunikazio plan bat egin dugu eta sare sozialak erabiltzeko talde bat ere badugu.

## Zertan bereizten da ALE Arizmendiarrietaren Kristau Fundazioarekin?

Zibila, irabazi asmorik bakoa eta akonfesionala da ALE, eta beste edozein erakunde publiko edo pribatutik independentea. Ez konfesionala izateak bereizten gaitu Arrasateko kooperatiben sortzailea kanonizatu gura duen Kristau Fundaziotik.

## ITURRI ONETIK

### Reala eta Osasuna Agorrosinen

Realak eta Osasunak Agorrosinen jokatu dute abuztuaren 3an, zapatua. Bi euskal klubek emakumezkoen talde nagusien arteko lehia izango da, denboraldi-aurreko lagunartekoa. Espainiako Erreginaren Kopako txapeldunaren eta Bigarren Mailatik Lehen B Mailara igo berri den taldearen arteko neurketa bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Nafarren aulkitxoan, gainera, bergarar bat izango da, Mikel Bakaikoa da-eta entrenatzailea. Txuri-urdinen azken fitxaketak ere berdegunean izango dira.

## ALBISTE IZAN ZEN

2012-07-05

### Ospitale berria inauguratu zuen lehendakariak

Patxi Lopez lehendakariak, Rafael Bengoa Osasun sailburuak eta Amaia Larrañaga jarduneko Arrasateko alkateak inauguratu zuten Debagoieneko ospitalea. Berez, ospitale berria zabalik zen ekainetik, baina bedeinkapen guztiak jaso zituen agintarien inaugurazio ekitaldiarekin. Integrazioaren, elkarlanaren eta koordinazioaren eredutzat jo zuen lehendakariak Debagoieneko ospitale berria.



## HAU BE BADOGU!

### Tafalla eta inguruetako uholdeak berbagai

Iragan domekan Tafallan ikusi ziren irudien eta urek kaleetan sortu zuten triskantzaren ostean, elkartasuna nagusi izan da sare sozialetan:

**@IonOrzaiz:** "Auzolanerako deia egin du Tafallako Udalak. Erratz, pala, balde eta eskularruekin etortzeko eskatu die herritarrei. #Tafalla".

**@atarrabiakomanu:** "Hemen bertze bideo bat izugarria benetan. Animo Tafalla! Eutsi!".

**@Oroz1:** "Babes osoa Tafalla osoarentzat eta inguruetako kaltetu guztientzat. Besarkada handi bat".

## GUTUNAK

**Eskerrik asko Osintxutik 112 telefono zenbakira deitu zuenari****JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Berandu bada ere, eskerrak ematea beti dago ondo. 2018ko otsailaren 12an, 17:14an, Osintxutik baten batek deitu zuen 112 telefono zenbakira, esanez Deba ibaian arrainak hilak agertu direla.

Ertzaintza zazpi minutuan bertaratu zen.

Geroxeago, 19:55ean, Sorluzetik beste batek deitu zuen 112 telefono zenbakira –honi ere eskerrak ematen dizkiot–, eta Ertzaintza zortzi minututan heldu zen.

Ez erreparatu bigarren kasuan minutu bat beranduago heldu zirela, baizik eta ia lau ordu geroago arazo bati erantzun publiko eskasa eman zitzaiola.

Egun hartan, Eusko Jaurlaritzaren Urak Departamentuko pertsona bat hurbildu zen, eta ez zuen ikusi arrainik hilda.

Beraz, ez zuen hartu ur-laginik.

Gipuzkoako Foru Aldundiko basozain batek, baina, arrain hilak ikusi zituen eta ur-lagina jaso zuen.

Eta, hain zuzen ere, zianuroa azaldu zen ur-lagin hartan.

Horren harira, gogoratu beharra dago 2013ko abenduan zianuroaren eraginez arrain hilaketa gertatu zela, eta 2011ko irailean ahateak eta arrainak hil zirela, baina ez dakigu zergatik.

Hurrengo egunean, berriz ere Ura Departamentuko pertsona batek hartu zuen ur-lagin bat, baina ez zen zianuro arrastorik azaldu.

Normala da, aurreko egunean isuritakoa, seguru aski, itsaso aldean egongo zelako, baina Ura Departamentua ondorengo egunetan inguruko lantegietan ibili zen ur-laginak hartzen, bekatariaren bila.

Orduan ere, errudunik ez zuten aurkitu, baina bai Bergarako lantegi bat lasai asko permanganatoa isurtzen zebilela ibaira.

3.500 euroko isuna ipini zioten.

Kopuru txikia, gauzak ondo egin edo ez zalantzan jartzen duen horietarikoa.

Ikusten duzuen bezala, asko dago hobetzeko, baina zuek hor segi Deba ibaia zaintzen.

Zerbait arraroa sumatuz gero, deitu 112 telefono zenbakira.

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Euskal Herriak behar duen EITB duin baten alde****LANDER ARBELAITZ**

HTTPS://LABUR.EUS/DVQDF

'ARGIA'-N ARGITARATUA

EITBren erreforma "integrala" egin asmoz, orain bi urte Gasteizko Legebiltzarrean sortutako lantaldeak eskatuta, inkesta bat pasa diete hedabide publikoko langileei.

Borondatezkoa izaki betetzea, mila ingurutik 412 profesionalak erantzun dute.

Besteren artean galdetu diete ea zer pentsatzen duten ematen duten informazioaz.

%74,4k uste dute gobernuaren alde informatzen dutela –kasu honetan EAJ eta PSEren alde–; %9,5 ez daude baieztapenarekin ados eta soilik %16,1ek uste dute EITBren informazioa ez dela aipatu alderdien aldekoa. Horrez gain, langileen gehiengo ez dago ados EITBko kargu eta kudeatzaileak aukeratzeko sistemarekin, eta antolakuntza eredu berri baten beharrak adostasun handia du, inkestan ikusi denez.

Etxe barrutik baieztatzen da, beraz, iazko ekainean Euskal Soziometroak ikus-entzuleen artean jasotako iritzia: telebista publikoaren erabilera alderdikoia nabari dute herritarrek, hedabidea

ez dute independente sumatzen.

Panorama hain da nabarmena, herritar eta eragile sozialei kazetaritzaren munduko geroz eta ahots gehiago gehitu zaizkiela EITBz eta albistegiez kezka publikoki agertzeko prest.

Mariano Ferrer –"Teleberria pintxo-ostatu bat bihurtu da, lotsagarria da"– eta Mirentxu Purroy –"ETBri lasai ederrean dei diezaiokegu Arantxa Tapia Telebista"– kazetari beteranoen hitzak, bi aipatzearen, ez dira oharkabean pasatzen uztekoak etxe hori gure gisa sentitu eta onena opa diogunen artean.

"Ezinbestekoa da erredaktoreen karrera profesionala sustatzea, albistegien egunerokoa erabakitzen dutenak irizpide profesionalen arabera hautatu behar dira soilik, gardentasunez eta aukera berdintasunez".

Etxe hori barnetik ongi ezagutzen duen Jasone Agirre kazetari ohi eta EH Bilduko legebiltzarkidea oso gogor mintzatu zen EITBko zuzendaritzaren aurka eta txartel horia atera zion. "Ardura guztiak atzamarrez" banatzen direla salatu zuen, "konfiantza pertsonalaren arabera".

Azkenean, Eusko Legebiltzarrak EITBri albistegien independentzia eta pluraltasuna bermatzeko eskatu zion.

EITBko LAB sindikatuko ordezkari Arritxu Iribar eta Andoni Basabek Eusko Legebiltzarrean langile askoren egoera zaurgarria salatu zuten.

"Kontratu prekario batekin nekez egin diezaiokezu aurre zentsurari eta autozentsurari", adierazi zuten, *Berria*-ko Urtzi Urkizuk fin jaso zuenez.

Eta beraz? Egoerari buelta eman eta Euskal Herriak telebista publiko duina izateko –gaur egun ETB1 %2ko ikusle kuotara ez da heltzen–, Tele5 imitatzeari uztea behar larria da.

TV3 kataluniarra herri batek behar duen telebistaren eredu on bilakatu da eta %25aren bueltan dabil bere ikusle kuota.

Gauzak aldatzeko, kanpotik ikus-entzuleen presioa eta barrutik langileena beharko da.

Ez da ezer berria, azken aldian Eslovakiako, Poloniako eta Espainiako Estatuko telebista publikoetako langileek protestak egin dituzte, azken hauek *Ostiral Beltzak* "telebista publiko objektibo eta plurala" eskatuz.

Hedabide publikoak boterearen gustoko tresnak dira, herritarrok gogor defendatu beharrekoak.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



# Hitzarmen eta enpresa berriarekin, "hobeto"

Etkez etxeko langileen kudeaketa daraman SSI kooperatibak egoitza inauguratu berri du Iturriotz kalean. Horren harira, langileak nola dauden jakin nahi izan du GOIENAK; lan gehiago dute, hobeto ordainduta, eta gustura daude SSIk ematen dien tratuairekin

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

2018an zehar zeresan handia eman zuten Arrasaten etkez etxeko laguntza zerbitzua ematen duten langileek. Euren lan baldintzak hobetzeko eskatzeko, lau hilabeteko greba egin zuten, askotariko manifestazioekin eta kale agerraldiekin. Udal zerbitzua Clece izeneko enpresa azpikontratu baten bitartez eskaintzen zuen Udalak, eta enpresa horrekin zuten lau urteko kontratua uztailean bukatzen zen. Hura amaitzeaz zegoela hasi zituzten negoziaketak eta protestak, euren eskari nagusiak aintzat hartuko zituen lan hitzarmen propioa lortzeko.




Etkez etxeko langileak, SSIn egoitza berriaren aurrean. XABI GOROSTIDI

## Urrian, konponbidea

Clece enpresaren kontratua uztailean agortzen zen. Momentu hartan, langileek greban jarraitzen zuten, eta, salbuespen neurri bezala, hilabete bat gehiago luzatu zuten Clecerekin kontratua. Langileen eskariei men eginez, Udalak konpromisoa hartu zuen enpresa berri bati kontratua esleitzeko. Horien artean: erabiltzaileei ordaintzen duten tasa jaiste, zerbitzuaren lizitazio prezioa %35 igotzea eta zerbitzu berriaren esleipena gizarte ekonomiako enpresei mugatzea.

Urritik aurrera Clecek jarraitzeko asmorik ez zuela ikusita, SSI kooperatiba barruko Aurreantzen enpresa bilbotarrari eman zion Udalak etkez etxeko langileen kudeaketa, zerbitzua esleitzeko prozesua amaitu bitartean. Negoziketarako egin ondoren, SSIk aintzat hartu zituen langileen eskari nagusiak, eta hitzarmena sinatu zuten. "Langileen ordezkariak, eta langileek, oro har, jarrera irekia izan zuten, eta horri esker akordioa lortu genuen urria amaitu baino lehen. Konfiantza izan zen horretarako gakoa", azaldu du SSiko arduradun Karmele Acedok.



**KARMELE LOITI** ETXEZ ETXEKO LANGILEEN ORDEZKARIA

"SSIrekin erlazioa askoz hobea izan da. Foru Aldundiko araudi hobetua aplikatzen digutenetik, lan gehiago dugu, eta hobeto ordaindutakoa".



**KARMELE ACEDO** SSI ENPRESAKO ARDURADUNA

"Pertsonak zaintzen dituzten pertsonak gara. Hori da SSIn leloa. Kooperatiba bat gara, eta pertsona erdigunean izatea berez dugun balio bat da".

"Enpresa berriarekin erlazio askoz hobea izan da hasieratik. Kooperatiba bat dira, eta igartzen da pertsonekin duten tratuari garrantzi handia ematen diotela. Adibidez, Arrasaten bulego propio bat zabaldu izana langileei atentzio hobea emateko modu bat da. Orain, badugu nora jo enpresako ordezkariarekin egoteko, bajak edo bestelako tramiteak egiteko... logistikoki aurrerapauso bat da guretzat, lehen telefono bidez komunikatzen baikinena", adierazi du langileen ordezkari Karmele Loitik.

## Lana eta soldata, gora

2018ko urtarrilean, Foru Aldundiak araudi berri bat onartu zuen, eta zerbitzua SSIk hartu bezain pronto horren onurak aplikatzen hasi zitzaizkien langileei. "Lehen, ezin genezakeen asteburutan lan egin, eta, araudi berriarekin, urteko 365 egunetan lan egin dezakegu. Horrez gain, pazienteko bi ordu izatetik lau ordu izatera pasa gara. Hala, langileon okupazioa asko igo da, eta lau langile gehiago kontratatu dituzte. Lan gehiago dugu, eta hobeto ordainduta".



Eguazteneko bilera parte hartu zuten herritarrak, Kulturaten. XABI GOROSTIDI

## Idea zaparrada 'EkainArrasaten' dinamikaren lehen batzarrean

11/13 auziari ikusgarritasuna emateko ideiak landu zituzten; 2019ko LKRTSN egunak bertan jarriko du fokua

**X.G.** ARRASATE

Ekain Zubizarretaren eta beste 46 lagunaren aurkako epaiketa irailaren 16an hasiko da, eta azaroaren 18ra arte iraun dezakeela aurreikusten dute. Maila nazionalen 8.200 sinadura batu dituzte, eta irailaren 14rako manifestazio nazionala iragarri dute -Arrasatetik autobusak jarriko dira-. Horrez gain, auzipetuen jatorrizko herrietan plataformak antolatzen dabilta -2.000 lagunek baino gehiagok hartu dute parte- atxikimenduak eta babes ekonomikoak lortze aldera, eta eguaztenean horietako lehena egin

zuten Arrasaten. "Atzokoa ideia zaparrada bat izan zen; bai gaiari buruzko atxikimenduak nola lortu ikusteko, baita gaiari ikusgarritasuna emateko, eta baita babes ekonomikoak lortzeko", azaldu du Eneko Barberenak. "Udara begira argazki lehiaketa bat egitea, Aurtengo LKRTSN eguna honekin karakterizatzea, uztaileko auzo-jaietan gaiari ikusgarritasuna ematea izan ziren ideietako batzuk".

Uztailearen 23an beste bilera bat egingo dute -18:00etan, Kulturaten-, aipatutako ideiak lantaldeka jorratzeko.

## Santa Marinar jai giroa izango da nagusi, gaurtik domekara

Zaratarik gabeko su artifizialak izango direla zabaldu da; baina ez dira su-artifizialak, petardoak baizik

**X.G.** ARRASATE

17:30ean egingo duten bandera jaitsierarekin emango diete jaiei hasiera, eta jarraian, hurrentzako boloa ere egingo dute. 18:00etan, Santa Marina elkarreko prestaturakoa txokolatetara dastatuko dute, eta 18:30ean, Patxi Magoaren ikuskizuna hasiko da Agerre plazan. 22:00etan, Agerre plazan bertan, Joaquin Sabinaren bertsioez osatutako zuzeneko emanaldia hasiko da; horren ostean, Los Otros taldea igoko da oholtza gainera.

Zapatuan, Los Morotes txarangai jai giroa zabaltzen hasiko da, 10:00etan. Goizean, bolo txapelketari ekingo diote, eta hurrentzako puzgarririk ez da faltako. 13:00etan, auzo-poteoa hasiko da; 14:00etan, Makatzenako frontoian bazkaria izango da.

Domekan ere, askotariko ekin-tzak izango dira. Batzuk aipatzearen: erretiratuentzako auzo bazkaria, Aitore Escobarren kontzertua, barbakoa eta sokatira txapelketa. Eta Azkenik, zaratarik gabeko suziriak botako dituzte.



Arrasateko ordezkari politikoak, agintaldiko berriko lehen osoko bilkuran. XABI GOROSTIDI

# Liberatuen ordainsaria %20 igotzea onartu dute

EAJk adierazi zuen soldata horiek 5.000 eta 10.000 biztanle arteko herrien mailan kokatzen direla, "Arrasateri berez dagokionaren azpitik, eta Bergarako liberatuen pare"; oposizioak gehiegizkotzat jo zituen, aurretik zeudenak "duinak" zirela iritzita

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Agintaldi berria martxan da, eta martitzenean lehen osoko bilkura egin zuten. Egondako eztabaiden artean garrantzitsuen a udal karguen dedikazioaren diru-kopuruarekin lotutakoa izan zen. Bertan, alderdi politikoaren, liberatutako politikarien eta zinegotzien ordainsariak

zehazten dira, baita zinegotziek batzar mota bakoitzera joategatik jasotzen duten diru-kopurua ere.

Alderdi politiko bakoitzak aurreko agintaldian baino %5 gehiago jasoko du. Zinegotzi bakoitzeko kopurua alderdiek eurek jasotzen dute, baina kopuru hori %65 jaitzi da. Aldiz,

batzar informatiboetara joategatik zinegotzi bakoitzak jasotzen dituen dietak %56 handituko dira. Esan beharra dago liberatuta dauden politikariek ez dituztela dietak jasotzen, eta dieta kontzeptuan urtean gehienez 7.976 euro jaso ditzaketela zinegotziek, eta 13.958 batzordeburuek. Lehen, muga hori ez zen

existitzen. Liberatuen kasuan, %20ko igoera aplikatzea onartu zuten. Igoera horrek ez dio alkatearen soldatari eragin, horri KPIaren igoera bakarrik aplikatu diotelako. EAJko Anuska Ezkurrak adierazi zuen Eudel-ek ezarritako ordainsarien baremoa aintzat hartuta 5.000 eta 10.000 biztanle dituzten herrietarako gomendatutako soldatak ezarri dituztela, eta Bergarako Udaleko liberatuen ordainsariaren pare daudela.

Oposizioak, aldiz, ez zuen begi onez ikusi igoera. EH Bilduko Kepa Urteagak gehiegizkotzat jo zituen liberatuen ordainsarien igoerak, aurrez soldata "duinak" zituztela argudiatuta. "Liberatuen asignazioa igo dute, baina gaintzeko alderdiek jasotzen duguna jaitzi egin da".

Elkarrekin Podemoseko Igor Urizarrek bat egin zuen EH Bilduren iritziarekin, eta esan zuen igoera ez dela "onargarria", Arrasatek bailarako langabezia-tasa handia duela argudiatuta.

## Batzordeak, eratuta

Agintaldi berrian hamar izango dira, guztira, aurrekoan baino bat gehiago. Batzorde batzuek izen berriak dituzte, eta funtzio bat baino gehiago izango dute. Horrez gain, batzorde truke batzuk izan dira EAJkoen eta PSE-EEkoen artean; besteak beste, Turismoa eta Tokiko Merkataritza EAJk kudeatuko ditu eta Berdintasuna, ordea, sozialistek.

## Alderdien eta politikarien finantzaketa

- **Maria Ubarretxena** 67.466 euro, %100 liberatuta.
- **Oscar Garcia** 39.881 euro, %100 liberatuta.
- **Ander Garay** 39.881 euro, %100 liberatuta.
- **Ibon Arrupe** 21.935 euro, %55 liberatuta.
- **Maitane Muñoz** 19.940 euro, %50 liberatuta.
- **EH Bilduko liberatua** %100ean liberatutako gobernuko zinegotzi baten %90 dagokie: 35.892 .
- **Alderdi politikoak** 750 euro jasoko dituzte hileko.
- **Zinegotziak** 200 euro hileko.

## ZINEGOTZIEN DIETAK

- **Batzorde informatibo batera joategatik** Zinegotziek, 90 euro; batzordeburuek, 180.
- **Osoko bilkurak edo tokiko gobernu batzarrek** 180 euro.
- **Mugak politikarien dietei** Zinegotziek ezingo dute 7.976 euro baino gehiago jaso dietetan, eta batzordeburuek 13.958 baino gehiago ezta ere.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

## Arrasateko etorkizunari begira

Hurrengo lau urteetarako Udal berria osatu da eta Arrasatek daukan erronka nagusiari aurre egiteko gogotsu ekin diogu hautetsioak. Erronka nagusi hori identifikatzea erraza da gure ingurura begiratu gero: Donostia, Bilbo edo Hernani eta Tolosarekin konparatuz, atzean geratu garen herria gara.

Auzo altuetako irisgarritasuna hobetzeko igogailuetan, adibidez, Arrasate oso atzeratuta doa, baita hiriguneko bidegorri sarearen zabalkundean. Zer esanik ez, kiroldegi duin bati buruz. Nola da posible Arrasatek Tolosak daukan punta-puntako kiroldegi bat ez izatea? Edo Hernanik duen kanpoko igerileku ludikorik? Atzean geratu gara eta horren erakusgarri da demografiaren gainbehera larria, ospitale, unibertsitate eta hainbat industria izan arren. 2000. urtean Arrasatek 23.718 biztanle zeuzkan; Hernanik 18.698 eta Tolosak 18.076. 2018an, aldiz, Arrasatek 22.019 biztanle, Hernanik 20.222 eta Tolosak 19.525; datu esanguratsuak, benetan.

Beraz, bada garaia bizitzeko erakargarriagoa izango den Arrasate baten eraikuntzari ekiteko, diskurtso zaharkitu eta kontserbadoreak alde batera utzita.

## OHARRAK

### Urpeko arkeologia

Zapatuan, Musakolako kanpoko igerilekuan, urpeko arkeologia eta *aquagym*-a familian egiteko aukera izango da.

### Canal du Midi

Abaroakoek luxuzko irteera antolatu dute irailerako. Narbonne-ra joango dira lau egunez eta, besteak beste, Canal du Midi zeharkatuko dute itsas bidaia batean.

### Besaideren irteera

Hilaren 21ean, Gorbeia joango dira, mendi martxan. Bertan, Itxinako gailurreria zeharkatuko dute eta Atxularren begia ere bisitatuko dute.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Aprendizien eraikin alboan, ura "zikin"

Irudian Deba ibaia ageri da, Zaldibarko frontoi alboan. Irakurle batek salatu duenez, egubakoitzero isurketak egiten dituzte bertan, eta ura irudian bezain "zikin" geratzen da.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Dena gertu, arrozen bueltan elkar ezagutzeko

Zapatu goizean, Seber Altube Arrasateko aniztasun kulturalaren epizentro bihurtuko da. Zortzi taldetan banatuta, askotariko arroz motak kozinatuko dituzte sutegetian, eta dantza nepaldarrek, hennak eta zuzeneko musikak ere izango dute lekua festan

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Udalak eta herriko hainbat talde eta eragilek antolatutako egitasmoaren bigarren edizioa izango da zapatukoa, eta Arrasaten bizi diren jatorri askotariko pertsonen inklusioa du helburu. "Jai honekin nahi duguna da Arrasaten bizi diren jatorri ezberdinetako lagunek elkar ezagutzea. Eta, horretarako, jai giroa baino hoberik ez dago", azaldu du SOS Arrazakeriako Nora Ugarteburuk. IMME, Activos Por Un Mundo Solidario, Gurutze Gorria, SOS Arrazakeria, Ekin Emakumeak, Arrasateko Aniztasun Saila eta Arrasateko HHI elkarteak aritu dira ekimen hau elkarlanean antolatzen.

Izen emate epea aurreko barikuan agortu zen, baina bertan parte hartu nahi duen orok atek zabalik izango ditu. "Kozinatua ahal izateko arrazoi logistikogatik jarri genuen izen ematea. Baina jatorri ezberdinetako he-

rritarrek ezagutu nahi dituztenek edo, beste barik, arroz mota berezi horiek nola egiten diren galdetu nahi dutenek gerturatu besterik ez dute egin behar", azaldu du Ekin Emakumeak elkarteak Jasone Giraldo.

## Zortzi talde eta 50 lagun

Zortzi taldetan banatuta kozinatuko dituzte arrozak. "Taldeen jatorri nahaste bat izango dute. Elkarrekin batera arituko dira nikaraguarrak, nepaldarrak, siriarak, aljeriarrak, pakistandarrak... talde benetan anitzak izango dira". 10:30ean, sutegetiak banatuko dituzte, eta jarraian, 20 euro emango dizkiote talde bakoitzari arroza prestatzeko osagaiak erosteko. 11:30ean, bizikidetzaren irudikatzeko mural margotzea egingo dute, eta asmoa da 12:30erako arrozak gertu izatea, dastaketak hasteko. Zuzeneko musika taldeak, dantza nepaldarrak eta henna tailerra ere izango dira.

## Maria Ubarretxena Kordobako Montilla herrian izan da

Hango herritar asko Arrasatera etorri ziren lan bila, eta, aurtengo jaietan, Arrasatera etorritako montillarrak izan dira jaietako pregoia botatzeko ohorea izan dutenak. Horrez gain, duela gutxi zendutako Paco Garcia sozialistari -hangoa zen jatorriz- omenaldia egin zioten, eta Oscar Garcia ere han izan zen. Pregoa bota zutenek Arrasateko alkatea bertaratzeko eskari ugari egin zituzten eta Ubarretxenak baiezkota eman zien. Pregoa martitzenean bota zuten, eta alkatea izan zen han egon, martitzenean osoko bilkura zegoelako, baina eguaztenez bertaratu zen, eta eguenean bueltatu.

## Enpresentzako eta langabeentzako dirulaguntzak, prest

Arrasateko Udalak enplegurako dirulaguntza programaren berri eman du. Programa horren barruan, bi dirulaguntza emango ditu Udalak: bata, herriko 25 urtetik gorako langabeentzako; eta bestea, Arrasaten sortzen diren enpresa jarduera berrientzako. 15 langiletik beherako enpresak izan behar dira, enplegu orokor bat edo gehiago laguntzaren helburua honako hau da: lanik ez duten herritarrek Lanbide Heziketako ikasketak egitea, langabezia dauden bitartean. Bi laguntzak eskatu ahal izateko epea 2019ko abenduaren 31n agortuko da. Informazio gehiago, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus)-en.



Jasone Giraldo eta Nora Ugarteburu, festako kartelarekin. XABI GOROSTIDI

Larunbata  
**13**  
uztaila




Oparitzen dizugu

# BEZ\*

elikaduran, freskoetan,  
lurrindegian eta drogerian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoarentzako produktuak barne.

SOILIK HIPERMERKATUETAN

**Soilik BAZKIDEENTZAT**

Zure EROSKI club txartelean itzuliko dizugu



**60 €tik gorako erosketengatik Euskadiko (Txurdinaga salbu), Erioxako eta Kantabriako EROSKI Hipermerkatuetan, susstapenari loturiko sailletan.**

\*Kupon ordaintzean EROSKI Club txartela erabilita, egindako erosketaren BEZeri dagokion zenbatekoa sortuko dizugu txartelarekin loturiko EROSKI Club kontuan. Susstapenari loturiko sailletan. EROSKI Club kartan sar daitezkeen gehieneko zenbatekoa: 250 euro. Kontuarekin gainerako baldintzak zure ohiko sailletan.



**EROSKI**

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30

# "Herritarrei atletismoa gerturatu nahi diegu"

**JON ORMAETXEA** ARRASATE ATLETIKO TALDEKO LEHENDAKARIA

Arrasateko atletismo kluba 75. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil; irailaren 7an Biteriko plazan egingo duten erakustaldia izango da hitzordu nagusietako bat

**Xabier Urzelai** ARRASATE

75 urte betetzea ez da egunero egiten den zerbait. Urteurrena ondo ospatzeko nahikoa motibo da, eta Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak horretan dabilta. Maiatzaren 12an Fernando Zufiria Txufi omenduaz hasi zituzten urteurreneko ospakizunak, baina abuztuko oporralditik bueltan etorriko da hitzordu handia, Biteri plazan egingo duten atletismo erakustaldiarekin.

**Ondo merezitako omenaldiarekin hasi zarete urteurrena ospatzen...**

Ez dut uste omenaldi bat gehiago merezi duenik egongo denik. Txufi-k 50 urte egin ditu Arrasateko atletismoa sustatzen, eta ez dut uste Gipuzkoa osoan halako beste pertsonarik egongo denik. Eskerrak eman behar dizkiogu urte hauetan guztietan egindako lanagatik.

**Irailaren 7an Biterin egingo duzuen erakustaldian, kalera eramango duzue atletismoa.**

Ekitaldi horretako helburuetako bat da herritarrei atletismoa gerturatzea; hau da, erakutsi gura dugu atletismoa ez dela soilik korrika egitea, beste modalitate batzuk ere badaude eta. Eta, gainera, zorte handia dugu, pertikan eta salto hirukoitzean Euskadiko atleta onentsuenak



Jon Ormaetxea, Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena, kartelarekin. X.U.

## "HERRITARREK IKUS DEZATELA ATLETA HAUEK ZER-NOLAKO LANA EGITEN DUTEN EZKUTUAN"

herrian ditugulako. Jendeak ikus dezala zein den gazte hauek Mojategin egunero-egunero egiten duten lana. Gainera, pertika erakustaldi bat kalean ikusgarria da, uste dut herritarrek gozatu ederra hartu behar dutela.

**Puntako atletak etorriko dira.**

Halaxe da. Esan dugu Euskadiko atleta onentsuenak gurean ditugula, baina, horrekin batera, emakumezkoen pertikan Espainiako rankingeko bost atleta onenak Arrasatera ekarri gura ditugu.

**Santamas krosarekin, berriz, atletismoa herritarrei gerturatzea da asmoa.**

Asmo horrekin hasi ginen Santamasetako Kuadrilen Arteko Krosa antolatzen. Aurtengoa abenduaren 15ean izango da, eta azken urteotan debagoiendarrei begira antolatzen dugun krosak indar handia hartu du. Lagun

giroan korrika apur bat egiteko asmoz antolatzen dugu hitzordu hori, eta ematen ditugun sariak zelakoak diren ikusi baino ez dago herri mailako kros bat dela ikusteko, dena ez dugu-eta atletismo federatura begira bakarrik egiten.

**75 urte hauetan, posible da Arrasateko atleta bat nabarmentzea?**

Oso zaila da, maila oso oneko atletak egon dira eta. Nabarmenena, akaso, Jose Antonio Gay izan zen, 1992ko Bartzelonako Joko Olinpiarretarako aurrea-ukeraketa taldean egon zelako. Eta gaur egun ere ikustekoa da ze mailatako atletak ditugun: Maialen Axpe, Malen Ruiz de Azua, Istar Dapena, Eneko Carrascal, Iñigo Uribarren... Hauek euren kategorietan Espainiako selekzioarekin izan dira eta oso marka onak lortu izan dituzte. **Argazki erakustaldi bat ere jarriko duzue abian.**

Urtarrilaren 31tik otsailaren 15era egongo da erakusketa hori, Kulturaten. Besteak beste, Joxe Elorza dabil lan horretan, eta dagoeneko argazki mordoa eskaneatu ditu, 200 argazkitik gora izango ditugu; neurri batean, 75 urte hauek laburbiltzen dituzte.

## Atletek Durangon jokatuko dute Euskadiko txapelketa absolutua

20 urtez azpiko Espainiako txapelketan, Alain Egia onenen artean egon zen, laugarren sailkatuta

**X.U. ARRASATE**

Asteburuan jokatuko dute, Durangon, Euskadiko txapelketa absolutua, eta Arrasateko hainbat atleta ahaleginduko dira aire libreko denboraldiko marka pertsonalak ondu eta podiumera igotzen. "5,50eko marka egin gura dut, horretarako nabil lanean", dio argi Istar Dapenak. "Dagoeneko hiru hilabete daramatzat gaueko erreleboan, eta ohitu naiz horretara. Gainera, txapelketa zapatu arratsaldean izango dugu, eta ez dut ordutegi aldaketa handirik egin behar-

ko. Ez da erraza, baina marka horretan egoteko kapaz naizela uste dut". Egoera berean dago Malen Ruiz de Azua: "Marka pertsonala egin nahi dut. Neguan 4,38ko saltoa egin nuen eta aire librean 4,31 egin dut. Eta ez, ez naiz azken marka hori hobetzarekin konformatzen. Uste dut lortu dudana baino gehiago merezi dudala, asko entrenatu naiz-eta aurtan".

Bi atleta horiekin batera Eneko Carrascal, Iñigo Uribarren, Mikel Agirre eta Maialen Axpe ere Durangon izango dira.



FERNANDO OKINA

## Agurak eta ongietorriak AKEn

Zapatuan, ikasturte amaierako bazkaria egin zuten Arrasate Kirol Elkarteko lagunek, Apotzagan. Agur kutsua izan zuen, bederatzirte tenis eta padel monitore izan den Juan Carlos Moro gasteiztarrak ez du-eta eurekin jarraituko. Baina Morok utzitako hutsunea segituan bete dute, gogotsu datorren Aitor Magallanes gazteak hartuko baitu haren lekua.

## Granollers-en lehiatu dira Alain Egia eta Aitor Uranga

Espainiako 20 urtez azpiko txapelketan izan dira bi atleta horiek, Granollersen. Alain Egia nabarmentzeko moduko lana egin zuen, salto hirukoitzean laugarren postuan sailkatu zen-eta, 14,29ko marka eginda. Aitor Urangak 100 metroko lasterketan hartu zuen esku: 11.25 egin zuen eta ezin izan zen finalerdietara-ko sailkatu.



Aitor Uranga eta Alain Egia. A.ATLETIKO

## "Klubak merezi du"

Kaleko erakustaldiaren bueltan atletak ere gogotsu daude: "Gustura egingo dugu, klubak merezi du horrenbeste. Egia da denboraldia amaituta atletak ez direla sasoi puntu onenean egongo, baina polita izango da", dio Jonathan Perezek.

# Bere kabuz hasi, eta irakasle izaten amaitu

Youtube ez zegoenean, gitarra aldizkariak ziren nork bere kabuz musika jotzen ikasteko tresna onenak. Jon Garcia hala hasi zen, baina goi mailako ikasketak egin zituen gero; orain, gitarra irakasle da, eta Garcia Del Val taldearekin joko du Arrasate Blues jaialdian

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Kuadrillako lagunekin sortu zuen lehen musika taldea: Fase Terminal zuten izena, eta punk-oi! musika jotzen zuten. Garai hartan Megadeth-en bertsioak jotzeak taldean sartzeko atea zabaltu zizkion galdetuta, zera dio: "Guztiz aurkakoa; Megadethen bertsioak egiteagatik ia-ia ez ninduten hartu; kar, kar, kar. Borja, taldeko baxu-jolea, nire bizilaguna zen, eta gitarrista baten bila zebilen. Oi! gitarrista bat nahi zuen, baina, ondo jotzen nuela ikusita, nirekin konformatu behar izan zuen".

## Aldizkariekin, nork bere kabuz

Aitarengatik gitarra klasikoarekin hasi zen Garcia sei sokak astintzen, eta 14 urterekin lehen gitarra elektrikoa eskuratu zuen. "Ez zait ahaztuko lehen gitarra hura, heavy itxurakoa eta Jackson etxekoa. Beste lagun batek aldi berean erosi zuen elektrikoa ere, eta gure kabuz hasi ginen ikasten. Orduan, ez zegoen gaur egun bezain besteko baliabiderik eta *Gitarrista Total* bezalako aldizkariak irakurriz hasi ginen gure teknika hobetzeko ahaleginak egiten". Orduetik hona, hainbat gitarra pasatu dira Garcia-aren eskutik, baina garbi du zein eramango lukeen uharte

desertu batera: "Stratocasterra, zalantza izpirik gabe. 20 urterekin erosi nuen, eta gaur egun gehien erabiltzen dudana da. Guztira, zortzi gitarra izan ditut, eta bostekin geratu naiz."

## Iruñean ikasketak

20 urterekin Arrasate Musikalen hasi zen. "Aldizkarietan gauza tekniko ugari azaltzen ziren eta ez nintzen horiek barneratzeko gai". Bertan, Jose Barrio irakaslea ezagutu zuen, eta hark gomendatu zion gitarra ikasketak egitea. "18 urterekin ez nekien musika modernoko ikasketak egin ahal zirenik, eta ingeniaritza bat egin nuen. Baina behin hori amaituta, urtebetez langabezian egon nintzen, eta Nafarroako Goi Mailako Kontserbatoriora sartu ahal izateko prestatzen aritu nintzen". Bost urte egin zituen han, eta orain, irakasle dihardu Arrasate Musikalen eta Irurtzunen.

## Garcia Del Val

Irakasteaz gain, zuzenekoak ematen ahalegintzen da, ahal duenean. Aitor Morenokin eta Asier Eliasekin batera Garcia Del Val taldea sortu du, eta Arrasate Blues jaialdian joko dute. "Jaialdiarena primerako ekimena da; gehiago behar ditugu".



Garcia Del Val taldeko kideak: Jon Garcia, Asier Elias eta Aitor Moreno. BELEN ICETA

# ARRASATE BLUES

## Uztailak 19-20-21



## Aragoiko zirku bat domekan

Zalgurdi batean bizi diren bost lagunen istorioa irudikatzen duen zirku ikuskizuna da *Koselig*. Zirkua, antzerkia, umorea eta magia nagusitzen diren emanaldia da, eta Aragoiko Cia Capicua konpainiak ekoizten du. Domekan, beraz, zuzeneko zirku emanaldi bizi hau gozatzeko aukera izango dute Arrasatera datozenek. Hitzordua, 20:00etan, Biteri plazan.



CIA CAPICUA





Lagun Artean dantza taldekoen emanaldia. IBAI ZABALA

# Hasi eta buka, ederki jaietan aramaioarrak

Giro ederrean igaro dira aurtengo San Martin jaiak. Dantza eta musika ez dira falta izan, ohiko ekitaldiak eta berriak, merezitako aitortzak eta umore kutsuko aldarrikapenak. Gazte Asanbladakoek ere festen oso balorazio positiboa egin dute

## Julen Iriondo ARAMAIO

Anbotoko Mariren jaitsierarekin hasi dira aurten ere –bigarren aldiz– San Martin jaiak. Itur Zuri emakume taldekoek, berriz, txupina jaurtitzeko ohorea izan zuten, urteetan egindako lanaren aitortza modura.

Auto klasikoaren erakustaldiak plaza hartu zuen zapatu goizez, eta harekin batera patata-tortilla egiten jardun zuten hainbatek: lehen saria Adela Elejalde eta Aintzane Telleriarterentzat izan zen nagusietan eta Markel

Arriolabengoarentzat, berriz, gazteetan. Arratsaldez, beste poteo modalitate bat praktikan jarri zuten kalez kale, magia-poteoa, Txoborro magoarekin.

Domeka ere bete-betekoa izan zen: iazko jaietatik jaiotako zortzi umeri harrera egin zieten, eta ekitaldi horrekin batera Lagun Artean dantza taldeak egindako saioak herritarren espektatiba altuak ase zituen, beste behin. Herri kirolak eta Ertzak taldea ere izan ziren plaza arratsaldez.

Astelehenean, azkenik, kua-drillen arteko pikea aldarrikatu zuen mozorroa izan zen saritua.

## Gazte Asanbladaren balorazioa

Txosnaguneari dagokionez, Gazte Asanbladako Unai Etxenausiak azaldu du "oso beteta" egon dela une oro: "Astelehena bera herriko jendearentzat izaten da, gehienbat, baina jende pila bat ibili zen. Edaria bukatu zitzaigun, eta gehiago eskatu behar izan genuen. Aurreikuspenak gainditu egin ditugula esan dezakegu".



Anbotoko Mari, eta Itur Zurikoak atzean. AITOR AGIRIANO



Auto klasikoari begira. AITOR AGIRIANO



Ertzak taldearen saioa. AITOR AGIRIANO



Tortilla lehiaketa. AITOR AGIRIANO



Herri kirol saioan, emakumeak trontzan. AITOR AGIRIANO



Txosnaguneko kontzertuetako bat. GOIENA



Jaioberriei omenaldia. IBAI ZABALA



Mozorro irabazlea. GOIENA



Txoborro magoa, magia-poteoan. AITOR AGIRIANO



Jaiak hasi bezperan abesbatzako kideek egindako ikuskizuna. SERGIO AZKARATE

# Berdintasuna helburu duen Kuadrillaren gida

Sentsibilizazioa eta prebentzioa ditu helburu Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun Sailaren arteko lankidetzatik sortutako eskuorriak. Berdintasun Planeko ekimena da, eta hausnarketarako eta egunerokoak aldatzeko gonbidapena egiten die herritarrei

**J.I. ARAMAIO**

Emakume izate soilagatik haiek egin beharrekotzat jotzen diren arlo pribatuko hainbat lan dirrela eta -umeen edo nagusien zaintzarekin lotutakoak, tartean-, errealitate hau ikustarazteko eta aldaketarako pausoak emateko gida plazaratu du Gorbeialdeko Kuadrillak. Emakumeek jasan behar izaten duten lan-kargarekin batera, gertatu ohi dena da gainerakoekiko ardura handia izan ohi dela eta norbere buruarekiko txikia: "Etorzen direnean emakumeak gizarte zerbitzuetara, askotan, ez dute beraiendako ezer eskatzen, baizik eta familiako beste kideendako; aldiz, gizonak etortzen direnean, gehienetan, beraiantzako eskariak egiten dituzte", dio Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun teknikari Araitz Palaciosek.

Lan-kargak emakume askori arazo fisiko zein psikologikoak eragiten dizkie. Seme-alaben osasun azterketak, txertoen kontrola, eskolako bilerak... zaintzarekin lotutako ardurak, adibidez, zama mentala dira lau emakumetik hirurentzat, ikerketen arabera. Erreproduzitzen den ereduak, gainera, eragina du urte batzuetan heldu izango diren ume horiengan: "Umeek,



Araitz Palacios, Berdintasun teknikaria. JULEN IRIONDO

hasiera batean, ez dakite zer den berdintasuna edo zer ez den, helduok ematen dizkiegun irizpideen arabera egiten dute euren ideia; orduan, helduok hausnarketa egin behar dugu, eta hezkidetzara jauzi egin, gure umeak eredu horren arabera sozializatuz".

Oreka horren bila, Gorbeialdeko Kuadrillak ateratako gidaren arabera, emakumeek aztertu behar lukete zein den bakoitzaren egoera; egoera horretaz jabetu eta, justua ez bada, ez onartu emakume izate soilaga-

tik. Gizonentzako ere bada, orde, ateratako eskuorria: etxeko eta zaintza lanetan izan ohi duen parte-hartzea aztertu behar du gizonak, eta lan banaketa justua ez bada hala izan dadin egin, zereginak gauzatzeaz bakarrik ez, antolaketaz-eta ere arduratuz, gidak dioenez: "Balantza orekatzea ez da posible gizonen euren gain hartzen ez badituzte gaur egun, oraindik, egiten ez dituzten hainbat lan".

Gida hau Aramaioko etxe guztietan banatu dute, eta udaletxean ere eskuratu daiteke.

## Aitor Ugarte, Espainiako txapeldun, eta Munduko Kopara

Sierra Nevada izandako Kilo-metro Bertikalen Espainiako Txapelketa irabazi egin zuen Aitor Ugartek domekan -kadete mailan-, eta abuztuko lehen asteburuan Italian jokatu den Munduko Koparako sailkatu da, honenbestez. Egutegiko lau lasterketatik hiru jokatu eta denak irabazita, gainera, Espainiako Kopa ere berea du.



Podiumaren erdian. AITOR UGARTE

## San Kristobal eguna ospatuko dute domekan Uribarrin

12:00etan, meza egingo dute eta 13:00etan, bolo txapelketa; sariak: urdaiazpikoa, solomoa eta gazta. Trikitilariak egongo dira ondoren, Maialen Ballina eta Amaia Arregi; eta bertsolariak, Xabi Igoa, Ane Zuazubiskar eta Aitor Ugarte -auzo bazkari ostean ere jardungo dute-. 16:30ean, ume jolasak egongo dira, ospakizuna amaitzeko.



Udalbatzako kideak elkartuta, martitzenean, agintaldiko lehenengo osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

# Lau batzorde eta hiru liberatu agintaldi berrian

Alkatearekin batera beste bi zinegotzi izango dira jardun osoz lanean Udalean: EAJko Ainhoa Cabero eta EH Bilduko Ion Albizu. Batzordeei dagokienez, gutxiago eratu dituzte oraingoan, eta oposizioko taldeak horietako baten gidaritza izango du

## Mirari Altube ARETXABALETA

Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkurarekin ekin dio udalbatzak lau urteko ibilbideari. Eta horretarako, kargua hartzeko zuen EAJko Alex Seiler zinegotzi izendatu zuten lehenengo. Hori egindakoan, ohiko osoko bilkurak noiz egin zehaztu zuten: hileko bigarren eguaztenetan, bi hilabete behin.

## Lau batzorde bakarrik

Oraingo agintaldian batzorde gutxiago eratzea erabaki dute, eta lau bakarrik izango dira: Hirigintza, Gizartegintza (Ongi-

zatea, Prebentzioa eta Gazteria), Herri sustapena (Kultura, Kirola eta Euskara) eta Udal Plangintza. "Murritzitu egin ditugu, uste dugulako koordinazio eta elkarlan beharra dugula eta hori dela bidea. Erronka handia izango da, baina proba egiteko gertu gaude", adierazi du Unai Elkoro alkateak. Idazkaritza, Kontuhartzaitza eta Udaltzaingoa alkatearen ardura izango dira eta Ogasuna eta Pertsonala, ostera, Gobernu batzordearenak.

Aurreko agintaldian legez, Gobernu batzordeko kide izango da EH Bildu; hor egongo dira

EAJko Elkoro, Karmele Uribarri –lehenengo alkateordea– eta Koldo Zubillaga –bigarren alkateordea–, eta EH Bilduko Ion Albizu eta Mikel Uribetxebarria: "EAJrekin lortu dugun akordioa oinarritzen da lankidetzan, ohiko koaliziorik ez dugu egin. Eta orain arte moduan, proposamenak egingo dizkiogu Udal Gobernuari, kritikak ere bai, eta gertuko jarraipen zorrotza. Ardura jokatzeko jarraituko dugu", adierazi du Albizuk. Era berean, Udal Plangintza batzordearen ardura izango da Plan Orokorra garatzea: "Oso garrantzitsua da

## Urteko diru ekarpenak

Liberazioak (gordinak)	
Unai Elkoro:	56.486,38€
Ainhoa Cabero:	39.881,98€
Ion Albizu:	39.881,98€

## Udal taldeei ekarpenak

Finkoa:	
EAJ	1.816 boto 9.854,69€
EH Bildu	1.501 boto 8.145,11€

Udalbatza:	
Zinegotziak	
EAJ	7 8.481,31€
EH Bildu	6 7.269,23€
Gobernu batzordea:	
EAJ	hiru kide 4.500€
EH Bildu	bi kide 2.250€

ITURRIA: UDALA

hori, bereziki etorkizunean eta eguneroko zereginetan sekulako eragina duelako".

## Hiru liberatu

Liberatu kopurua ere nobedadea da. Alkatearekin batera, EAJko Caberok eta EH Bilduko Albizuk egun oso lan-jarduna izango dute. "Ainhoa Caberok barruko gaiak koordinatuko ditu. Eta, horrela, ni neu libreago egongo naiz beste kontu batzuei heltzeko", zioen alkateak, eta Albizuk adierazi zuen: "Plan Orokorra geuk garatu gura dugu, eta horretarako dedikazio handia behar da". Era berean, guztiek onartu zuten ardurarekin jokatzeko dago kiela eta herritarrei erakustea Udalak hobeto funtziona dezan baliagarria izango dela.

## Batzar orokorra egingo du UDAK gaur, egubakoitza, Arkupen

Batzar orokorrera deitu ditu UDAK bazkideak gaurko (Arkupen, 18:30). Zuzendaritza batzordeak 2018-2019 denboraldian egindakoan eta diru kontuen berri emango du; 2019-2020 denboraldia aurkeztu eta diru kontuak onartu; eta galderak eta eskaerak egiteko tartea eskaini. Bukatzeko, ohorezko jokalariei eta bazkideari esker ona adieraziko diete.

## Trikiti doinuak gaur eta elektronikoak bihar, Aretxarterekin

Aretxarte elkarteak asteburuak girotzen jarraitzen du, eta, oraingoan, Eider eta Leire trikitilariak izango dira gaur, egubakoitza, Gurea taberna inguruan (19:00).

Bihar, zapatua, ostera, Solar Sound Sistem taldeak musika elektronikoa eskainiko du kalean, Ezkutu taberna inguruan (18:00-22:00); eguzkiaren energia erabiliko dute horretarako.

## Kresala taldeak 'Ikono-grafiak' lana eskainiko du

Eguaztenetako kale antzerkiaren zikloa aurrera doa, eta harrera ezin beroagoa egin diete herritarrek ikuskizunei. Uztailaren 17an, Kresala euskal taldea izango da Herriko Plazan (19:00) *Ikono-grafiak* lanarekin.

Euskal dantzaren bilakaera berrian talde aitzindaria da Kresala, eta bertatik bertara ezagutzeko aukera dute herritarrek.

## Koadernaketa eta joskintza ikastaroak Gu Haziak Gara-rekin

Gu Haziak Gara elkarteak bi ikastaro antolatuta ditu uztailaren 22tik 24ra bitartean egiteko –hiru saio–. Joskintza eskolak emango dizkiete 8 urtetik gorako gaztetxoei (10:00-12:00) eta koadernaketa saioak 12 urtetik gorakoei (15:00-17:00). Izena emateko eta argibideak eskatzeko bideak, hemen: 688 62 37 18 eta [guhaziakgara@gmail.com](mailto:guhaziakgara@gmail.com).



**UNAI ELKORO**  
HIRIGINTZAKO BURUA

Batzordea osatuko dute Xabier Otxoa eta Ion Albizu zinegotziek eta lau teknikariak: Saioa Llodio, Elena Gibello, Amaia Sologaitoa eta Jose Ramon Urrutia.



**KARMELE URIBARRI**  
GIZARTEGINTZAKO BURUA

Batzordea osatuko dute Ainhoa Cabero, Irati Pagoaga eta Ione Ojea zinegotziek; Ongizate, Prebentzio eta Berdintasun teknikariak; eta kale hezitzaileak.



**AINHOA CABERO**  
HERRI SUSTAPENKO BURUA

Koldo Zubillaga (kirola), Alex Seiler (kiroldegia), Gorka Gabilondo eta Jasone Garzia-Etxabe zinegotziek osatuko dute, eta Kultura, Gazteria, Euskara eta Kirol teknikariak.



**ION ALBIZU**  
UDAL PLANGINTZAKO BURUA

Batzordea osatuko dute Unai Elkoro, Alex Seiler, Pili Leanizbarrutia, Jasone Garzia-Etxabe eta Mikel Uribetxebarria zinegotziek eta udal teknikariak.



# Degurixara irteera, hango kontuak ezagutzera

Uztailaren 20an eta 21ean, Kurtzebarri inguruan dauden bazterrak eta bertako kontuak ezagutzera joango dira Loramendi elkarteko toponimia taldeko kideak; herritarrei zabaldu diete gonbidapena, eta interesatuek astelehenerako eman behar dute izena

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Loramendiko toponimia taldeko kideek hamaikagarren ibilaldia antolatu dute. Oraingoan, herritik urrundu eta mendi aldera jo dute: Degurixara, hain zuzen ere. Hango bazterrak eta kontuak hobeto ezagutzeko, bi eguneko irteera proposatu dute, gaua han pasatuta. "Jatorduak egiteko eta gaua pasatzeko, Urzabalgo txabola erabiliko dugu", adierazi dute taldeko kideek.

Dena den, egun bakarrera agertu gura dutenak ere pozik hartuko dituztela jakinarazi dute. Plan baterako zein besterako, aurretik izena ematea eskatu dute; horretarako, mezu bat bidali behar da honako helbide honetara: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus). Astelehena, uztailaren 15a, da azken eguna. Izena emandakoekin bilera egingo dute martitzenean, hilaren 16an, guztia antolatzen; udaltxe zaharrea izango da batzar hori, 19:00etan.

## 72 hektareako zelaia

Degurixa larre tokia da; hau da, animaliek bazkatzeko gune zabalak. 900 metrotik gora dago kokatuta, eta mendi tontorrez inguratuta; besteak beste, alboan ditu Andarto (1.089 metro), Gazteluko haitza (1.027 metro), Aumategi (1.192 metro), Bizkarlatzako arroa (1.095 metro) Arlutz (1.147 metro) eta Aranguren (1.149 metro).

Eskoriatzako eta Aretxabale-tako lurretan dago zelaia, eta, bien arteko mugak zatitzen badu ere, lurra partikularrena da. "Lursailaren 72 hektarea zortziren artean partekatzen den jabetzakoa da. Eta beste bi artzain bakoitza bere lursailaren jabe dira", jakinarazi dute Julen Abasolok eta Gorka Madinabeitiak, toponimia taldeko kideak.

Txabola gehienak harkaitz mutur kontratan daudela erakita diote, "babesagatik eta ze-



Degurixa inguruak Gazteluko haitzetik. JULEN ABASOLO

## Irteeraren egitaraua

### Uztailak 20

- **10:00** Irabango aparkalekutik (Urkulu) abiatu.
- **13:00** Urzabalgo txabolan bazkaria.
- **15:00** Ibilaldia, sei ordu ingurukoa.
- **22:00** Gaua izarrei begira.

### Uztailak 21

- **09:30** AMETekoek gidatutako ibilaldia.
- **14:00** Bazkaria eta itzulera.

Izena emateko epea: hilaren 15a; Loramendin.

laiari ahal den gutxien hartzeagatik", eta inguru berezia dute alboan: ortua, txerritegia, eskorta, txakurtegia eta babesia. "Gaur egun, Degurixan gelditzen diren artzain profesionalak Muxibar eta Arangurengoak dira

(Mitarte Garai); ardiak dauzkaten batzuk ere badaude. Dena den, ardiekin batera bertan bizi, esnea batu, gaztak egiten azkena Muxibarko Joxe Bixente Etxabe izan zen. 2018ko udaberria arte egon zen han".

## Kobazuloen gaineko azalpenak

Ibilbidea, hain zuzen, txaboletan hasiko dute, eta baso eta tontorretatik zelaiari buelta osoa eman. Zapatuan, bazkalostean, izango da hori, eta sei bat ordu hartuko dituzte horretarako, lasai jardun ahal izateko kontu-kontari, toponimia taldeko Abasolo eta Madinabeitia gidari izanda.

Domekan, osteran, Oñatiko AMET espeleologia taldeko kideak izango dituzte lagun, eta zelaia *polje* bat dela jakinaraziko diete, baita horren gaineko argibideak eman ere: "Arroka karstikoko guneetan izaten den sakonune itxi eta luze bat da. 1.500 metro luze, 300 zabal eta 60 sakon omen ditu". Horrekin batera, han dauden kobazuloen gaineko kontuak izango dituzte berbetarako gai; izan ere, Degurixa Orkatzategi eta Kurtzebarri artean 368 daude.

## Egitarau bete-betearekin datoz Portasolgo jaiak 19tik 21era

Patata-tortilla eta paella txapelketak, auzo bazkaria, kontzertuak eta erakustaldiak izango dira, besteak beste

**M.A.** ARETXABAETA

Portasolgo jaiak ez dute hutsik egingo, beste urte batez. Hori gertatzen dihardute hainbat bizilagunek, eta laguntza ere eskatu dute. Dirua biltzeko, pintxoak saltzen eta zozketa txartelak banatzen dabilta azken asteotan; eguenetan, Portasolgo pintxo-pote egunean elkartzen dira, Loramendi kalean.

Eta kontu korrante zenbaki bat zabaldu dute (Caixa) herritarren ekarpenak jasotzeko. Hona hemen: ES-58 2100 6838 4701 0008 6414.

Egitarauari dagokionez, urtero arrakasta duten ekitaldiekin bat egingo dute nobedadeekin. Uztailaren 19an, esaterako, patata-tortilla txapelketa eta dantza urbanoak izango dira; zapatuan, hilaren 20an, zazpigarrenez egingo den 100 metro lasterketa, umeendako jolasak eta auzo bazkaria, baita batukada, DJa eta suzko erruberak ere.

Eta hilaren 21ean, emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa, paella txapelketa eta auzoko nagusienari eta gazteenari omenaldiak daude, besteak beste.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Arropak botata, egunetan jaso barik

Loramendi kalean dagoen edukiontzi zuriaren alboan arropak lurrean botata egon direla salatu du herritar batek. "Egunetan" egon direla, gainera, adierazi du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

Jou Díaz

Starakiua

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAETA



San Pedro txiki jaietan auzoko emakume ezkonduak ezkongabeen aurka jokatzen zuten futbol partidua. ANDONI MOTO

# Garai bateko jaiak berreskuratu gura dituzte auzotarrek

Irailaren 13an, 14an eta 15ean ospatuko dituzte 2001ean azkenengoz egin ziren San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak. "Auzotarren artean ilusioa eta jaiak berreskuratzeko gogoia dagoela" nabarmendu dute jai batzordeko kideek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jai batzordeko kideek, bi auzoetako bizilagunek, Eskoriatzako Udalak, Compostela tabernak, O'Dogherthy garagardotegiak, Ilargi tabernak, Frixi Eraikuntzak enpresak eta Oreka bizikleta dendak elkarlanean antolatuta, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak berreskuratu nahi dituzte.

San Pedro txikiak izenez ezagunak ziren jaiak sanjuanen aurretik egiten ziren lehen, eta 2001ean ospatu ziren azkenengoz. Hala, azkeneko urteotan, jaiak berreskuratzeko asmotan izan dira zenbait auzotar lanean, eta aurten, jaiak egitea erabaki dute, ekintzaz betetako hiru eguneko egitarau zabala antolatuta. Hain zuzen ere, irailaren 13an, 14an eta 15ean ospatuko dituzte.

"Jai batzordeko zenbaiten seme-alabek ez dituzte ezagutu auzoko festak, eta auzotarrei pena ematen zigun horrek. Hori horrela, azken urteetan asko hitz egin dugun gai bat izan da bertakoen artean, eta pausoa ematea erabaki dugu. Diru-bilketa egin dugu horretarako; tabernetan eta auzoko atari guztietan dirua eskatu dugu festak antolatzen laguntzeko... eta jendearen ilusioa eta festak berriz egiteko gogoia ikusi dugu...", adierazi dute San Pe-

**BESTEAK BESTE, EGINDAKO DIRU BILKETAREKIN GAUZATUKO DITUZTE AUZOKO FESTAK**

dro eta Intxaurtxueta auzoetako jai batzordeko kideek.

**Bertakoen ikuskizunak nagusi**

Irailaren 14a, zapatua, izango da egun handia, eta, 16:00etan, zenbait auzotarrek osatutako taldeak emanaldia eskainiko du. Hain zuzen ere, Alegria de la Sierra taldeak. "Zenbait auzotarrek osatutako taldea da, eta lehen, urtero eskaintzen zuten emanaldia festetan, baina Eskoriatzan, urteak daramatzate ikuskizunik eskaini barik. Hala ere, asko mugitzen dira Euskal Herrian zehar, eta beraiek animatu dira kontzertua eskaintzera. Besteak beste, kanta flamenkoak, sevillanak, rumbak, txirigotak eta pasodobleak eskainiko dituzte".

Horrekin batera, auzotarren parte-hartzea azpimarratu gura izan dute jai batzordeko kideek.

Izan ere, Nerea Mata auzotarrak zumba saioa eskainiko du, baita Rafa Carrietek defentsa pertsonal ikastaroa, eta Andoni Motok ere ez du hutsik egingo DJ moduan. Horrekin batera, Oreka bizikleta dendak urtebete beteko du negozioa ireki zuela, eta, auzoko festetara begira, zenbait kirol hitzordu antolatzeaz arduratu da. Besteak beste, bizikleta irteera, trialsin erakustaldia...

**Herri bazkariko txartelak, salgai**

Itsaski-fideua izango da jateko Partxis plazan egingo den irailaren 14ko herri bazkarian, eta txartela erosteko azken eguna irailaren 6a izango da. Hamar eurotan erosi daiteke, Compostela tabernan eta O'Dogherthy garagardotegian. Itsaskirik gabeko fideua nahi duenak ere aukera izango du horretarako, baina txartela erosterakoan adierazi beharko du hori.

**'Partxis' izena ofizialdu**

Intxaurtxueta auzoko plaza Partxis izenez ezaguna da Eskoriatzako herritar guztien artean, baina ez da ofizialki hala deitzen. Hori horrela, bere egunean auzotarrek margotutako plazari Partxis plaza izena jartzeko nahia adierazi dute auzotarrek.

**IRAILAREN 14KO HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI DAUDE COMPOSTELA ETA O'DOGHERTY-N**

## Prestatutako egitaraua egunez egun

**EGUBAKOITZA, 13**

- **18:00** Eibar Ipurua taldearen gimnasia erritmikoko erakustaldia. Oreka plazan.
- **19:00** Txupinazoa. Intxaurtxueta plazan. Honekin batera, bertsoak, bonba japoniarrak... egongo dira.
- **19:00** Pintxo-potea, Erriberabeitiako Sei Gurpil txarangak girotuta.
- **22:00** DJ Moto. Partxis plazan.

**ZAPATUA, 14**

- **09:00** Txistulariak. Partxis plazan.
- **11:00** Haurrentzako jolasak. Partxis plazan.
- **12:00** Triki-poteoa.
- **13:00** Tortilla lehiaketa. Partxis plazan.
- **14:30** Herri bazkaria. Menua: itsaski-fideua. Partxis plazan.
- **16:00** Alegria de la Sierra taldearen emanaldia. Partxis plazan.
- **17:00** Haurrentzako puzgarriak. Intxaurtxueta plazan.
- **19:00** Parrilada. Intxaurtxueta plazan.
- **19:30-21:00** DJ Moto. Intxaurtxueta plazan.
- **22:45** Su artifizialak. San Pedro parkean.
- **23:00-01:30** DJ Moto. Intxaurtxueta plazan.

**DOMEKA, 15**

- **09:00** Bizikleta irteera.
- **12:00** Bizikleten tailer eta zirku-tua. Oreka plazan.
- **13:00** Male dantza taldearen Flamenco fusion saioa. Intxaurtxueta plazan.
- **13:00** Bizikleta zirku-tua. Oreka plazan.
- **16:00** Trialsina. Oreka plazan.
- **17:00** Nerea Mataren eskutik zumba saioa. Partxis plazan.
- **18:00** Eskoriatza Atama Taldekoen defentsa pertsonal saioa. Partxis plazan.

Egitarauan sartu ez dituzten zenbait hitzordu sorpresak izango direla adierazi dute jai batzordeko kideek.

Haatik dantza konpainiako dantzariak *Lau eme* ikuskizuna eskaintzen. HAATIK DANTZA KONPAINIA

## Borroka feministaren pausoak, agertokira

Errekan Gora jaialdiaren barruan, egitarauko bigarren hitzordua izango da gaur, Gorosarri plazan. Hain zuzen ere, Haatik dantza konpainiaren 'Lau eme' ikuskizunaz gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek. Emanaldia 22:30ean hasiko da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Haatik Dantza Konpainiak *Lau eme* izeneko dantza saioa eskainiko du gaur Gorosarri plazan, 22:30ean. Aiert Beobide zuzendariaren gidaritzapean, emakumei emango die ikusgarritasuna eta urteetan zehar haien ahalduntzea lortzeko bidean egin behar izan duten borroka islatuko du agertokian, dantzen bitartez.

Oholtza gainean, Irati Sorondo, Anne Jauregi, Nagore Zabala eta Amaiur Luluaga dantzariak izango dira, eta lau emakume horiek hogeita minutu inguruko lana eskainiko dute. Koreografia landuak prestatu dituzte saiorako, eta, mugimenduari

dagokionez, frustrazioa, errepresioa, amorrua eta halako sententzioak azaleratuko dituzte, eta baita askatasuna, boterea eta indarra ere.

Proiektu honekin, dantzari bakoitzaren izaera islatu nahi dute, eta, mugimenduari emango dioten garrantziaz gain, jantziek ere garrantzia izango dute. Jantzien elementuak erabiliz emakumeen ahalduntzearen narrazioa kontatuko dute.

**Berdintasuna aldarrikatu**

Oraindik ere, matxismoaren arrastoek gizartean dira eta emakumeen lan eta bizi baldintzak kaltetzen dituzte. Hori horrela, berdintasuna aldarrikatuz

borroka egin zuten emakume eta sufragista guztiengatik garrasi egingo dute.

**Maila onarekin hasita**

Hain zuzen, pasa den asteburuan hasi zen Atxorrotx Kultura Elkartek antolatutako Errekan Gora jaialdiaren hamabigarren edizioa. Travelling Brothers talde bizkaitarrak blues doinuekin busti zuen Fernando Eskoriatza plaza, eta umorez betetako kontzertua eskaini zuen. Maila handiko musikariak dira argi utzi zuten, eta, aurtengo Errekan Gora edizioari hasiera ederra emanda, egitarauari jarraituz, dantzek izango dute protagonismoa gaur.

## Musika material bilketa errefuxiatu siriarentzat

Edozein musika material kultura etxera eraman beharko da, handik kanpalekuetara bidaltzeko

**I.B** ESKORIATZA

Mugarik gabeko musikariak GKEk *Instrumentu bankua* izeneko kanpainaren beste edizio bat jarri du martxan, musika tresnak eta musika osagarriak batu eta errefuxiatu siriarren

kanpalekuetara bidaltzeko, eta, horrekin, gerra eta bonba hotsak entzun ordez musika hotsak entzuten laguntzeko.

Hori horrela, Beheko Errota musika eskolak bat egin du egitasmoarekin, eta herritarrak

animatu nahi ditu bertan parte hartzera. Horretarako, eskatzen dute edozein musika material –hala nola musika jostailuak, partiturak, tresnak eta osagarriak– eman nahi duten pertsonen kultura etxera eramateko material hori –08:00etatik 14:00etara bitartean–. Irailaren 2tik aurrera, berriz, musika eskolan bertan ere utzi ahal izango dira. Behin materiala jasota, sailkatu eta bildu egingo dute, kanpalekuetara urte amaiera aldera iritsi dadin.



Udalekuetan, haurrek eskailerak margotu dituzte. MIREN ZUBILLAGA

## Talde jolasak, auzolana eta irteerak izan dituzte udalekuetan

Gatzagako udaleku irekietan 18 haur ari dira ederto pasatzen, eta ekintza piloa egin dituzte aste honetan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Astelehenean hasi zituzten Leintz Gatzagako udaleku irekiak, eta aste osoan zehar hainbat ekintza egin dituzte bertan ari diren 18 haurrek.

Udalekuak hasteko, ezagutza jolasak izan zituzten, eta, behin haurrak eta begiraleak ezagutu ostean, sanferminak ospatzeko tartea hartu zuten. Horrekin batera, hainbat jolas egin dituzte egunotan, herrian zehar, eta auzolanerako tartea ere hartu dute. Izan ere, herritik Gatz Museora bidean dagoen banku baten bueltan, izpilikua

eta erromeroa landatzen aritu dira. Eta, herriari kolorea emateko asmotan, eskailera batzuk margotzen ere aritu dira, besteak beste.

**Hiruerreketan eta Landan**

Herrian soilik ez dira egon, irteerak egiteko ere aprobetxatu dute eta astea. Eguaztenean, esaterako, Hiruerreketara joan ziren, eta bertan, Kode jolasa egin zuten, bi taldetan banatuta. Eguenean, aldiz, Landako urtegi izan ziren egun-pasa. Gaur, berriz, Konkis jolasak izango dituzte, goizean.

## 13:00etan itxiko dute errepidea, Gatzagako auto igoera dela eta

Ezingo da ibilbidean zehar aparkatu, eta komisarioei kasu egiteko eskatu dute antolatzaileek

**I.B** LEINTZ GATZAGA

Gatzagako 21. igoera izango da zapatu honetan. Errepide zaharretik igoko dira autoak ziztu bizian, eta, lasterketa 14:00etan hasiko den arren, 13:00etarako itxi egingo dute bidea Aingeru Guardako biribilgunean. Horrekin batera, Gatzagainen ere itxiko dute errepidea, goitik behera doazentzat. Hala ere, egongo da aukera Arlabandik bueltan pasatzeko.

Hala, Gatzagako igoeraz gozatu nahi duenak denboraz joan beharko du. Izan ere, ezingo da

aparkatu ibilbide osoan. Antolatzaileek adierazi dutenez, toki seguruetan aparkatu beharko da: Eskoriatza edo Gatzaga herrietan bertan, edo gertuago gura dutenek Marin auzoko bidean edo Zarimutzen aparkatzeko aholkatu dute.

Honekin batera, lasterketa egunean egongo diren komisarioei kasu egiteko eskatu nahi die antolakuntzak zaleei, eta errepide alboetan egongo direnei kontuz ibiltzeko, autoen bidea oztopatu gabe, segurtasuna bermatze aldera.



Bisitariak, Lamariano Azpikoa baserrian, Txomin Alberdi baserritarraren azalpenak entzuten. IMANOL BELOKI

# Baserriaren eta kalearen arteko zubia pausoz pauso eraikitzen ari dira

AMA-TXO proiektua bertatik bertara ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan zuen herritar talde batek pasa den asteburuan Antzuolako Lamariano Azpikoa baserrian. Gazta nola egiten den eta artalde bat nola gobernatzen den azaldu zieten

**Maidar Arregi** ANTZUOLA  
*Ongi etorri baserrira!* egitasmoaren barruan, Antzuolako Lamariano Azpikoa baserrian bisita gidatua egin zuten pasa den zapatuan, eta bertan, Euskal Herritik zein Espainiatik –Madrildik– joandako jendeak AMA-TXO artegi eta gaztandegian egiten dutena ikusteko eta bizitzeko aukera izan zuten.

Baserritu munduaren eta hiriarren arteko zubi lanak egiteko asmoz, orain bost urte, 2014. urtean, Enba sindikatuak Gipuzkoako zortzi baserritako ateak zabaltzea erabaki zuen, etxeko ateak zabalduaz, ekoizle eta kontsumitzaileekiko harremana sendotu eta estutu nahian. Hori horrela, harrera ona izaten ari da, eta egitasmoa indarra hartuz doa urtez urte. "Dagoeneko bost urte daramatzagu egitasmoarekin eta 2014an hasi

ginenean zortzi baserrirekin hasi ginen; aurten, seigarren ediziorako, 36 baserrik osatzen dute *Ongi etorri baserrira!* egitasmoa. Gainera, 900 bat lagunek egin dute bisita. Hala, harrera oso ona izan du ekimenak bai baserritarren artean eta baita ere bisitarien artean. Aurrera jarraitzeko prest gaude", azaldu du Gipuzkoako Enba sindikatuko koordinatzaile Xabier Iraolak.

Bailarako bisitaz gainera, kanpotik ere jende askoren bisita izaten dituztela adierazi du Iraolak, eta dakitenaz hara-

**"BARRUALDEKO EUSKALDUNOK EZ DUGU SENTITZEN BASERRIRA BISITA EGITEAREN BEHARRA"**

go asko ikasi dezaketela gaineratu du: "Barrualdeko euskaldunok ez dugu sentitzen bisita egitearen beharra. Adibidez, Oñati, Bergara edo Arrasateko biztanleek leihoa ireki eta berdea eta baserriak ikusten dituzte. Uste dute baserria ezagutzen dutela. Baina uste dut egungo baserria ezagutzeko eta bisita gidatuetan parte hartzeko beharra badutela".

**AMA-TXO ekimena**  
Antzuolako Lamariano Azpikoa baserriko Txomin Alberdi eta Amaia Laskurain dira AMA-TXO proiektuko kideak, eta mota askotariko gaztak egiten dituzte. Hori horrela, dituzten instalazioak eta espazioak erakusten dizkiete bisitariari, *Ongi etorri baserrira!* egitasmoaren baitan. Horrekin batera, etxeko egin-beharrak ere azaltzen dizkiete.



Bisitariak gaztaren gaineko azalpenak jasotzen. I.B.

## Gazta dastaketa bisitariendako

Lamariano Azpikoa baserrikoen bizi proiektua, artaldea eta gaztandegia ezagutu ostean, eta bisitari amaiera emateko, zenbait gazta mota probatzeko astia izan zuten. Amaia Laskurainek eman zizkien xehetasunak.

## Baserrira, barru-barrutik

Txomin Alberdi AMA-TXO ekimeneko baserritarrak eguneroko bizimodua nolakoa den azaldu zien bisitariari *Ongi etorri baserrira!* ekimenaren baitan. "Ditugun askotariko gazta motak, ardiekin egiten dugun lana... gure eguneroko bizimodua nolakoa den azaltzen diet etortzen direnei".

Alberdik aitortu du, baina, bisitarien artean denetarik ezagutzak daudela: "Etortzen direnen artean denetarik dago; batzuek ez dakite ardi bat zer den ere; beste batzuek, aldiz, ulertzen dute baserriko bizimodua eta badakite gaiaren gainean zerbait".

Instalazioak eta azpiegiturak nola funtzionatzen duten ere erakusten diete Lamariano azpikoa baserriko Txomin Alberdi eta Amaia Laskurain baserritarrek. Bisitari, gainera, bukaera borobila ematen diote, gazta dastaketa oparoa eginda.



Txomin Alberdi. I.B.

**Basalora**  
Herriko Plaza 4

**Toñi Flores**  
basalorenaturdenda@gmail.com  
943 543 658  
Herriko Plaza 4  
20577 Antzuola - Gipuzkoa  
*Ende pasatu jarraituz*

**Itzar**

LIBURU DENDA  
ESTANKOAK

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

# ANTZUOLAKO JAIAK 2019



EGITARAUIA ETA  
TXOSNETAKO EGITARAUIA  
•  
ZAPIAREN DISEINUAREN EGILEAK  
•  
KAPITAINAREN SABLEA,  
EMAKUME ESKUETAN  
•  
MUSIKA ESKAINTZA ZABALA  
•  
ENRIKE TXURRUKAREN  
ESTREINALDIA, ANTZUOLAN  
•  
DANTZA IKUSKIZUN UGARAI JAJETAN

XABIER URZELAI



Amets  
indibidual  
batetik  
proiektu  
kolektibo  
batera

**E**elay

*Zein da handia, zein txikia? Denok elkarrekin handiak gara, hor gure indarra, gaur eta etorkizunean.*

# EGITARAUA

## EGUENA 18

### Jaien hasiera

Plazan, 12:30ean.

### Saharako haurrei ongiertoria

Oporrak Bakean programa dela eta, Saharatik etorritako umeei ongiertoria. Txupinazoa botako dute, eta, ondoren, bazkaria egingo dute.

Plazan, 12:30ean hasita.

### Umeen ikuskizuna

Udalekuetako umeen eskutik.

Plazan, 12:30ean hasita.

### Umeen herri bazkaria

Pausokaren eskutik.

Plazan, 12:30ean hasita.

### Kalejira

Alborada txistulari taldearekin, trikitilari eta buruhandiekin.

Herriko kaleetan zehar, 18:00etan.

### Meza eta Salbea

Elizan, 19:00etan.

### Antzuolako zapia jartzea

2018ko eta 2019ko jaien bitartean jaiotako umeei eta herriko bi nagusienei.

Plazan, 19:45ean.

### Dantzak eta ikurrina jasotzea

Ikurrin dantza Oinarin dantza taldearekin. Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea, eta udalbatzaren aurrekua.

Plazan, 20:00etan.

### Kantu afaria

Bentazharreko Mutiko Alaiak taldearekin. Mahaiak eta aulkiak jasoko dira afalostean.

Plazan, 21:30ean.

### Hontzaren jaitziera

Plazan, 00:00etan.



### Gastronomia lehiaketa

Aurtien pasta kozinatu beharko da, nahi den erara.

Kalebarrenen, 11:00etan.

### Kalejira

Bentazharreko Mutiko Alaiak taldearekin.

Plazan, 00:15ean.

## EGUBAKOITZA 19

### Goiz-eresia

Alborada txistulari taldearekin.

Herriko kaleetan zehar, 10:00etan.

### Gastronomia lehiaketa

Aurtengo jaki nagusia: pasta. Nahi den erara egingo da.

Kalebarrenen, 11:00etan.

### Umeen jolas parkea

Patioan, 11:00-13:30.

### Meza nagusia

Elizan, 12:00etan.

### Sari banaketa eta dastaketa

Gastronomia lehiaketako sariak banatu eta pasta dastaketa.

Kalebarrenen, 13:00etan.

### Herri bazkaria

Kalebarrenen, 14:30ean.

### Jolas parkea

Patioan, 16:30-18:30.

### Kuadrilen arteko jokoak

Gesaltza txarangarekin.

Zurrategin, 18:00.

### Pilota partidak

1. partida: Sagastume-Jauregi.

2. partida: Murua-I.Elizegi vs Uribe-Balardi.

3. partida: Elordi-Erostarbe vs Mendizabal-O.Etxebarria.

Pilotalekuan, 19:00etan.

### Obaneuke erromeria

Plazan, 23:00etan.

## ZAPATUA 20

Kanoiak sutzea Plazan, 09:55ean.

### Goiz-eresia

Alborada txistulari taldearekin.

Herriko kaleetan zehar, 10:00etan.



# ANTZUOLA JAIXETAN



ANTZUOLAKO  
UDALA

www.antzuola.eus

www.antzuolakoalardea.com

Ondo  
pasau!

# oerlikon balzers

Ondo pasau  
jaixetan!

Oerlikon Balzers  
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2

20577 Antzuola

Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

**Mahai jolas berriak probatzea**  
Umeentzako eta helduentzako,  
Jolasenea elkartearen eskutik.  
*Plazan, 11:00etan.*

**Kalejira** Bergarako bandarekin.  
*Herriko kaleetan zehar, 11:30etan.*

**Umeendako pailazoak**  
*Plazan, 12:00etan.*

**Bergarako bandaren kontzertua**  
Enrike Txurrukak zuzenduta.  
*Zurrategin, 12:30etan.*

**Goitibeherak**  
*Ondarren, 17:00etan.*

**Antzuolako Alardea**  
*Plazan, 19:00etan.*

**Zezensuzkoa**  
*Plazan, 22:30etan.*

**Joselu Anaiekin erromeria**  
*Plazan, 22:45etan.*

## DOMEKA 21

**Umeen jolas parkea**  
*Patioan, 11:00-13:00.*

**Salda eta txorizoa**

Landatxope erretiratu elkartearen  
eskutik. *12:00etan.*

**Musika saioa**  
Arantza, Pantxo eta Nikarekin,  
rantxerak, korridoak, boleroak,  
cumbia eta euskal abestiak.  
*Plazan, 12:30etan.*

**Herri bazkaria**  
Ez Dot Moztuko Bizarrak  
antolatuta.  
*Plazan, 14:30etan.*

**Kantaldia** *Plazan, 16:00etan.*

**Umeen jolas parkea**  
*Patioan, 16:30-18:30.*

**Festamentua ikuskizuna**  
Tio Teronen Semeak taldearen  
eskutik.  
*Plazan, 18:30etan.*

**Larrain dantza**  
Oinarin dantza taldearekin.  
*Plazan, 20:00etan.*

**Erromeria**  
*Plazan, 20:45-22:00 / 23:00-00:00.*

**Hontzaren igoera**  
*Plazan, 00:00etan.*

**Erromeria**  
*Plazan, 00:15-01:00.*

## Txosnetako egitaraua

**Eguena, 18**

- **19:00** Txosnen irekiera  
Zurrategin.
- **21:00** Huntzaren  
kontzertua
- **02:00** Jokoak,  
Zurrategin.

**Egubakoitza, 19**

- **23:00** Kontzertuak:  
Kobrazulo, Mugi  
Panderoa erromeria eta  
Virgin Mari.

**Zapatua, 20**

- **20:30** Elektrotxaranga  
herriko kaleetan zehar.
- **23:00** Kontzertuak:  
Kilimak, Sustrajah Band  
eta DJ Javi Laz.

**Domeka, 21**

- **07:00** Gosaria
- **07:05** Elektropapo  
txaranga.
- **21:00** Kontzertuak: Ane  
eta Malen eta Txost.

## "Herritarrek gure diseinua janzteak badu ardura apur bat"

JANIRE GARITANO ETA AINHOA ETXEZARRETA

**Jone Olabarria** ANTZUOLA  
Aurtengo jaiak iragartzeko kartela egin dute Janire Garitano eta Ainhoa Etxezarreta gazteek. **Zer islatu nahi izan duzue diseinuan?** Hontza oso garrantzitsua eta berezia da guretzat, argi genuen zapiak bere jaitziera irudikatu behar zuela: hontza zeruan, begiak zabal-zabalik eta su artifizialekin. Txikitatik horrela bizi izan dugu guk jaien hasiera. **Nolakoa izan zen sortze prozesua?** Orri batzuk eta boligrafoa hartu eta probak egin genituen, denetan hontza zela protagonista. Handik aurrera, aplikazio ezberdinekin digitalizatu genuen. **Lehen aldia duzue halako lehiaketa batean parte hartzen?** Parte hartu izan dugu, baina lehen aldia da irabazten duguna. Pozik gaude, baina ardura ere sentitzen dugu; herritarrek gure diseinua eramango dute. Mezua ulertu eta gustatzea espero dugu.



Etxezarreta eta Garitano. J.G. ETA A.E.

**Zergatik aurkeztu zarete batera?** Bakarrik aurkezteak lotsa apur bat ematen zigun. Diseinu ugari egin genituen, eta, baten bat saritua izanez gero, saria bion artean banatuko genuela erabaki genuen, eta hala egin dugu.

# Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizzak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

Ondo pasau jaixak!!!



SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN  
PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkiocinas.com

ONDO PASA  
ANTZUOLAKO  
JAIK!



# Parekidetasunaren alde, beste pauso bat Alardean

Edurne Iturbek beteko du erretiroa hartu duen Jose Angel Arbuluren postua. Hala, lehenengoz, Antzuolako Mairuaren Alardeak emakumezko bat izango du kapitain. Bestelako berrikuntzetan, Mikel Bargiela izango da estandarte eroalea

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

"Nik gogoan dudanetik, emakumeak beti izan du lekua Antzuolako alardean, bai danbor jole, bai txistulari, esaterako. Aurten, baina, lehen aldiz izango du postu garrantzitsuenetako batean aritzeko aukera". Hala mintzo da, hain zuzen, kapitainaren postua hartuko duen lehenengo emakumea, Edurne Iturbe antzuolarra.

Duela hamar urte, eraldaketa prozesua bizi izan zuen Antzuolako Mairuaren Alardeak, "gizartearen balioetara egokitzeko asmotan". Hala, besteak beste, mairuaren eta bere segizioaren irudia duindu egin zen, eta, dis-

kurtsoa leuntzeko, testuko hainbat hitz eta aipamen moldatu egin ziren, bi generoetara egokitu edota hizkuntza eta kultura aniztasuna islatzeko.

Alarde berriak bidea ireki zien emakumei ere, eta postu ezberdinetara heltzeko aukera eman. Integrazioa hurrengo urteetan zehar garatuz joan zen eta 2011n buruzagiaren guardian

**GIZARTEAREN EGUNGO BALIOETARA EGOKITZEKO ASMOZ ABIARAZI ZEN 2009AN ALDAKETA PROZESUA**

edo 2012an kanoi eramaileen artean ere sartu ziren emakumeak. Aurten, pauso bat aurrera eman, eta emakume batek beteko du kapitainaren postua, lehenengo aldiz Alardea egiten denetik.

Bestelako berrikuntzen artean ere, Mikel Bargielak eramango du aurten mairuaren segizioaren estandarte, orain arte Antonio Deograsiasek betetako postua. Proposamena iritsi zitzaionean "pixka bat pentsatu" zuela aitortu du, baina "pozik" dagoela. "Herriak duen ohitura eta tradizio polit bat da, mantendu beharrekoa", azaldu du Bargielak. Ondo pasatzen duelako



Gizon eta emakume fusilariak entseguan. XABIER URZELAI

parte hartzen du, "herriari errotutako bestelako edozein ekin-tzatan bezala".

Esperientzia handia du Alardean, 15 urte baino gehiago daramatza parte hartzen, eta postu ezberdinetatik pasatakoa ere bada: "Danbor jole ibili nintzen urtebete eta gainerako ia guztietan, artillero aritu izan naiz. Aurten, berriz, aldatzea tokatzen da".

**Irunera bisita**

Alardearen iraupenerako gako gizartera moldatzen joatea dela argi dute Alardearen Batzordekoek, eta hala zabaldu zuten pasa den ekainaren 30ean Irunera egindako bisitan ere. "Herri baten kultura-ondarea osatzen duten adierazpen eta ospakizun tradizionalak ez dira estatikoak eta aldaezinak; unean uneko gizonak eta emakumeek parte-



**Antzuolatik Mundura**

[www.erreka.com](http://www.erreka.com)





Finkapen Soluzioak



Plastikoak



Sarbide Automatikoak





**Zabalo Iturgintza S.L.U.**

Ondo ibili jaietan!



- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBArekin bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tallera: Uzarraga bidea 10. Antzuola. / Tel.: 943 78 71 78  
Faxa: 943 76 64 73 / [zabalo@iturgintza.eus](mailto:zabalo@iturgintza.eus)



katzen dituzten balioen arabera bilakatu eta aberastu egiten dira". Bertan izan ziren Antzuolako Alardearen Elkarteko kideak eta udal ordezkariak.

Lander Dominguezek, Mairuren Alardeko buruzagiak, zera azaldu zion GOIENARI: "Irungo errealitatea bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen. Bertakoekin harremana erein dugu eta helburuak beteta etorri gara". Antzuolako Alardea "nola aberastu den eta aldaketa horren natural gertatu izana" txalotu zuten Irungo ordezkariak, eta Antzuolatik prozesuaren nondik norakoak azaldu eta laguntzeko prest agertu ziren: "Azken batean, Irunen ere alarde parekidea izatea denbora kontua dela uste dugu".

#### Entseguetan hasita

Postu berrietan estreinatzeko aukera izan zuten eguaztenezan Iturbek eta Bargielak. Lehen entsegua giro onean egin zuten antzuolarrek, uztailaren 20ko hitzordurako dena prest egon dadin. Datorren astean ere entsegua egingo dute, eguaztenezan, arratsaldeko zazpitan.

## "Antzuolar bezala, ohorea da Alardeko kapitain izatea"

EDURNE ITURBE ANTZUOLAKO ALARDEKO KAPITAIN BERRIA

Gaztetxoaren hasi zen Edurne Iturbe Alardean parte hartzen. Orduetik hona, postu ugari probatu ditu, eta aurten, lehen emakumezko kapitaina izateko "ohorea" izango du.

#### Nola hartu zenuen kapitain izateko proposamena?

Askorik pentsatu gabe eman nuen baiezkua. Alardearen Batzordeak erabakitzen du nori eskaini zein postu, eta, Jose Angel Arbuluk iaz utzitako lekua betetzea proposatu zidatenean, oso pozik hartu nuen.

#### Kapitain izan aurretik, postu ugari probatu dituzu...

Bai, halaxe da. Izan ere, Alardean hasi nintzenean, 13 bat urterekin, danbor jole sartu nintzen. Orduan, Alardearen ostean egiten ziren dantzak, eta, hain zuzen, korrika aldatzen ginen udaletxean, gero dantza egiteko. Ostera ere fusilari aritu naiz.

#### Alarde berrituak eman zizun, hein batean, fusilari aritzeko aukera?

2009az geroztik gertatzen ari diren aldaketetako bat izan zen, baina ez hainbeste emakume izanagatik. Jaurtigairik gabeko eskopetetara aldatu zen, eta, ondorioz, edozeinek hartu zezakeen postu hori; lehen, arma lizentzia zutenek bakarrik. Kapitain izateak badu orain arteko postuek izan ez duten ardura...

Orain arte, taldean ibili izan naiz, denak batera. Kapitaina, baina, Alardeko pertsonai garrantzitsu bat da. Buruzagiarekin batera, hitz egiten duten bakarrak dira, eta, hortaz, testua ikasi eta plaza betearen aurrean esan behar da. Albiste jakin zenetik, gerturatu zaizkizu herritarrak?

Gerturatu zait baten bat, baina ziur nago iaz Landerrri buruzagi



XABIER URZELAI

#### "TRANTSIZIO NATURAL BEZALA ULERTZEN DUT PARTE HARTU ETA POSTU EZBERDINETATIK PASATZEA"

postua hartzean ere gerturatu zitzaizkiola. Ez dut uste denik emakume naizelako; gehiago da postuak berak duen arduragatik. Parekidetasuna lortzeko pauso garrantzitsua da? Bada aurrerapauso bat. Antzuolako Alardean betidanik egon da emakumea, baina inoiz

ez goiko postuetan. Gero eta alarde parekideagoa erakitzen gabiltza.

#### Zer da Alardea, zuretzat?

Antzuolar bezala ohorea da eta barru-barrutik sentitzen dut. Gurean betidanik parte hartu izan dugu Alardean: aita gastadorea izan zen urte askoan eta osaba Alardeko buruzagi izandakoa da. Niretzat, trantsizio natural bat da Alardean parte hartu eta postu ezberdinetatik pasatzea. Jai hau nire izango balitz bezala sentitzen dut eta herritar bezala maite dudana zerbait da.

#### Egun handiari begira, nola zaude?

Orain arte, ez naiz urduri egon. Pixkanaka, banabil testua errepasatzen eta nire kabuz entseatzeko, baina lasai nago. Eguna gerturatu ahala urduritzen joango naizela uste dut; ea zer moduz doazen entseguak.



Gabilondo - Arregi



harategia - urdaitegia



Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

Ondo pasau jaixak!!!



amaia

Kalitatezko produktuak  
Bertako produktuak  
Produktu ekologikoak

Ondo pasau  
Antzuolako jaixetan!



Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



Huntza taldea, Sustrajah Band eta Kobrazulo. HUNTZA, SUSTRAJAH BAND ETA KOBRAZULO



#### Jone Olabarria ANTZUOLA

Eguenean emango diete hasiera Antzuolako jaiak eta dagoeneko prest dute egitaraua. Eskaintzari dagokionez, erromeria talde ugari izango dira aurten: Obaneuke, Mugi Panderoa eta Joselu Anaiak, hain zuzen ere. Txaranga eta elektrotxaranga ere izango dira, jai girorik falta ez dadin.

Jaiek eztanda egin bezain pronto, eguenean, Huntza taldeak eskainiko du kontzertua txosnagunean. 2014an Bilbon sortutako taldea da eta sei gipuzkoar gaztez osatua dago; hala, arrakasta handiko hainbat abesti kaleratu dituzte, hala nola *Al-dapan gora*, *Iñundik iñoare* eta *Buruz behera*. Kontzertua Zurrategin eskainiko dute, 21:00etan hasita.

#### Antzuolarren presentzia

Egubakoitzean, Gesaltza txaranga girotutako kuadrillen jokoan, kontzertu ugari gozatu ahaliko da; batez ere, txosnetan. 23:00etan hasita, Kobrazulo talde antzuolarrek rock doinuz beteko du Zurrategi. Taldeak 2016ko udaberrian ekin zion

bere bidari, eta ordutik hona herriz herri ibili da. Jarraian, Mugi Panderoa erromeria taldearen txanda izango da, eta, bukatzeko, Virgin Mary taldea igoko da taula gainera. Herriko Plazan ere doinu dantzagarriak izango dira; izan ere, Obaneuke erromeria taldearen emanaldia izango da, 23:00etan.

#### Reggaea eta euskal rumba

Zapatu iluntzea girotzen joateko, 20:30ean, elektrotxaranga ibiliko da herriko kaleetan zehar. Ondoren, dagoeneko klasikoa den Joselu Anaien erromeriak beteko du Antzuolako plaza, 22:45ean hasita.

Ordu laurden geroago entzungo dira txosnetan ere lehen kontzertuen doinuak: gaueko hamaiketan, euskal rumba jotzen duen Kilimak taldeak dantzan jarriko ditu Zurrategin bildutakoak. Sustrajah Band-eko lekeitiarren txanda etorriko da gero, reggae doinuak taularatu dituzte haiek. Azkenik, eta ordu txikiak arte, Javi Laz arituko da DJ lanetan, momentuko azken kantuak Antzuolaraino eramanda.

# Musika doinu ugarirekin, eskaintza zabala jaietan

Eguenetik domekara arte, musika eskaintza zabala izango da Antzuolan aurten: Mugi Panderoa erromeria, Joselu Anaiak, Sustrajah Band, Kobrazulo eta DJ Javi Laz. Txarangarekin eta elektrotxarangarekin osatuko dituzte jaietako musika aukerak

**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!

**Ondo pasa jaiak!**

**LARREA  
GOROSTI**

**ONGI  
ETORRI**

**GAILUR  
KOXXOR**

**AITZ GARBI  
MOX**



**EGIN TOPA GUREKIN!**



# Antzuolan egingo du debut ofiziala Txurrukak

Jaietako klasikoetako bat da Bergarako musika bandaren kontzertua, eta aurten ere bertan izango da; berezitasun batekin, gainera: Enrike Txurruka zuzendari berriak gidatuko du, lehen aldiz. Antzuolako kontzerturako "gogotsu" agertu dira bandakoak

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

"Ilusioz" bizi izango du Enrike Txurrukak uztailearen 20ko Bergarako bandaren kontzertua -zapatua da-. Izan ere, Antzuolan arituko da lehenengo aldiz "zuzendari ofizial", Alfredo Gonzalez Chirlaquek erretiroa hartu ostean, eta "ardura puntu bat" ere nabari duela kontatu du.

Bandako kide guztientzat "berezia" izan ohi da Antzuolako kontzertua. "Izan ere, gure eguna bezala hartzen dugu. Kontzertuaren ostean bazkaria egiten dugu eta jai giroan ibiltzen gara", azaldu du zuzendari berriak.

Banda eta Antzuola "estuki lotuta" daude Enrike Txurrukaren bizitzari: "Nire birramona Ondarreko tabernaria zen, eta, ordurako, bazkaltzen ematen zion Bergarako bandari Antzuolako jaietako kontzertuaren ostean". Bandan daramatzen urte guztietan, "Antzuolako kontzertuetan, amaren ahizpak gogoratzen ditut, leihoan, kalejira noiz igaroko zain", aitortu du Txurrukak.

**Antzuolarren doinuak**

Patxi Olabarria antzuolarra ere bandako kide da. Jaietan murgilduta egoteagatik "kontzertu gogorra" izaten dela azaldu du,

baina "gogotsu" egon ohi da; batez ere, kalejiran aritzeko.

Izan ere, "pozgarria da kalean goazenean jendeak txalo egitea; hori ez da herri guztietan gertatzen". Antzuolan "oso ondo" hartzen dituztela dio, eta bertan, ohiko doinuez gain, herriarentzat bereziki sortutakoak jotzen dituztela azaldu du: "Antzuolako doinuak izeneko martxa sortu zuen Gonzalez Chirlaquek duela hamar bat urte. Alardeko doinuak dira, baina beste erritmo batekin. Antzuolako herriari opari bezala eskaini ziren". Doinuok kontzertu ostean jotzen dituzte eta jendeak "izugarri" maite dituela kontatu du Olabarriak.



Enrike Txurruka eta Patxi Olabarria, aste honetako entseguetan. E.T.

**"ANTZUOLAKO KONTZERTU BEREZIA DA, BANDAKO KIDEOK OSO GUSTUKO DUGU"**

ENRIKE TXURRUKA, ZUZENDARIA

**"KALEAN TXALOTU EGITEN GAITUZTE; EZ DA HERRI GUZTIETAN GERTATZEN"**

PATXI OLABARRIA, BANDAKO KIDEA



*Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!*

Ondarre, 9 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 62 45  
garitanosl@gmail.com



# MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



# Jai Zoriontsuak!



Iazko Alardean, dantzetako irudiak. GOIENA

## Dantzarako aukerarik ez da falta izango jaietan

Tio Teronen Semeak taldearen 'Festamentua' ikuskizuna izango da, dantzen artean, berrikuntza aurten. Urteroko tradizioari eutsiz, udalbatzaren aurrekuak, larrain dantzak eta Alardearen ohiko trokeo dantzek ez dute hutsik egingo

**Jone Olabarria** ANTZUOLA

Eguenean bertan egingo dute lehen dantza saioa antzuolarrek. Udalbatzaren aurrekuarekin batera, Oinarin dantza taldeko txikienek ikurrin dantza egingo dute jaiak hasi bezain pronto.

Zapatuan, berriz, egingo dute saiorik luzeena. Alardearekin batera, eta urteroko tradizioari jarraituz. Hain zuzen, Alardeak plaza hartzean, trokeo dantzak eta Antzuolako zortzikoa dantzatuko dituzte Oinarin dantza taldeko kideek. Trokeo dantzak lau piezaz osatuta daudela azaldu du taldeko Ion Lizarazuk, eta bakoitzak bere une zehatza duela: "Alardeak plazatik gora egitean, makil txiki eta arku dantza dantzatzen ditugu. Plaza pasa ostean, beherantz joatean, zinta dantza egiten dugu, eta gero, behin Alardea plazara bueltatu eta eskopetariak bere postuetan jartzen direnean, makila handien dantza egiten dugu".

Bukatzean, abesbatza plazara gerturatuko da, eta, abestutako doinuekin, Antzuolako zortzikoa dantzatuko dute. Duela urte batzuk, baziren mutilek soilik egindako edota neskei zuzendu-

tako dantzak, baina, egun, ez da bereizketarik egiten.

**Denetan herrikoiena**

"Herriar askok parte hartzen duten ekitaldi bat izaten da larrain dantza", azaldu du Lizarazuk. Dantza "nahiko erraza" dela aitortu du, eta ez duela prestaketa handirik eskatzen; hain zuzen ere, faktore hori azpimarratu du hitzordua hain jendetsua izateko gako bezala. Horretaz gain, dantza ikasteko saioak egiten dituztela gaineratu du: "Entsegu irekiak egiten gabiltza; nahi duenak etortzea dauka. Datorren astean egingo dugu azkena, martitzenean, 19:00etan, eta herriarrak etortzera animatu nahiko genituzke".

**'Festamentua' ikuskizuna**

Ohiko dantzez gain, Tio Teronen Semeak taldeak emanaldia eskainiko du domekan, 18:30ean. *Festamentua* pieza eramango dute plazaraino, umorea, dantza eta antzerkia konbinatuz. Hileta baten nondik norakoak dantzatuko dituzte, bizi izatea egokitu zaien egoera gogorrari buelta eman nahian.

**50** urte  
**Goizper Group**  
 Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta teknologia, Goizperren ADN. Ingurune digitalean eta 4.0an garatzen ditugu gure produktu eta zerbitzuak.



Industria



Ihiztadura



Bioteknologia



# Eskolako pedagogia babesteko proposamena

Herri Eskolaren proiektuaren jarraikortasuna bermatzeko proposamena egin du EH Bilduk asteon Legebiltzarrean. Hezkuntza munduan Antzuolako Herri Eskola erreferente bilakatu dela azpimarratu du Rebeka Ubera legebiltzarkideak

## Maidar Arregi ANTZUOLA

EH Bilduk legez besteko proposamena aurkeztu du Legebiltzarrean, Antzuolako Herri Eskolaren proiektuaren jarraikortasuna bermatzeko. Izan ere, Rebeka Uberak hauxe adierazi du: "Hezkuntza munduan eredu eta erreferentzia bilakatu den proiektu hori sortu eta urteetan garatu duen belaunaldia erretiratzear dago eta horrek proiektua bera kolokan jar dezake".

## Hezkuntza Sailari eskaera

EH Bilduko legebiltzarkideak funtsezkotzat jo du irakasleen egonkortasuna ziurtatzea proiektuak aurrera egin dezan, eta,

hortaz, eskari zehatza egin dio Hezkuntza Sailari: "Antzuolako ikastetxean bertan prestatu diren irakasleek aukera izan dezatela ikastetxean geratzeko". Uberak azaldu duenez, "lanpostuak betetzeko sistemaren ondorioz, irakasleak ikastetxetik ikastetxetik ibiltzen dira urtero, eta behin-behinekotasun hori hondamendia da Antzuolako bezalako eskola batentzat, ia ezinezko egiten duelako bertako hezkuntza proiektuari jarraikortasuna ematea, irakasleen aldetik ere etengabeko prestakuntza eskatzen duelako". Antzuolako bezala, proiektu aitzindari eta berritzailea duten ikastetxeetan, edota

errealitate sozial konplexuei aurre egin behar dietenetan, irakasleen egonkortasuna ezinbesteko baldintza dela hezkuntza proiektuak sendotzeko azpimarratu du. "Kasu horietan, jarraikortasun hori bermatzea dagokio Hezkuntza Sailari". Hala, proiektuaren biziraupena bermatzea derrigorrezkoa dela dio Uberak. EH Bilduko legebiltzarkideak gogora ekarri du Hezkuntza Sailak ere erreferentziatzen daukala Antzuolako Herri Eskola eta makina bat eragile, nazioartekoak ere bai, bideratzen dituela bertara, haren metodologia berritzailea eta aitzindaria eza gutzera.

## 100 bat lagun erretiratuen herri bazkarian, domekan

Urtero legez, herriko jai nagusiei hasiera eman aurreko asteburuan, herriko erretiratuek herri bazkaria egingo dute. Hala, uztailearen 14an, eskolako patioan batuko dira 100 erretiratu inguru. 14:15ean emango zaio hasiera bazkariari eta hauxe da aurtengo menua: zizka-mizkak, barazki-menestra, masaila, postrea eta edariak. Bazkalostean,

gainera, dantzaldia egingo dute. "Aurten ere, iaz bezala, bazkaria eta musika izango ditugu. Gainera, bazkarira etorriko den emakumezko eta gizonezko nagusienek omenaldia jasoko dute. Aurten, Magdalena Ortiz eta Angel Garcia dira", azaldu dute Landatxope elkarteak kideek.

Udal ordezkariak ere bertan izango dira, urteko legez.

Gainera, jaietako domekan, uztailearen 21ean, Landatxopek salda eta txorizoa banatuko ditu, 12:30ean, elkartean bertan.


## Lehen osoko bilkura egingo du udalbatza berriak gaur

Joan den ekainaren 15ean, osatuta geratu zen datozen lau urteetarako udalbatza. Hala, bihar, egubakoitza, egingo dute lehen osoko bilkura, eguerdiko hamabietan hasita. Besteak beste, udalbatzaren bilkuren epea finkatuko dute, batzorde informatzaileak eratuko dituzte eta alkatearen dedikazioaren inguruko erabakia hartuko dute.



**672 69 66 30**  
Kalebarren 1 • Antzuola  
helburu@helburu.com

**Ondo pasau jaixetan!**



**Nerea**  
Zorionak antzuolar guztioi!  
Kalebarren 13 ANTZUOLA  
659 57 50 97



**Martín Okindegia**

Lantegia: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!



Ile apaindegia

**Ondo pasatu Antzuolako jaixetan!**

Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

**Laser bidezko depilazioa**  
Informa zaitetz!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA



**HORTZ KLINIKA**  
Ana Sainz Malkorra  
Mediku estomatologoa  
Elkargokide zk.: 20000437

PADI • Odontologia orokorra  
Periodontzia eta inplanteak

**ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!**

Herriko Plaza 4, beheka 20577  
Antzuola Tel.: 943 78 71 69



Eulogio eta Andres Diez, etxean, Frankismoko Armada Ministerioko zerbitzu militarren 1969ko amaiera-agiriarekin. JOKIN BEREZIARTUA

# Espainiako eta mundu gerrak bizi izanda, eta gizarte justuagoa helburu

36ko gerratik ihesi, 1937an Sobietar Batasunera erbesteratu zuten Eulogio Lopez bergararra, egungo EPK-ko militante komunistik beterranoena; 1956an itzuli zen jaioterrira, eta espetxeratu egin zuten. "CIAkoek ere galdekatu zuten aita", dio semeak

## Jokin Bereziartua BERGARA

Euskal Herriko militante komunistik beterranoena da Eulogio Diez (Bergara, 1926), Euskadiko Partidu Komunistako (EPK) kide da-eta oraindik ere. Espoiloiko kiosko ezagunaren aurreko etxe batean jaioa, ekainaren 20an egin zituen 93 urte. "Sasoitsu nago, mundu hobe baten alde borrokatzen jarraitzeko gogotsu".

Ekainaren 13an, epaitegian izan zen, Andres Diez semearekin -EPK-ko diruzaina da gaur egun-, EAJko, EH Bilduko eta Irabaziko zinegotziekin eta Intxorta 1937 elkartearen kideekin batera, frankismoaren aurkako kereila kriminala jartzeko.

**Egungo Errusian, 1937tik 1956ra** Labegarietan bizi da gaur egun Eulogio Diez, Marina Timofeva emaztearekin batera. Etxean bertan hartu du GOIENA, se-

mearekin batera, denetariko oroitzapenak partekatzeko gertu.

36ko gerratik ihesi 1937an Sobietar Batasunera erbesteratu zituzten milaka umeetako bat izan zen Diez -gerrako umeak izenez egin ziren ezagun-. 11 urte eskas zituen, eta ondo gogoratzen du bidaia hura: "Arra-toiekin batera eraman gintuzten itsasontzian, bidaia oso gogorra izan zen. Hori bai, Sobietar Batasunean heroiak izango bagina bezala hartu gintuzten; ez dut harrera hura sekula ahaztuko; zenbat besarkada, zenbat musu, zenbat maitasun keinu...".

**GERRAKO UMEETAKO BAT IZAN ZEN DIEZ: "HEROI GISA HARTU GINTUZTEN SOBIETAR BATASUNEAN"**

## Bilboko Larrinaga espetxean

1956an bueltatu zen Diez Espainia frankistara, eta berehala ezagutu zuen espetxea; bederatzihilabete egin zituen barruan, legez kanpoko propaganda banatzeaz akusatuta. Hain zuzen, Andres Diez semeak lehen oroitzapenak aita espetxera bisitatzera joaten zirenekoak ditu; 1967an itxitako Bilboko Larrinaga espetxe ezagunean izan zuen aita. "Hemen bertan [euren etxean] atxilotu zuten. Ez zuten kargurik aitaren kontra, baina, Sobietar Batasunean armen industrian lan egin zuenez eta komunista zenez, espetxean izan zuten; CIAkoak ere pasatu ziren aita galdekatzera, Sobietar Batasunean zehazki ze lan egiten zuen jakiteko. Garai hartan, edozein aitzakia erabiltzen zen militante deserioak zirenak espetxera bidaltzeko".



Aita-semeak epaitegi aurrean, frankismoaren aurkako kereila aurkezteko. I.B.

## Kereilarekin, "azken epaitegiraino"

Ekainaren 13an aurkeztu zuten frankismoaren aurkako kereila Bergarako epaitegian, biktima modura. Hori bai, ez dute itxaropen handirik kereilak izango duen ibilbideari dagokionez: "Ordezko epaile bat zegoelako onartu zen tramitera, baina atzera botako dute. Hala ere, gu azken epaitegiraino joango gara; Europakora joan behar badugu, joango gara. Balio dezala, gutxienez, herri honetan gertatu zena ez dadin ahaztu; jende gaztea dago Franco zein zen ez dakiena ere, eta hori penagarria da", adierazi du Andres Diezek.

Bestalde, aitek kartzela eta errepresio zuzena bizi izan bazituen ere, semeak ere gogoan du errepresioa; bereziki, Elizarena: "1963an edo 1964an egin beharko nuen jaunartzea, baina ez nuen egin, eta horrek betirako markatu ninduen. Are gehiago, garai hartako Bergaran: herri elizkoia eta jeltzalea zen, oso kontserbadorea".

## Sobietar Batasunaren defentsa

Bere garaian ezagutu zuen Sobietar Batasuna amesten duen mundu idealetik gertuen dagoen sistema dela uste du Eulogio Diezek. "Oso ondo zaindua sentitu nintzen; gezur asko esan izan dira Sobietar Batasunaren gainean; bereziki, Stalinen inguruan. Gero, II. Mundu Gerran gogorra izan zen, baina sobietarrek baino hobeto jaten genuen. Umezaroko oso oroitzapen onak ditut, denetik genuen".

Espainiako gerraostea, baina, "askoz latzagoa" izan zela dio: "Gose itzela pasatu genuen. Sobietar Batasunean, II. Mundu Gerran baja gehien izan zituena izanik, lehenago kendu zen errazionamendua Espainian baino. Adibide bat, gosea nolakoa zen ulertzeko: lagun bat Soralezetik zetorren bizikletan, babaz betetako lapiko batean. Halako batean, lapikoa erori eta babak errep-

**ANDRES DIEZ: "UMEEK EGUNERO JARRAITZEN NINDUTEN JOTZEKO; GOGORRA ZEN ORDUKO BERGARA"**

detik jaten jarri zen; babak errepidean uztea ez zen aukera bat".

Andres Diezek gogoan du Sobietar Batasunean ez zutela sinisten Espainian langabeziatasuna altua, etxeak ordaintzeko 40 urterako hipotekak edota faxismo latza zegoenik: "Ez zuten sinisten, uste zuten propaganda faltsua zela. Izan ere, han lana eta etxea bermatuta zeuden... Baina haietako batzuk Espainiara etorri zirenean ikusi zuten errealitatea norainokoa zen gordina".

## Orduko Bergara, "oso gogorra"

Aitek Sobietar Batasunean umezaro "oso ona" bizi izan zuen moduan, Andres Diezentzat "oso gogorra" izan zen Bergaran bizi izatea garai hartan: "Jaunartzerik egin gabekoa, eskolatik mezara ez zihoana, aita kartzelan zuena, ama errusiarra... Ezberdina nintzen. Umeek egunero jarraitzen ninduten jotzeko, etxeraino. Ez nuen kuadrillarik".

EPK-ko zuzendaritzako kide da gaur egun Andres eta "bentetako komunismoa" ikusten du gizarte justu baterako sistema moduan oraindik ere: "Borrokan jarraituko dugu".

# Afari girotuak gaztetxean, erasoei aurre egiteko

Azken urtean "sei edo zazpi alditan" sartu diren lapurrek "kalte handia" eragin dute kartzela zaharrean eta ateak indartzeko lanen gastuari aurre egiteko ekintzak antolatzen hasi dira: lehena, bertako produktuez osatutako afari girotuak; gaur izango da bigarrena

## Jokin Bereziartua BERGARA

Azken urtebetean "sei edo zazpi alditan" sartu dira lapurrek kartzela zaharrean, eta "kalte material handiak" eragin dituzte. "Kalte ekonomiko handia ekarri digute ateak indartzeko lanek; inbertsio hori egin behar izan dugu, ia derrigorputa, lapurreta gehiago ez jasateko. Kalte handia ekarri dute eraso horiek eta behartuta gaude dirua berreskuratzeko ekintzak antolatzea. Egun, ez dugu dirurik gaztetxearen kontu korrontean", adierazi dute.

## Lehen ekintza, afari girotuak

Kalte horiei aurre egiteko, kartzela zaharrean aritzen diren eragileek erabaki zuten ekintzak antolatzen hastea, "poliki-poliki" dirua batzen joateko. Eta joan den egubakoitzeko afari girotua izan da horretarako propio sortutako lehen ekintza: "Oso harrera ona izan zuen. Lehenengoz antolatzen genuen, eta ez genekien nola irtengo zen; oso pozik geratu ginen,

giro ederra sortu zelako eta 65 bat lagun gerturatu zirelako afaltzera".

## Bertako produktuak parrilan

Bertako produktuak eskaintzeko apustua egin zuten, gainera; txahal eta txerri haragizko hanburgesez gain, hanburgesa begetarianoak ere prestatu zituzten: "Hanburgesak parrilan erre genituen eta mahai baten jarri bestelako osagaiak, nork bere gustuko hanburgesa osatu zezan. Jendeak oso gustura jan zuen, produktua oso ona zen eta".

Bost euroko salneurrian jarri zituzten hanburgesak, etekinak lortzeko margen handirik gabe, baina, tabernarena ere diru sarrera garrantzitsua denez, pozik daude lehen saioarekin.

## LEHEN SAIOAN 65 BAT LAGUN BATU ZIREN AFALTZEKO; GAUR, 75 AFARI PRESTATUKO DITUZTE, GEHIENEZ

"Afariagatik bakarrik ordaindu behar da; hau da, nahi duena afalduta etor liteke eta sarrera ordaindu gabe musikaz eta sortzen den giroaz gozatu", gaineratu dute.

## Beste bat gaur, formula berarekin

Uztailaren 5eko lehen afari girotuan, 19:00etatik 22:00etara, DJ Keep\_a aritu zen girotzeko musika jartzen. Ondoren, afalostean, Añubeko Troba taldeak jo zuen; Soralueko bikoteak abesti latinoamerikarrak eskaini zituen. Gaur, uztailak 12, errepikatu egingo dute: "Formula bera erabiliko dugu, baina, gehienez, 75 lagunendako afaria emango dugu". Osagai musikala DJ Turtukiñaren eta Comando Pikaduraren eskutik etorriko da; 19:00etatik gauerdia arte, gutxi gorabehera.

Uztailean ez dute beste ekintzarik aurreikusita: "Dirua batzeko hurrengo ekintza San Martin jaietan antolatuko dugu, seguruenik".



NIRE USTEZ

DAMIAN MADINABEITIA

## Bai mundu berria

Gatazka modu askotakua izan leike. Erramun Turutarenak esaten zeban bezela: "Gatazkak zizelkatzen gaitu". Eta zizelkatze horretan apurtzen ez baldin baga; garatu, eboluzionatu, aldatu egin geinke. Baina zizelkatzia -gatazka- mingarria da. Zegatik gare pertsonok etenbarian trantze horretatik igarotzeko prest? Adituek dinue gure behar primario bat dala, gure sena. Esplorazio sena deritzon horrek ikastera, haztera, ikertzera... eruaten gaitu. Gatazka barik ez legoke eboluzinorik. Eta gatazkak txunditzen gaitu. Ez dot gatazka bareko historixarik ezagutzen; eta gatazka bareko mundua bera gatazka bat izango litzake, *Bai mundu berria* eleberrixan Aldous Huxleyk erakutsi zeban bezela. Munduak hola dirau aurrera, golpez golpe, gatazkaz gatazka. Askapen, eskubide eta bestelako burrukak be, azken finian, aldatzeko moduak die. Gatazka berdinari batzuk *guda* deitzen dotze eta beste batzuk, *iraultza*. Hainbat giza eskubideren inguruko mobimenduak, Hong Kongeko protestak, *Fridays for Future*, autodeterminazio mobimenduak, bizitza-eredu alternatibak... Golpez golpe, gatazkaz gatazka zizelkatuz.

## OHARRAK

### Azken eguna jaietako jaioberrien argazkirako

2018ko Pentekosteetatik 2019koetara bitartean jaiotako bergararren talde argazkia jasotzeko azken eguna da gaur; interesatuak bergararren arreta zerbitzura jo beharko dute.

### 'Feminismoa denon kontua da' irakurketa

Martxanterek gomendatu dute udako irakurketarako liburua izatea Bell Hooks aktibista afroamerikarraren lana. Irailaren 11n irakurketa foro feminista egingo dute kartzela zaharrean, 18:30etik 20:00etara. Harremanetarako: [marxanterak@gmail.com](mailto:marxanterak@gmail.com).

### '47ak Herrian' ekimenaren gaineko hitzaldia

Aiert Larrarte abokatuak eta Ekain Zubizarreta arrasatearrak, biak ere auziperatuak, hitzaldia eskainiko dute uztailaren 16an Irizar jauregian (19:00). Epaiketa irailaren 16an hasiko da.

### San Joxepe elkartearen argazki lehiaketa

60 urtetik gorakoei zuzenduta, urriaren 1era arte aurkeztu ahalko dira lanak. Epaimahaiak hiru onenak aukeratuko ditu eta laugarren saria herritarrena izango da. 600 euro banatuko dira saritan; sari banaketa ekitaldia urriaren 19an egingo da. Edozein zalantza argitzeko: 943 76 21 40.



Bertako haragiz egindako hanburgesa nork bere gustura osatzeko aukera izan zen uztailaren 5ean kartzela zaharreko terrazan. A.P.

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

# "Ultra probetan buruak lan handia egiten du"

**XABIER URIBESALGO ETA MARIA SANCHEZ MENDI-KORRIKALARIAK**

Ehun Miliak eta G2Handiak mendi lasterketak jokatu dira asteburuan. Uribesalgo eta Sanchez bergararrak irteera puntuan izango dira, mendiaz gozatzeko prest

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA

Uribesalgok Ehun Miliak egingo ditu eta Sanchezek, G2Handiak. Distantzia luzeko probetan alde psikologikoak duen garrantzia nabarmendu dute mendi-korrikalariak -42 kilometroko langa gainditzen dutenak dira ultra-. **Nola hasi zineten distantzia luzeko lasterketak egiten?**

**Maria Sanchez:** Bi aldiz pentsatu gabe hasi nintzen. 2013an, Aloña-ko Igoera egin nuen; eta hurrengo urtean, Hiru Handietarako eman nuen izena.

**Xabier Uribesalgo:** Urte asko noa kirola egiten. Distantzia luzeak gustatzen zaizkit; orain dela 10 urte, lehenengo Ehun Miliak proban egon nintzen eta amaitu egin nuen.

**Gorputzak nola amaitzen du horrelako lasterketa bat?**


**X.U.:** Hiru lagun batera joan ginen eta oso pozik amaitu genuen. Gorputza iristen da izugarriko beheraldiarekin; lehenengoak 24 ordu behar ditu lasterketa amaitzeko, baina gainontzekoek, 35 ordu inguru. Bigarren gaua egitea gogorra da: zerbaite afaldu, lo pixka bat egin... eta Aizkorri igo behar izaten da. Etxetik gertu jokatzen diren karreretan samurragoa da erretiratzea.

**Garrantzitsua izango da osagai psikologikoa.**

**M.S.:** Bai; buruak lan handia egiten du. Behin, Hiru Handiak proban, Orixolen kolpe handia hartu nuen. Aita eta mutil-laguna Landan zeudenez, haraino joan eta han erretiratzea pentsatu nuen. Baina mutila, lagunak, ilobak... denak han ikusteak izugarriko indarra eman zidan eta jarraitu egin nuen.

**X.U.:** Niretzako, %60 burua da eta %40 fisikoa. Burua gogorra eta ilusioa izatea da beharrezkoa.

**M.S.:** Nik pentsatzen nuen: lasterketako 50. kilometroan zer egingo dut? Eta lagun batek esaten zidan: "Zuk jan, jaten



Xabier Uribesalgo eta Maria Sanchez. XABI URZELAI

**"MOTXILAN DERRIGORREZKO MATERIALA ERAMAN BEHAR DA: ZIRA, URA, JANA, BI FRONTAL..."**

zauden bitartean esna zaude eta". Hiru Handietan hori egin nuen, jan, jan... entretenituta egoteko. **X.U.:** Behin, Ehun Miliak egiten, bakarrik nindoan eta bigarren gauean Alacanteko mutil batekin egin nuen topo. Mutilak lo hartzen zuen, eta galdetu zidan: "Xabi, oratu zaitzaketa?". Eta han joan ginen, biok, Otzaurten gora, elkarri oratuta.

**Xabier, zuk 18:00etan hasiko duzu lasterketa, eta 48 ordu izango dituzue amaitzeko.**

**X.U.:** Bai, 48 ordu ditugu amaitzeko. Dauzkagu bi anoa-postu potolo: horietan lo egin, arropak aldatu... egin dezakegu. Anoa-postu handiek dute iristeko eta irteteko ordua. Urte asko noa distantzia luzeko kirola egiten eta badakit noiz nagoen gaizki eta noiz bukatzeko moduan. Erlojuari begira joango naiz, anoa-postuak kontrolatzeko: 100.

kilometroan, Amezetan, ondo baldin banago, hor hasiko da nire lasterketa.

**Maria, zuek 23:00etan irtengo zarete. Prest zaude lasterketarako?** **M.S.:** Bai; fisikoki ondo nago; eta psikologikoki nago pixka bat okerrago, baina badut laguntza atzetik... gogotsu nago. G2Handietarako, nire buruari bukatzeko erronka jarri diot, erlojuari ez diot zorrotz begiratu.

**laz, eguraldi txarragatik bertan behera utzi zuten lasterketa.**

**M.S.:** Bai; Larraitzen nindoan, 18. kilometroan, beste lagun batekin, bertan behera utzi zutenegandik... pena izugarria hartu nuen.

**X.U.:** Barruan zaudenean, erraz onartzen den erabaki bat da; edozer pasa zitekeen. Zorionak eman nahi dizkiet egin zuten ebakuazioagatik.

**Motxila eramaten duzue?**

**M.S.:** Bai; derrigorra da. Dortsala hartzerakoan motxila erakutsi behar da, eta hor izan behar dituzu derrigorrezko materialak: zira, manta termikoa, bi frontal, pilak, txistua, praka piratak... eta litro bat ur eta jana.

## Aireko eta zoruko akrobaziak oinarri dituen ikuskizuna

Rojo Telon taldeak 'Haiek naiz' akrobazia ikuskizuna eskainiko du eguaztenean, San Martin plazan

**A.E. BERGARA**

Edurne Rodriguez Muro idazlearen *Mujeres al rojo vivo* liburua oinarri duen ikuskizuna da *Haiek naiz*. Rojo Telon taldeak akrobaziak eroango ditu San Martin plazara. Ana Clara, Mainer Yobar eta Begoña Peñaranda dira antzezleak. Bidaia emozional intimo eta aldi berean dibertigarria proposatuko dute; hiru emakumek topo egingo dute bidean, eta elkarrekin aurrera egitea erabakiko dute. Aireko elementuak eta zoruko akrobaziak erabiliko dituzte

kontakizunean. Zirkuari, poesiari eta antzerkiari keinu hizkuntza erantsiko diete.

*Haiek naiz* ikuskizuna hilaren 17an izango da, eguaztena, 20:00etan, San Martin plazan - eguraldi txarra bada, Seminarioko karpan-. 50 minutu iraungo du, eta adin guztiei zuzenduta dago.

Aire libreko zinemari dago-kionez, martitzenean, *Oin handiren semea* eskainiko dute Espoioan, 19:00etan. Marrazki bizidunak dira, eta 87 minutu irauten du filmak.



OIHANA ELORZA

## Hasi dituzte kiroldegiko lanak

Labegarrietako kiroldegia eta ingurua berritzea da 2019ko udal aurrekontuaren proiektu aipagarrienetako bat. Hala, ekainean hasi zituzten obrak eta dagoeneko kiroldegia ondo eraikina bota dute. Kiroldegi barruko lan esanguratsuenak 2020an hasiko dituzte, eta horiek eragin handiagoa izango dute erabiltzaileendako.

### Santa Marina egunez Aritzetak emanaldia eskainiko du

Aritzeta abesbatzak kontzertua eskainiko du Santa Marina egunean, eguenean. Emanaldia Santa Marina parrokiaren izango da, meza nagusiaren ostean, 19:45ean. Imanol Urzelai zuzendariaren eskutik hainbat abesti eskainiko dituzte: besteak beste, Aita Donostiaren *Jeiki Jeiki-Chorittuak nurat hua* eta *Aran Lore* kantuak.

### Bi bergararren lanak 'Naturari, irribarria' argazki erakusketan

Uztailaren 12tik 28ra bitartean egongo da ikusgai, Bergarako Aroztegi aretoan *Naturari, irribarria* erakusketa. Guillermo Azkarate osintxuarraren eta Agustin Amasorrainen lanak egongo dira ikusgai. Lehenengoak naturari egiten dizkio argazkiak, iluntasuna eta argitasuna aitzakia hartuta; bigarrenak erretratuak ditu gustuko.





**Eta zu...**

**Ausartzen al zara?**

**UZTAILAREN 12AN OSTIRALEAN**

**CITY JUMP** -en 16:30etik aurrera

**IREKITZE HANDIA**

LEHEN **150**  
PERTSONENTZAT  
**ORDU**  
**ERDI**  
**DOAN**

Eta gainontze-koentzat  
**2X1**  
1 ordu erosita

CINES  
GORBEIA  
ZINEMAK



**CITY JUMP**

**BIG KARTING**



Padel&Spa  
GORBEIA

**KIDS CITY**



CrossFit  
GORBEIA



**GORBEIA** 

www.gorbeia.com



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. ANER FERNANDEZ

## Bederatzi batzorde, eta bilkurak bi hilean behin

Informazio batzorde iraunkor gehienak hileroko hirugarren astean egingo dituzte, eta guztiak egongo dira EH Bilduko zinegotzien kargu. Alkatearen lansariari dagokionez, Iraitz Lazkanok 35.224 euroko soldata gordina jasoko du agintaldi honetan

### Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzenean egin zuen agintaldiko lehen osoko bilkura. Hurrengo lau urteetako funtzionamendua zehazteko bilkura izan zen. Agintaldi berrian, udalbatza bi hilean behin elkartuko da, eta informazio batzorde iraunkorrak bederatzi izango dira. Jaien batzordea beharra dagoenean deituko dutela esan du Lazkanok.

EAJko ordezkarien ustez, batzorde gehiegi dira. "Ez dut oraindik ezagutzen zein eduki egongo den, baina Hondarribia moduko herri bat kudeatzen bada lau batzorderekin, Elgeta kudea daiteke batzorde gutxiagorekin, gure iritziz", adierazi zuen Aintzane Oiarbidek.

Lazkanoren erantzuna izan zen batzordeen kopuruak ez duela loturarik zinegotziei lan gutxiago edo gehiago ematearekin. "Gure helburua da erabakiak herritarrekin batera hartzea eta nahi duguna da gaiak ahalik eta zehaztenak izatea".

Batzorde iraunkorrak egiteko egunen inguruko informazioa ere eskatu zuen Oiarbidek. Esan zuen ez dutela garaiz jaso eta eskatu zuen aurrerantzean errespetatzeko informazio guztia gutxienez ohiko osoko bilkura egin baino 48 orduko aurrerapenarekin bidaltzeko betebeharra. Baietz erantzun zion Lazkanok. Esan zuen jaiak izan direla-eta tarte txikia izan dutela oraingoa.

### Udal ordezkarien ordainsariak

Bi talde politiko izango dira Elgetan agintaldi berrian; EH Bilduk Iraitz Lazkanok izango du bozeramaile eta EAJk, Aintzane Oiarbide.

Talde politiko bakoitzak 20 euroko ordainketa finkoa jasoko du hilero, eta, horrekin batera, 15 euro hilean zinegotziko. Zinegotzien dietei dagokionez, parte hartu izandako udalbatza bakoitzeko 25 euro jasoko ditu hautetsi bakoitzak, eta batzordeburu direnek beste 35 euro hileko. Alkatea salbuespena da kasu honetan. Ez du osoko bilkuretan parte hartzeagatik dietarik jasoko, ez eta batzordeburu izateagatik ere.

Alkatearen lansariari dagokionez, 35.224 euroko soldata

gordina izango du Lazkanok agintaldi berrian. Aurreko agintaldi hasieran onartutakoa 25.827 eurokoa izan zen.

Ordainsarien atala aho batez onartu zuen udalbatzak.

### Kanpoko erakundeetan

Elgetako Udalak kanpoko erakundeetan izango dituen ordezkariak ere izendatu zituen udalbatzak martitzenean. Guztiak izango dira EH Bilduko kideak. Bideberri mankomunitatea izango da salbuespena. Garbiñe Irazabal, Ane Bilbao, eta Iraitz Lazkanok proposatu zituen EH Bilduk, baina Aintzane Oiarbidek adierazi zuen sartuko lukeela EAJko ordezkari bat. EH Bildu ados agertu zen. Ondorengo egunetan adostuko dituzte izendapen horiek.

## Bederatzi batzorde iraunkor

- Memoria Historikoa eta Turismoa: Iraitz Lazkanok.
- Ingurumena: Ibai Larrañaga.
- Kultura eta Euskara: Ane Bilbao.
- Hezkuntza eta Gazteria: Ibai Etxaniz.
- Kirolak: Ibai Etxaniz.
- Baserritarrak: Sebastian Arantzabal.
- Ongizatea eta Berdintasuna: Garbiñe Irazabal.
- Obrak, Zerbitzuak eta Hirigintza: Iraitz Lazkanok.
- Ogasuna eta Pertsonala: Iraitz Lazkanok.
- Jaiak: Iraitz Lazkanok –beharra dagoenean deituko dute–.

## GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

### Eskolako ganbarako horma-irudia, gertu



Udalekuetako neska-mutikoei margotuta, amaituta dago Izar Han Xue Irazabalek eskolako ganbaran egindako horma-irudia. Bi horma zati hartzen ditu. Lan ederra egin dute denek batera!

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

### 36ko gerrako bi obusen kontrolpeko leherketa, Karabietan

Ingurua aztertzen diharduen Aranzadiko boluntario talde batek eman zuen abisua martitzen iluntzean. Desaktibazioan espezialistak diren Ertzaintzako agenteak bertaratu, eta kontrolpeko leherketak egitea erabaki zuten. Elgeta eta Eibar lotzen dituen errepidea ordubete inguru egon zen itxita. Artilleriako bi obus zirela adierazi du Intxorta 1937ko Jon Etxezarragak; 100 milimetrokoa bata eta 155 milimetrokoa bestea. Gehiago ere agertuko direla uste du. "Oso zaila da bakarrik eztanda egitea. Gehienetan, sakonera handian daude eta detektatutako antzematen dira. Agertzen direnean, abisua pasatzen da".

### Domekan mendi irteera egingo dute Biriatu aldera

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, Xoldokogain eta Mandale igoko dituzte Biriaturtik abiatuta. Lau edo lau ordu eta erdiko ibilaldia izango da. "Irteera nahiko erraza da, eta goitik aukera izango dugu Lapurdiko kostalde eta Bidasoa arroko mendiak ikusteko", adierazi dute. Taldea 08:00etan irteno da Elgetatik, autoetan.

### Elgetak eman du izena Euskaraldiaren bigarren ekitaldirako

#### Goiena komunitatea

Elgetako Euskaraldia / ELGETA

Dozena bat lagun elkartu ginen martitzenean Elgetako Euskaraldia batzordea berresteko. Horrekin batera, erabaki dugu 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egitekoa den Euskaraldiaren bigarren ekitaldian izena ematea. Luzeagoa izango da bigarren Euskaraldia, eta *ahobizi* eta *belarriprest* figurekin batera *ariguneak* bultzatu beharko ditugu. Hau da, euskaraz lasai jarduteko guneak.

Etorriko dira izen-emateak, bilera deialdiak, txapen banaketa... eta elgetarrek zabalik aurkituko dituzte Elgetako Euskaraldia batzordeko ateak!

## OHARRAK

### Podologoa

Erretiratuendako kontsulta hilaren 18an izango da. Txanda hartzeko, deitu 943 76 80 77 telefonora (Nati). Ez da kontsultarik izango abuztuan.

### Jaietako lehiaketa

Jose Antonio Ojangurenek irabazi du jaietako argazki lehiaketa. Argazki saritua ikusgai dago [Elgeta.eus](http://Elgeta.eus) atarian.

# "Oñatiarren artean oso onartua sentitu naiz"

**JOXAN LARRAÑAGA OÑATIKO PARROKOA**

Hamaika urtez Oñatiko parroko izan ostean, "pena handiz" baina osasun arazoak direla-eta kargua utziko du; Horazio Argarate Arrasateko parrokoak ordezkaturako du

**Amaia Zabala Tolosa OÑATI**

Joxan Larrañaga, Oñatiko parrokoa, Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan da eta urte hauetako guztietako esperientziez eta hemendik aurrerako asmoez mintzatu da; oñatiarrei zuzendutako "esker on" hitzak izan ditu nagusi.

**Zein izan da kargua uztearen arrazoia?**

Pena handiarekin, baina osasun arazoak direla-eta nik neronek eskatu nuen aldatzea eta ardura nagusirik ez izatea; hain zuzen, parrokoa baten ardura utzi eta bigarren mailara pasatzea.

**Pairatzen duzun parkinson gaixotasuna izan da arrazoia, ezta?**

Gaixotasunak, fisikoki eragiteaz gain, psikikoki ere eragiten dizu, lan egiteko gogoan, ilusioan... Azken batean, moteldu egiten zaitu, eta ikusten nuen ez nindoala ondo, ez nintzela lehengoa. Nire ahuldadea ikusten nuen.

**Zein izango da hurrengo zure egin-beharra?**

Oraindik ez dago erabakita, nik proposatu dezaket eta ondoren gozainak onartu edo zuzenean berak ere proposa dezake. Hori bai, kargu txikiago bat izango da, laguntzaile edo. Baina ez nuke bakarrik bizi nahi, baizik konfiantza dudana apaiz lagun batekin. Askok diote ea zergatik ez naizen Oñatin bertan geldituko apaiz laguntzaile, baina nik askatasun osoa eman nahi izan diot apaiz berriari, Horazio Argarateri, bere meza eta parrokoa eramateko estiloan. Baita ekintzei bere tokea emateko estiloa izan dezan ere.

**Aldaketarako eguna zehaztu duzue?**

Bai, San Miguel eguna proposatu dugu aldaketarako. Aurrez bilerak egingo ditugu aurkezteko. Gainera, egon naiz berarekin dagoeneko telefonoz eta iruditu zait oso gustura etorriko dela. **11 urte beteko dituzu Oñatiko parroko, 2008ko irailean hasi baitzinen. Garai hartan, zer moduz hartu**



Joxan Larrañaga, Oñatiko parrokoa. GOIENA

## "IRAILA, SAN MIGUEL EGUNA, PROPOSATU DUGU PARROKO ALDAKETA EGITEKO HORAZIOK ETA BLOK"

**zintuen herriak eta hamaika urte hauetan zelan zaindu zaitu?**

Oso ondo hartua sentitzen naiz, eta horretaz gehiago konturatzen naiz orain, hamaika urte pasa ondoren. Hasiera batean, jendeak ez ninduen ezagutzen, nahiz eta lehen egunean eman nuen ezagutzeko aukera. Izan ere, sermoia sakristian ahaztu zitzaidan, eta esan nien bertaratuei: "Hemendik aurrera ezagutuko nauzue, zeinen despistatua naizen...". Kar, kar, kar... Esango nuke oso ondo egon naizen herria izan dela eta babestua eta lagundua sentitu naizela beti. Izango dira nire aurkakoak ere, dudarik gabe, baina ni oso gustura ibili naiz Oñatin. Esan behar dut, baita ere, Oñati oso eskuzabala izan dela Elizakook eskatu dugun guztiarekin.

**Zein dira Oñatiko parrokoaren ardurak?**

Parrokia bat kristau elkarte da eta kristauok garenak bertan elkartzen gara, eta ez soilik meza nagusian. Beraz, hiru esparru nagusi dauzka parroko baten eginkizunak: batetik, liturgia. Hor, mezarekin lotutako eginkizunak sartzen dira –abesbatza, kantuen eta jantzien aukeraketa eta abestien letren proiektzioa–. Bestetik, ebanjelizazioa. Mezu kristaua elizatik gizarteratzeaz arduratzen den esparrua. Eta azkenik, elkartasunaren esparrua. Bertan sartzen dira misio taldeak, Caritas, gaixo dauden herritarrei bisitan joateko taldeak, eta abar. Parrokoa horren guztiorren gidaritzaz eta antolaketaz arduratzen da.

**Ze oroitzapenekin geratzen zara zu Oñatiri lotuta?**

Oso oroitzapen onekin; nik uste dut, gainera, Oñatiko parrokiako taldeek oso ondo funtzionatzen dutela. Baina, bestela, ni oso onartua sentitu naiz, eta ez soilik elizan lehen lerroan dabiltzanekin, baita herriko beste hainbat kuadrillarekin ere.

**Azkenik, ze aholku emango zenikioke Horazio Argarateri?**

Herriak bera maitatzen utz dezala, eta ez jartzeko barrerarik.

## Igeriketa ikastaroetan izena emateko aukera uztailean

Kiroldegiko obrak abuztuan hasi arren, igerilekuak eta gimnasioa irekita egongo dira, Gabonak arte

**Amaia Zabala Tolosa OÑATI**

Zubikoa kiroldegiko igeriketa ikastaroetan eta ur ekintzetan 2019-20 ikasturterako izen emateko epea uztailearen 15etik 19ra eta irailaren 11tik 14ra izango da aurtengo udan.

Izena emateko bi aukera daude, kiroldegiko harreragunean edo online, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunearen bitartez.

Ikastaro eta ekintza guztiak urriaren 11n hasiko dira eta abenduaren 22a izango da azken eguna. Igeriketa ikastaroak dagokienez, 4 eta 8 urte bitarteko

haurrei zuzenduak dira eta hiru maila ezberdin bereziko dira: dortoka, amuarraina eta balea. Hainbat ordutegi daude aukeran.

Ekintzei dagokienez, berriz, helduei zuzendutako igeriketa hastapen-hobekuntza ikastaroa, *aquagym* eta *aquatrainig* daude aukeran.

Izan ere, Zubikoa kiroldegia kanpoko instalazioetako obrekin udan, abuztuan, hasiko diren arren, barruko instalazioei –igerilekuei eta gimnasioari– ez diete eragingo eta zabalik izango dira Gabonak arte.

## Kubatar doinuak Havana 537 taldearen eskutik

Havana 537 taldeak folk kubatarra joko du uztailearen 17an 19:00etan San Lorentzoko ermitaren aurrean. Alean programaren barruan antolatutako emanaldia da. Havana 537 taldea Bilbon kokatzen da, baina hura osatzen duten sei lagunak herrialde askotarikoak dira: Kubakoak, Kolonbiakoak eta Santutxukoak, hain zuzen.



Havana 537 taldea. HAVANA 537



**NIRE USTEZ**

**JOSU ZUBIA**

## Nahi izatea da!

Azkenaldian, txikiari garrantzi handia ematen zaio. Transmisioan, adibidez: herritik mundura! Eta hala bedi. Formula hau gai askotan errepikatzen da: hezkuntzan, ekologian... Eta, gainera, ilusioa egiten digu halako kontuetan aitzindariak izateak. Baina badirudi formula horrek ez duela denerako balio; kulturarako, esaterako.

Gure herrian sinisten dute Udaletik ezin dela ezer egin sortzaileon, kulturagileon... lana balioan jartzeko. Egoera orokortu bat denez, "ezer gutxi egin dezake Udalak horren aurrean" –hemen kostatzen da aitzindari izatea–. Eta zein da, ba, Udaleko Kultur Departamentuaren bokazioa? Sortzen ez dena ez dago, garatzen ez dena galdu egiten da. Zer lortu nahi da Oñatin kulturarekin? Zein baldintzarekin? Zein da jarraitu beharreko plana?

Gu, prekarietatearen banderaz, baina buru-belarri ari gara lanean. Orain, beste batzuei dagokie euren bokazioaren erantzule izatea... Kulturari dagokion lekua ematea –eta uztea–.



Gaztelekuko hainbat erabiltzaile, hezitzaileak eta Gazteriako udal teknikaria. A.D.



Lehenengo urteetan sotoan egiten ziren dantzaldietako bat. GAZTELEKUA



2002an, handitze lanak bukatutakoan egindako inaugurazioa. KONTEJUPETIK

# 25 urte bete ditu gaztelekuak

Herri erdian, garai batean berdura azoka izandako eraikinean dago Oñatiko gaztelekuak. 25 urte bete ditu aurten, eta, sorreran proiektuarekiko mesfidantzak egon ziren arren, bere tokia eta zerbitzua eskaintzen du gaur egun herrian

## Oihana Elortza OÑATI

1994an zabaldu zuten gaztelekuak Oñatin, duela 25 urte. Ez zen inaugurazio edo festa propiorik egin irekierako, ekitaldiak antolatuta ahala hasi ziren espazio hori erabiltzen.

## Abenduan

Musikarekin estreinatu zuten gaztelekuak. Ekainetik abendura bitartean, hiru kontzertu egin ziren: Parafun eta Eat Meat taldeek jo zuten Diputazioaren eskutik eta Bizz produkzioak antolatuta, berriz, No Means No eta Boogie Brothers entzuteko emanaldiak egin ziren.

Bitarte hartan, irailean, San Migel egunean, jaien barruan, Oñatiko Hor Konpon taldeak jo zuten Kataluniako Ubi Sunt taldearekin batera, gaueko hamabietan. Su Ta Gar, Negu Gorriak eta Kojon Prieto Y Los Huajolotes taldeen kontzertuetako bideo emanaldiak ere eskaini zituzten.

Esperientzia haiek oinarri hartuta, azaroaren amaierarako indigenismoari buruzko zikloa antolatuta zuten herriko Banoia eta Komite Internazionalista taldeek eta abenduan, bi egunez, euskal liburu eta disko azoka Laixanek, gaztelekuak atearab zabaldua.

## Txatxilipurdirekin hasi

Kataluniako proiektu bat hartu zuten eredu orduko agintariak gaztelekuak egiteko. Patxi Hipolito donostiarra izan zen proiektua Oñatin txertatzeko ardura izan zuen teknikaria. Espazio horren potentzialitate guztia hasieratik ez zela ikusiko esan zuen berak, eta poliki-poliki gorpuzten joango zela, gazteek protagonismoa hartuz. Proiektuarekiko "eszeptizismo jarrerak" sumatu bazituen ere, gazteen gaineko impresio ona hartu zuela aitortu zuen Hipolitok.

Eguneko funtzionamendurako deialdi publikoa egin zuen Udalak, animazio soziokulturaleko

enpresa bat bilatzeko, baina ez zen inor aurkeztu. Herriko batzuei zuzenean eskaini zitzairen, baina, azkenean, Txatxilipurdira jo zuten. Gabonetan, Topalekua izeneko txokoa estreinatu zuten, eta eskujoko tailerra egin. Arantxa Mugarza eta Xabi Lara izan ziren, Txatxilipurdirekin, gaztelekuko lehen begiraleak.

## Gazteria batzordea sortu

1995ean, Gazteria batzordea sortzea erabaki zuen Udalak. Ordura arte, Kirolak eta Gazteria batzordea zegoen. Jose Antonio Urteaga zen batzordeburua. "Nirekin batera Herri Batasuneko Karmelo Arregi zinegotzia zegoen batzordean. Gu biok, Patxi Hipolito eta herriko hainbat gazte batzen ginen proposamenak entzuteko eta erabakiak hartzeko. Karmeloren eta bion arteko harremana oso ona zen, ondo konpontzen ginen, eta uste dut gazteekin izandako harremanetan hori nabari zela; eurekin ere harreman ona, na-

turala, genuen. Esango nuke nahiko malguak izan ginela gazteek egindako proposamenean, aparteko arau zorrotzik ez genuela jarri".

Urteagak gogoan du Azkoitiko udal ordezkari batzuk ere izan zirela Oñatin gaztelekuaren proiektua gertutik ezagutzeko. "Alderdi ezberdinetakoak izanda ondo moldatzen ginela ikusita, harritu egin ziren", dio. Eta gaineratu: "Uste dut asmatu genuela. Egun, gaztetxea ere badago herrian eta uste dut osagarriak direla espazio biak".

Azkoitikoak ez ezik, Bartzelonakoak ere etorri ziren. "Kataluniakoa zen ereduak, baina Bartzelonan, adibidez, 100 edo 200 metro koadro zuten gazteendako zerbitzua eskaintzen zuten lokalek. Eta Oñatikoa ikusi zutenean, herri erdi-erdian eta horrenbeste metro... aho zabalik gelditu ziren. Eraikin horretan azoka egiten zen lehen, berdura azoka. Gero, egon zen saiakera bat bestelako postu egonkorrak jartzeko. Baina ez zuen emaitza onik izan, ez zen aurrera ateratu. Eta orduan pentsatu genuen gazteendako espazioa horixe izatea. Hautakundeetako programan sartu genuen gaia aurrekontuetan sartu genuen, momentua iritsi

**BATXILERGO MAILARA ARTEKO UME ETA GAZTEEK ERABILTZEN DUTE, HIRU GUNETAN BANATUTA**



## Ibilbidearen liburua eta omenaldia

Gaztelekuaren ibilbidea jasotzen duen liburua ari dira prestatzen. Iñigo Biain dabil liburua egiten eta bi zati bereizi izango dituela aurreratu du. "Zati batean, sorreraren historia jasoko da, eta baita aurrekariak ere; Oñatz kultura elkarte eta gaztetxe zaharra, adibidez. Bigarren zatian, gaztelekuaren egin diren ekintza guztien zerrenda egongo da, ahal den guztietan karteletan eta emanaldietan ateratako argazkiekin". Irailean aterako dute liburua.

Gaztelekuari lotuta agertzen da beti Patxi Hipolitoren izena, eta hari omenaldia egitea ere badago pentsatuta, baina zehazteke dute oraindik aurtan edo 2020an izango den; orduan, hamar urte beteko dira hil zela.

zenezan", dio Anjel Iturbek, orduko alkateak.

### Handitu eta eraberritu

Kepa Aranburuk bilera bat baino gehiago egin zituen Hipolitorenkin, Urteagarekin eta Arregirekin. "Patxi Hipolitok hausnarketa zabaldu gura zuen, gaztelekuaren erabileraren inguruan, eta bilera irekiak antolatu zituzten. Lehenengoak eraikin zaharrean egin genituen. Baina gero, obrak egin behar zituztela eta, Kale Barrian, as-



Gazte batzuk mahai-futbolaren ondoan. A.D.



EraBatera taldearen *matinee* kontzertua, urtarrilean. I.S.

paldi Bake Epaitegia egondako lokalean, egun fruta denda dagoen lekuan, gaztelekuko zerbitzu batzuk egokitu zituzten eta han ere elkartu ginela gogoratzen dut. Adin ezberdinetako gazteak biltzen ginen eta denok ez genuen berdin pentsatzen, iritzi ezberdinak zeuden gure artean ere. Gaztelekuaren zer egin Udalak esan beharrean, herritik erabakitzea zen, nolabait, bilera haietan proposatzen eta eztabaidatzen zena, ahalik eta eskumen handiena ematea gazteei. Patxi Hipolitoren laguntzarekin lantzen genuen gure proposamena eta gero, udal ordezkariak helarazten genien. Nik neuk, esaterako, esperientzia polita daukat. Film labur bat egiteko ideia sortu zen bilera haietan, eta gaztelekua toki aproposa zen horretarako. Lan asko egin zen film hori egiteko. *2057 Odissea bat kanposantuan* izan zen emaitza".

Zerbitzua handitu eta eraberritu beharra ikusi zuten urte

## JOAN DEN URTEAN, HAMAZAZPI IKUSKIZUN ANTOLATU ZITUZTEN; 6.842 LAGUN JOAN ZIREN

gutxira. Proiektu berria bideratzeko, herriko arkitektoei luzatu zieten gaia eta lehiaketa bidez epaimahaiak Ana Diaz de Monasterioguren eta Lierri Altubek elkarlanean egindakoa aukeratu zuten. Obrak egin bitartean, informatika gela eta informazio bulegoa Kale Barrian egon ziren. Gaztelekuaren eraberrituak bi solairu zituen, hiru gela gehiago, argazki laborategia eta hitzaldiak eta erakusketak egiteko espazioa ere bai. Baita taberna ere. 2002an inauguratu zuten gaztelekuaren eraberritua. Joana Olabarriak eta Arantxa Mugarzak osatutako enpresari eman zioten suspertze zerbitzua.

### Kalean

Patxi Hipolitoren izena gaztelekuarekin dago lotuta hasieratik. Espazioaren erabilera gazteekin batera egitea gura zuen berak. Udalak antolatzen duen udako programazioa jasotzen duen Kalean egitasmoa ere berak jarri zuen martxan, gazteleku barruan egin beharrean kultur ekitaldian kalean egiteko egitasmoa.

Joan den urtean hamazazpi ikuskizun antolatu ziren guztira gaztelekuaren eta asistentzia 6.842 pertsonakoa izan zen.

## "Erreferentziatzko gunea da, egun, gaztelekua"

JON LOPEZ GAZTERIAKO UDAL TEKNIKARIA

2012an hasi zen Jon Lopez gaztelekuaren lanean udal teknikari moduan, eta dio garaiak aldatu ahala egokitu dela gaztelekua.

### Ze bilakaera izan du gaztelekuak sorreratik?

2012an hasi nintzen ni hemen lanean. Uste dut Patxi Hipolitok autogestioan oinarritutako proiektua zuela buruan, baina ni sartu nintzenean hemen, beste gauza bat aurkitu nuen. Urte hartan, Gipuzkoa osoan gaztelekuak udaleko zerbitzu moduan zeuden zabalik. Garaiak aldatu ahala, errealitatera aldatu beharra dago. Udalekuak Eltzian egiten ziren, baina beste bilakaera bat izan du toki hark, eta hona ekarri zuten. Orain, uztailean, ohiko jarduna partekatzen dugu udalekuarekin -651 ume aurtan-. Etorकिन harrera zerbitzua ere, Txispistin, hemen dago txertatuta. Gazte Bulegoak jarraitzen du eta sexu aholkularitza zerbitzua jarri da, oso errotuta dagoena gazteengan. Sukaldea, kamerinoa... eta

beste gune batzuk ere antolatu dira.

### Zein ezaugarri ditu? Zer du oinarrian gaztelekuak?

Ez da lokal bat non hezitzaileak baloi bat ematen dien umeei jolasteko edo jolasak banatzen dituzten. Proiektu batzuekin eta helburu batzuekin egiten dugu lan. Hiru ardatz ditugu: berdintasuna, aniztasuna eta euskara. Zorionez, Oñatin euskarak ez du beste herri batzuetan adina lan ematen. Buru-belarriago gabiltza integrazioarekin, edozein bazterketa motarekin, izan *bullying*-a izan etorkinena, esaterako. Sexologia aholkularitza zerbitzuekin, berdintasunarekin eta hezkuntza



GOIENA

### "GAZTEENDAKO EKINTZAK EZ EZIK, KULTURA ETA GIZARTE EKITALDIAK ERE EGITEN DIRA"

formalarekin ere badihardugu.

### Kultur kutsua eta soziala ere badu eta adin ezberdinetako herritarrek erabiltzen duten espazio irekia ere bada.

Bai. Hau ez da Gipuzkoan dauden beste gaztelekuak bezalakoa. Hemen, kontzertuak egiten dira, antzerkiak, tailerrak... Gizarte kutsu bat ere badu. Herriko edozein eragilek antolatu eta egin ahal ditu hemen ekitaldiak: izan daiteke irazan, bertso eskola, trikiti taldea... Eta bilerak egiteko ere erabiltzen dute espazio hau herriko eragileek. Polibalentea da espazioa eta aukera handiak ditu. 370 lagunendako edukiera du kontzertu batean eta eskualde mailan ere bada erreferentzia antzokia. Baita herrian ere. Hemengo musika ekipoa jairik jai edo ekitaldi ezberdinetan erabiltzen da.

### Zenbat gazte pasatzen dira urtean?

2018an, adibidez, 53.365 erabiltzaile izan zituen. Ohiko jardunean, teknikariak gain, bi hezitzaile daude topalekuan, bi kuboan eta beste bat Txipistinen eta teknikaria. Asteburuan beste bi sartzen dira erreleboak emateko. Horiez gain daude proiektu hezitzaileen ardurak duten dinamizatzaileak.

### Propio da wifi gabeko gunea?

Bai, apropos dugu wifi seinalea moztuta. Askotan, informazio bulego ondoan ere egoten ziren hemengo wifia hartuta, jolasean egon beharrean.

### Zein proiektu dituzue orain?

DBH-4koekin proiektu luzeak lantzen ditugu; urtean egindako lanarekin Lisboara joan dira aurtan. DBH-2koekin zuzendutako Inspira Team egitasmoarekin ere jarraitzeko asmoa dugu. Eta, era berean, prest dugu Erasmus + egitasmoan Europako beste herrialde batekin elkartrukea egiteko proiektua ere.

# Kantoikrit jendetsuena eta ibilbide berriarekin

**TXIRRINDULARITZA** Kantoikrit lasterketak 61 ziklista batuko ditu zapatuan (22:00), horietako hiru emakumezkoak. Hala, iazko lasterketarekin alderatuta hirukoiztu egingo da parte-hartze kopurua: "Lehenengo itzuliek mamia izango dute"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Oñatin egiten duten piñoi finkodun gaueko Kantoikrit lasterketak sekulako gorakada izango du aurtengo edizioan. Zapatuan, 22:00etan hasita, 61 lagun batuko dira irteera puntuan: "Inoiz ez dugu halako parte-hartze kopururik izan. Eta hori zen, neurri batean, antolaketataldetik bilatzen genuena. Aurtengo helburuetako bat bazen ziklista gehiagok gure lasterketaren berri izatea, eta Kantoikrit gehiago promozionatzeko ahalegina egin dugu, bereziki, sare sozialetan, eta badirudi ahalegin horrek emaitza izan duela", dio antolaketataaldeko Xabi Barrenak.

Lasterketan Euskal Herriko ziklistak egotearekin batera, Estatuko bazter guztietako txirrindulariak etorriko dira, eta baita frantziarrak ere: "Frantziatik hamar datoz, guztira, eta euretako batzuek oso maila ona dute. Sare sozialetan jarraitu ditugu, eta Berlinen, Herbehereetan... lehiatzen ibili dira. Bestalde, Estatutik ere jende asko dator. Azken urteotan, lasterketa kopuruan beherakada izan da; orain, Valentziako eta Oñatiko lasterketak bakarrik daude, eta lehen, zazpi-zortzi egoten ziren. Esaterako, Gijongoa zen urte gehien zituena, eta orain, gravel modalitateko lasterketa egiten dute; moda kontua izango da. Imajinatzen dut lasterketa gutxiago egoteak ere zerikusia izan duela gure gorakadan".

**Junquera anaiak, faborito**

Ez da lehenengo aldia mugaz beste aldeko ziklistak datozena. 2014an, Timothe Ceresa izan zen onena, eta Stefan Schott izan zen bigarren. Ordutik, Kataluniatik eta, batez ere, Gijondik etorritako ziklistak izan dira protagonista, etxeko zenbait ziklistarekin batera. Hala, 2016az geroztik, Junquera anaiak po-



Txirrindulariak, iazko lasterketaren irteera uanean. IMANOL SORIANO

## PROBAN EGONGO DIREN HIRU NESKAK GIJONDIK, BARTZELONATIK ETA FRANTZIATIK DATOZ

### Aldaketak ibilbidean

Lasterketak 27 kilometro izango ditu eta ziklistek 15 itzuli eman beharko dizkiote zirkuituari: "Aldaketa batzuk egin behar izan ditugu, Atzeko kale inguruan etxebizitza bat egiten dabilzalako eta garabi bat dagoelako kalean. Eta Portu taberna inguruan ere hoditeria aldatzen dabilza eta zuloak daude. Bada, orain, zirkuituak tramu azkar bat izango du, baina orain arte ez genituen bi bihurgune zail samar izango ditu; teknikoagoa dela esango nuke", dio Barrenak.

diumaren bueltan egon izan dira, eta zapatuan ere borroka horretan egoteko asmoz etorriko dira. 2016an, Luis Junquera bigarren izan zen, 2017an hark irabazi zuen, eta iaz podiumeko lehenengo bi postuak bete zituzten anaia horiek: Mario Junquerak irabazi zuen eta Luis Junquera sailkatu zen: "Ikusteko dago Frantziatik etorriko diren ziklisten artean ze lan egiten duten".

**Lasterketa, 'streaming'-ez**

Antolaketa taldetik ahalegina egingo dute aurten lasterketa streaming-*ez* eskaintzeko: "Iaz, kamera bakarra izan genuen, baina, ikusgarritasunean eta bizitasunean irabazteko, lasterketa sei kamera bitartez jasoko dugu eta streaming bidez eskainiko dugu. Youtubeko plataforman emitituko dugu, baina, azken ordura arte, ez dugu bertako loturarik izango. Gure sare sozialetan emango dugu horren berri".

Lasterketan, beste sari batzuekin batera, lehenengoak 400 euro poltsikoratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenarendako 100 euro egongo dira.



Ziklistak, Antzuolako sariako lehen metroetan, 2017an. I.S.

## Antzuolako saria domekan, Lehendakari bosgarrena

**TXIRRINDULARITZA** Deskarga birritan igo eta gero, Asentzioko maldek egingo dute azken aukeraketa

**X.U** ARRASATE

Domekan 09:30ean hasiko dute amateur mailako txirrindulariek Antzuolako sariaren 74. edizioa –Iñaki Lete memoriale–. Lehendakari txapelketako bosgarren lasterketa izango da –beste hiru geratzen dira, Elgoibarren, Oñatin eta Zaldibian–, eta ziklistek 120 kilometro izango dituzte aurretik.

**Asentzion azken aukeraketa**

Ibilbideari dagokionez, lehenengo kilometroak Zubillagara joan-etorrian egingo dituzte, eta ondoren, birritan igo beharko

dute Deskarga Antzuolatik, itzulia Udantatik eta Oñatitik egin eta gero. Eta tropeleko indartsuenean arteko aukeraketa Asentzioko maldek egingo dute, 100 kilometroan. Ikusteko dago indartsuenean talde hori zenbat ziklistak osatuko duten, garai-pena esprintean jokatzeko.

Iaz, sei laguneko esprintarekin gozatu ahal izan zuten antzuolarrak, eta Iñigo Elozegi izan zen azkarrena. Xabier Murgiondo oñatiarrak ere protagonismoa izan zuen lasterketan: ihes egin da ibili eta gero, bederatzigarren sailkatu zen helmugan.



RFEF

## Europakoan zazpigarren postua

**ZIKLISMOA** Garazi Estebez Gante-n (Belgika) egin duten Europako 23 urtez azpiko pista estaliko txapelketan izan da –argazkian, De la Fuente, Estevez, Garau eta Amondarain–. Aretxabaletakoak junior mailako laukotea osatu du; jazarpen proban zazpigarren postuan amaitu dute txapelketa, sailkapen txandan egindako denbora oso antzerakoarekin: 4.54.736.



Zapatuan herri parean batuko dira zale asko, urtero moduan, pilotuak animatzeko asmoz. IMANOL SORIANO

# Gatzagako bihurguneak 44 piloturen zain daude

**AUTOMOBILISMOA** Zapatuan, 14:00etan hasita, egingo dute Euskadiko Mendiko Sariko bosgarren proba puntuagarria, Gatzagara Igoera. Igoera motza denez, lau txanda egingo dituzte, Kuartuenako txaletetan hasita

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Badira bost urte antolatzaileek Arlabango mendatea baztertu eta Gatzagara Igoera errekupe-ratu zutenetik. Eta joan den asteko GOIENA papereko azalean bistaratu zen motiboa, mendatea egoera negargarrian dagoela, alegia: "Hor ezin da lasterketarik egin, eta pena da, pilotu gehienoi Arlabango mendatea Gatzagakoa baino gehiago gustatzen zaigulako. Oso igoera ezberdinak dira, Arlaban, esaterako, azkarra eta tekniko da. Ikusle askok, berriz, gurago dute Gatzagako igoera, hura da garai batean egiten zen lasterketa, klasikoa, eta egia da beste xarma bat daukala", dio lasterketa auto barrutik –Renault Clio– biziko duen Gorka Idigoras antolatzaile taldeko kideak.

**Lau txanda egingo dituzte**

Ibilbide laburra du Gatzagako Auto Igoerak, ez da bost kilometrotara iristen –4.800 metro–, eta antolatzaileek hiru txanda beha-

rean lau egingo dituzte, 14:00etan hasita. Iaz, monoplazetan, Aitor Zabaleta izan zen piloturik azkarrena (2.19.460) eta turismoetan Bruno Schererren Porsche GT autoak geratu zuen kronoa azkarren (2.36.928). Xabi Fernandez arrasatearra ere aurreko postuetako saltsan sartu zen, Seat Leon autoarekin Schererrek baino segundo eta erdi gehiago eginda bigarren postuan amaitu zuen eta.

Aipatzekoa da Mendiko Sariaren barruan uztailean egingo dituzten bi lasterketak Debagoienean izango direla, Gatzagakoaren ondoren etorriko da-eta Udanako Igoera. Uztailearen 27an egingo dute Oñatiko lasterketa eta ondoren etorriko dira Sollubeko, Jaizkibelgo eta Urrakiko lasterketak.

**PARTE-HARTZE ZERRENDATIK HERENA BAINO GEHIAGO BAILARAKO PILOTUEK OSATZEN DUTE**

## Debagoieneko pilotuak

Parte-hartze zerrendatik hamasei pilotu bailarakoak dira:

- Itsaso Errasti, Eskoriatza
- Unai Jurado, Eskoriatza
- Maialen Yarza, Arrasate
- Ekaitz Egurrola, Arrasate
- Mikel Oartzabal, Esko.
- Joseba Frutos, Esko.
- Gorka Urrutia, Eskoriatza
- Monika Muñoz, Oñati
- Aitor Frutos, Eskoriatza
- Emilio Rodriguez, Esko.
- Gorka Idigoras, Esko.
- Iñigo Errasti, Bergara
- Mikel F. Arroiabe, Esko.
- Eneko Uribe, Aramaio
- Lucas Cruz, Aretxabaleta
- Aitor Zabaleta, Bergara

## Aldapa behera jaisten trebeenak batuko dira Antzuolan bihar

**TXIRRINDULARITZA** Gipuzkoan egiten den lasterketa bakarra da Antzuolakoa; 80 pilotu izango dira proban

**X.U. ARRASATE**

Euskadiko Openerako puntuagarria den DH lasterketa egingo dute zapatuan Antzuolan –entrenamenduak goizean, lasterketa 15:00etan hasita–. Eta bertan, 80 pilotu batuko dira, bizikleta ikusgarriekin: "Antzuolan egingo dugun hirugarren edizioa izango da, eta, egia esan, modalitate ikusgarria da", adierazi du aste barruan Manu Castrok Arrasate Irratian.



Pilotua maldan behera, iaz. I.S.

**Antigua auzotik gora**

Zirkuitua prestatuta dute antzuolarrek, Antigua auzotik gora egiten duen bidetik iristen da bertara, Irimo auzora doan bidetik: "Eta helmuga, berriz, trenbide zaharrean dago".

DH jaitsieretan aurrean ibiltzeko zer behar den galdetuta, Castrok garbi du erantzuna: "Kirol modalitate honetan inda-

rra behar da, topera joaten garelako denbora guztian. Eta ibilbidea ondo ezagutu behar da, non dauden harriak, sustriak, saltoak... Trazaketa oso garbi izan behar da. Pilotuak proba baino lehenago joaten gara zirkuitua ezagutzera".

**GATZAGARA XXII. AUTO IGOERA**  
ESKORIATZA

UZTAILAK 13 2019

Hasiera 14:00  
Lau txanda

HYUNDAI Oarso Car

**Etxe-Lan**

AKETA, TRANSPORTES URRISTILLA, BEREIKER, AMG autoak, JON, goiena, TOLU, ASSISTENCIA CARTER, AIPAL, FERREIRA SL, POLIMENTOS, ZARRA, ANEL, THERM, BASTER, ramel, GARAJE BARRO, ZARRA, TRAPIE AUTOOK, GARAJE BARRO, GARAJE BARRO



Bost udaletako ordezkari bana izan zen, eguaztenean, Jokin Zaitegi aretoan, aurtengo *Biblioporrak* gida aurkezten. IMANOL BELOKI

## 25 urte herritarrei gomendioak eskaintzen

Informazio bonbardaketa handia dago aro honetan, eta zaila egiten da zer irakurri, entzun edo ikustea. Horretarako, 'Biblioporrak' gida atera dute zazpi udaletako bibliotekak elkarlanean. Aurten, 25 urte bete ditu egitasmoak, eta berrikuntzekin dator

**Imanol Beloki** DEBAGOIENA

Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eskoriatzako, Legazpiko eta Oñatiko udal liburutegiek, elkarlanean, *Biblioporrak* gida aurkeztu zuten eguaztenean, Arrasateko Jokin Zaitegi aretoan. Hain zuzen ere, bost ordezkari izan ziren bertan, eta, besteak beste, *Biblioporrak* gidaren bilakaera, dituen ezaugarri eta berrikun-

tzak eta liburutegiak ez daudela geldi azaltzea izan zen aurkezpenaren funtsa. Nola ez, helburu nagusia irakurzaletasuna sustatzea da.

Aurten, 25 urte bete ditu *Biblioporrak* gidak, eta biblioteken gomendio ugari eskaintzen dituen liburuxkak zenbait liburu, film eta musika batzen ditu. Irakurtzen hasi berri diren haurrentzat, 6 urtetik gora-

koentzat, 9 urtetik gorakoentzat, gazteentzat eta helduentzat banatuta, proposamen ugari eskaintzen ditu. Arantzazu Ibarrodo Oñatiko Udal Liburutegiko arduradunak hauxe adierazi du: "Herritarrei liburu, disko eta pelikula onak gomendatzen saiatzen gara. Kalitatea bermatzeko, aukeraketak egiterakoan, talde-lanean denon adostasuna lortu behar da, eta

### eLiburutegia plataforma

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua da. Internet bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Hala, *Biblioporrak* gidan agertzen den edukia plataforman aurkitu daiteke. eLiburutegia-k urteko lehen sei hilekoan 30.000 liburu baino gehiago mailegatu ditu; John Andueza, Maria Dueñas, Harkaitz Cano eta Jon Arretxerenak izan dira erabiltzaileek gehien eskatu dituzten egileak.

eta uste dugu gustukoa izango dela herritarrendako".

### Helburua, irakurzaletasuna

Irakurleari informazioa, orientazioa eta aukera zabala eskaintzea da *Biblioporrak* gidaren helburua. Honela adierazi zuen, aurkezpenean, Asun Agiriano Arrasateko haur bibliotekariak: "Urtero liburu berriak sartzen ditugu gidan, baina, azken 25 urteetako gidak aztertu, eta horietatik ere hainbat berreskuratu ditugu. Nolabait, hainbeste libururen artean, onenak edo literaturaren historian mantendu direnak edo irakurtzeko aproposenak direnak aukeratu ditugu. Honekin batera, azpimarratu gura nuke urtean bi gida izaten ditugula, orain atera duguna eta neguan ateratzen dugun neguko gida".

### Berrikuntza, ikus-entzunezkoa

25 urte hauek ospatzeko, eta Internet bidez jende gehiagorengana hurbiltzeko asmoz, ikus-entzunezkoa ere egin dute edizio honetan. Honen berri Legazpiko bibliotekako arduradun Jasone Erostarbek eman du: "25 urte lanean ari garela esateko eta jende gehiagorengana heltzeko bideo bat ekoitzi dugu. Liburu formatuaz gain, online ere ari gara zabaltzen edukia, eta ezinbestekoa da hori. Hala, gidan dauden liburuak beste gailu batzuetan ere erabili daitezke".

### IRAKURLEARI INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA ESKAINTZEKO HELBURUA DUEN GIDA

gure lan prozedura hobetzen joan da 25 urte hauetan. Ikasiaz joan gara, liburuak irakurri, aukeratu, beste batzuk baztertu... aurrelan handia dago atetik, produktu interesgarri bat plazaratzeko. Gidaren garapena handia izan da urte hauetan, irakurri nahi denaren aukeraketa errazteko asmoz. Liburu zerrenda soil batetik hasi ginen, liburuaren azaleko argazkia ezarri genuen, eta, gaur egun, gomendioak ezarri ditzakegu. Hori horrela, uste dut emaitza oso ona dela".

Urte hauetan guztietan gidaren diseinuan izan dituzten aldaketak ere izan zituzten hizpide. "Beti mantendu dugu paperezko euskarria, baina aurten, liburuxka sendoagoa atera dugu. Aurten, esfortzua egin dugu 25 urteak ospatzeko,

## ELKARRIZKETTAP

### GOIENA TELEBISTA

**IÑIGO ASTIZ KULTUR KAZETARIA ETA POETA,**

ANGEL ERROK ELKARRIZKETATUTA

UZTAILAREN 12AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**MANU ETXEZORTU IRRATI ESATARIA,**

IDOIA TORREGARAIAK ELKARRIZKETATUTA

UZTAILAREN 17AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# "Nire ametsa konpainia profesionala izatea da"

**EDU MURUAMENDIARAZ** AUKERAN DANTZA KONPAINIAKO ZUZENDARIA

Maurizia pandero-jolearen bizipenetan oinarrituta, emakumeei omenaldia egiten die Aukeran-ek gaur Zaldibar frontoian 20:00etan estreinatuko duen ikuskizunean

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE 2016an estreinatu zuten aretoetan *Maurizia* ikuskizuna eta arrakastaz eskaini dute toki askotan; kalean eskaintzeko hainbat moldaketa egin dizkio eta gaur, egubakoitza, estreinatuko dute *Maurizia naz*.

**Pandero-jole ezaguna sinbolo moduan hartuta sortu zenuten *Maurizia*; bide beretik dator berria?**

Euskal kulturako ikono bat da Maurizia, lehengo emakume pandero-jolea, eta hori oinarri hartuta istorio bat kontatu genuen; nolabait esanda, emakumeei omenaldi txiki bat da. Oinarrian, kontakizuna bera da.

**Zer eta nola kontaktatzen duzue?**

Mauriziaren ezaugarriak eta bizipenak kontaktatzen ditugu dantzaren bidez, eta garrantzi handia dauka panderoak. Istoria hobeto ulertzeko, *off-eko ahots* batek pasarte batzuk kontaktatzen ditu, baina dantzariak eta musikak dute pisu handiena.

**Ezberdintasun handiak daude aretoetako eta kaleko ikuskizunean?**

Bai; gauza ezberdinak dira. Gaia izan ezik, beste dena aldatzen da: jantziak, argiak, publikoa... Sortzen den giroa ere ezberdina izaten da. Kalekoa alaiagoa dela esango nuke eta aretokoa, lasaiagoa. Zati tristeak kendu egin dizkiogu. 55 minutu irauten du.



Edu Muruamendiaraz. IMANOL SORIANO

**Dantzatze orduan, kalean zailagoa da, traba gehiago daudelako?**

Estimulu gehiago daude, bai, zarata, publikoa etortzen eta joaten... baina, azken finean, dantzariak dena moldatzen dira, eta batzuek, esaterako, lasaiago dantzatzen dute kalean. **20 urteak gaudituta ditu konpainiak; ze diagnostiko egiten diozu?**

Ba, pentsa, 20 urte mundu honetan... asko da! 1997an hasi ginen, eta, orain dela bi urte urteurrena ospatu genuenean, atzera begiratu eta harrituta geratu ginen zenbat gauza egin genituen

ikusita. Gauza asko egin eta lortu ditugu, mundu honetan gorabehera asko dauden arren.

**Gustura zaude?**

Bai; norik esango zidan orain dela urte batzuk dantzatzen jarraituko genuela. Lan asko dago atzetik eta bidea luzea da, baina oso pozik nago, bai, nahiz eta oraindik ere gauza gehiago lortzea den gure gogoia.

**Zer, adibidez?**

Orokorrean, jendearentzako dantzak beste ikuspegi bat izatea gurako nuke; hau da, gustatuko litzaidake gauza normal moduan ikustea dantzaria izatea; eta, bestetik, laguntza gehiago behar dugu. Nire amets handiena konpainia hau profesional bihurtzea da; hau da, kide guztiek dantzatik bizitzea lortzea.

**Zelan duzue agenda?**

Hiru ikuskizunekin ari gara: *Maurizia*, *Aukeran 20 urte* eta orain dela gutxi estreinatu dugun *Biz Hitza*, eta nahiko beteta dugu horiek; hileroko hiruzpalau saio.

**Enkargu bereziak ere badituzue.**

Hala da; uztailearen 25ean, Crystal Fighters taldeak Bermeon egingo duen kontzertuan dantzatuko dugu; eta irailean, Madrileran joango gara hilabete baterako, Teatro de La Zarzuelan eskainiko duten *El Caserío* ikuskizunean parte hartzera.

## Madrilgo Cosmosoul taldea protagonista gaur, Berumugan

Udalak Gaztelupeko Hotsak-ekin elkarlanean antolatzen du; 22:00etan, Espoloian eta doan dira kontzertuak

**A. Aranburuzabala** BERGARA

Jatorri eta kultura ezberdinetatik datozen bost musikaririk osatzen dute Cosmosoul taldea: portugaldarra, baina jatorriz Ginea-Bissaukoa da Alana Sinkéy abeslaria; Argentinakoa, berriz,

Abel Calzetta gitarra-jolea; Bilboko, Arturo Garcia bateria-jolea; Manuel Pablo Sainz madrildarra da, baxu-jolea; eta italiarra, Sergio Salvi teklatu-jolea. Hori horrela, zabala eta mugarik bakoa da egiten duten

musikaren eta eskaintzen dituzten emanaldien ezaugarria. "Soulairen, funkaren, *world music* delakoaren, poparen, jazzaren eta fadoaren arteko nahasketa bitxia eskainiko dute gaurko emanaldian. Talde interesgarria da hori ere, merezi du Espoloraino hurbiltzea", azaldu du Gaztelupeko Hotsak diskoetxe Ubane Uzinek.

2011n sortu zuten taldea, eta harrezkero hiru lan dituzte: *Sunrise* (2011), *Terra* (2014) eta *Walk* (2017).

## Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko uztaileko sariak!**

**SPC Heaven 10.1 tableta**  
Parte hartzeko sariaren izena: **EROSKI** ARRASATE



**Sarrerak**  
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz **ARRIKUTZ** GAZTELPEKO HOTSAK



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea [www.bermeonadantza.org](http://www.bermeonadantza.org)  
Ezkerreko irudiak: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**

**Posta elektronikoz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indusaren dogan (LFP 151000) legearen arabera, jakingarria dugu zure datu pertsonalik Goiena Komunikazio (haztearen indusaren enpresa) baten kontrola dela. Zure datuak ez dira helburu bakarreko indusaren dogan aztergarri gisa erabiliko. Eskubidea eragoz gabe daturatu, erabiltzeko, aldatzeko, erabiltzeko, helburu pertsonalik: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua


**LASA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA, Jotetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaituz 2019ko uztailetik aurrera: **31€**  
Deitu: **943 25 05 05** • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Barrenkalen bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berrituta, berokuntzarekin eta jantzia. 649 56 34 92

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan, abuztutik aurrera. Erdigunean. Jantzia. Telefonoa: 647 08 36 30

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Ama-alabak gara eta etxebizitza edo logela bat behar dugu errentan. 611 07 91 50

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 612 53 77 14 edo 612 55 69 52

## 105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan erdigunean. 631 15 19 94

**Etxebizitza Bilbon.** 2019/2020 ikasturtean, Bilbon ikasle-etxebizitza

osatu nuke. Telefonoa: 606 11 44 83

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arrasate.** Altamirazpin garaje itxia salgai. 17 metro koadro dauka eta ate automatiko. 670 29 60 12 edo 697 41 66 24

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Umeak zaindu Bergaran.** Bergaran, irailetik aurrera, umeak eskolara eramanez, eguerdian bazkaria eman eta etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Nahiago dugu, euskaraz dakien pertsona izatea. Epe luzerako, 4-5 urte, egun erdiko kontratua eskaintzen dugu. Telefonoa: 635 20 79 76

## 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Osasun teknikari, lehen sorospen eta Alzheimer

gaixoak zaintzeko formazioa duen mutila zaintza lanetarako gertu. 688 89 96 46 (Fernando)

**Arrasate.** Orduka garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 634 07 99 70

**Debagoiena.** Astean zehar nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke, orduka. 631 67 53 36

**Debagoiena.** Asteburutan eta arratsaldetan orduka lana egingo nuke. Nagusiak zaintzen edo beste edozein lan egiteko gertu nago. 631 40 36 31

**Debagoiena.** Emakume boliviarrak pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 617 80 53 43 edo 602 32 06 58

**Debagoiena.** Emakumea astean zehar lan egiteko gertu. Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan. 632 87 92 34

**Debagoiena.** Emakumea gertu egun erdiz edo orduka lan egiteko. Telefonoa: 632 53 28 51

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska gertu, ahal bada goizetan edo gauean, garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 631 95 04 42

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska nagusiak

zaintzen, etxeak garbitzen eta abarreak lan egiteko gertu. 602 01 32 58

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska orduka zein etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Baita tabernako zerbitzari moduan lan egiteko ere. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Garbiketara eta zaintza lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan. 602 09 32 44

**Debagoiena.** Garbiketara, sukaldari edo harategiko laguntzaile lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edota baserriko lanak egiteko prest. 678147273 (Javier)

**Debagoiena.** Garbiketarako gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Baita gauetan edota oporretako ordezkapenak egiten ere. Legezko agiriak eta sozio-sanitario ikasketak dauzkat. 682 31 97 37

**Debagoiena.** Garbiketarako egiten, nagusiak zaintzen

edota sukaldeko lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 632 84 49 63

**Debagoiena.** Garbiketara edota zaintza lanetan arituko nintzateke, orduka edo jardunaldi osoz. Telefonoa: 632 33 19 27

**Debagoiena.** Garbiketara, nagusiak zaintzen edota sukaldean lan egingo nuke. 612 42 03 62

**Debagoiena.** Gaztea lan bila. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Gauze eta asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest eta ordutegi arazo barik. Telefonoa: 643 14 38 75

**Debagoiena.** Haurren edo pertsona nagusien zaintza lanak, garbiketara lanak edo sukaldari moduan jarduteko prest nago. Esperientzia daukat. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 632 57 66 30

**Debagoiena.** Mutila gertu atari, elkarte eta abarrek garbitzeko. Legezko agiriak eguneratuta dauzkat. Elikagaiekin lan egiteko titulua ere bai. Telefonoa: 625 28 38 11

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko edota baserrian lan egiteko. 602 88 89 83

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 640 70 57 94

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota denetarikoko garbiketarako egiten lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, egunez edota gauze. Telefonoa: 633 12 85 30

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketara esperientzia duen neska lan bila. Etxean bertan bizi izaten, orduka eta zein asteburuetan. 697 86 48 91

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketara eta abarreak lan egingo nuke. Gomendio agiriak dauzkat. Telefonoa: 632 53 66 42

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketara, sukalde laguntzaile, baserriko lanetan, margotzean, eraikuntzan, soldadura lanetan eta abarretan lan egingo nuke. 631 67 45 17

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta denetarikoko garbiketarako egingo nituzke, ahal bada etxean bertan bizi izaten. Esperientzia daukat. 604 23 20 48

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. 632 18 43 16

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 658 92 43 73

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota garbiketara lan egingo nuke. 603 25 79 96 (Marta)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketara jarduteko gertu nago. Legezko agiriak eta Jaur-laritzaren ziurtagiria dauzkat. 659 57 93 89

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaintzeko. 631 93 11 90

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. 631 67 96 77

**Debagoiena.** Neska arduratsua, etxean bertan bizi izaten edo orduka, nagusiak zaintzeko gertu. 631 93 23 22

**Debagoiena.** Neska arduratsua, familia ardurarik gabekoa, etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusien zaintza lan egiteko gertu. Erreferentziak eta esperientzia dauzkat. Prestutasun osoa. 632 64 35 07

**Debagoiena.** Neska eskalduna gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edota etxeko laguntzaile ikastarora egiten ari naiz. Telefonoa: 634 81 54 93

**Debagoiena.** Neska eskalduna udan umeak zaintzeko prest. Telefonoa: 693 40 89 93

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. 632 27 58 61

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edota haurrak zaintzen, garbitzaile bezala edo zerbitzari eta sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. 632 62 76 07

**Debagoiena.** Sozio-sanitario titulua daukan neska gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka zaintza lanetan jarduteko. 600 01 48 81

